

# Juan Garmendia Larrañaga

## Iñauteria



12

Juan Garmendia Larrañaga Bilduma



**1973.** Iñauteria = El carnaval vasco / Juan Garmendia Larrañaga. – 1ª ed. – Donostia : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1973. – Castellano, euskera

**1982.** Iñauteria = El carnaval vasco / Juan Garmendia Larrañaga. – 2ª ed. facs. – Donostia : Larrun, 1982. – Castellano, euskera

**1992.** Iñauteria = El carnaval vasco / Juan Garmendia Larrañaga. – 3ª ed. facs. – Donostia : Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea = Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1992. – Castellano, euskera

**1997.** El carnaval vasco = Iñauteria / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Fiestas. Carnaval.* – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 3). – Donostia : Haranburu Editor, 1997. – Castellano, euskera

## 2007

---

Iñauteria / Juan Garmendia Larrañaga ; aurreitzak José Mª Satrústegui ; azaleko eta barruko marrazkiak Miguel Ángel Álvarez. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 170 or. : il. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 12). – ISBN: 978-84-8419-078-3. – Tolosako herriari eskainitako edizioa. – Sarrerako euskarazko bertsioa Gotzon Nazabal. – Edukia : 1973.III.27an Fausto Arocenak eskuz idatzitako eskutitz baten erreproduzioa

---

### Azala

Miguel Ángel Álvarez

### Marrazkiak

Miguel Ángel Álvarez  
P. 23, 57, 64, 73

Luis de Lerchundi  
P. 29, 32, 33, 35

### Argazkiak

Juan Garmendia Larrañaga  
P. 44, 45, 46, 48, 50, 82, 84

Eskertzen diegu irudiak ekarri izana ondokoei:

Miguel María Bello Portu

Julián Elósegui Irazusta

Familia Elósegui Mazas

Antonio Elósegui Vitoria

Garikoitz Estornés Zubizarreta

Manuel Laborde

Iñaki Linazasoro

José Angel Ormazabal Altuna

Rafael Pinela

José María San Sebastián

Juan Antonio Sarasola

José Luis Urruzola

Familia Yrazusta Ruiz de Arcaute

Ignacio Zubeldia



## EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56  
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: [ei-sev@eusko-ikaskuntza.org](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.org)

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga  
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin

# Iñauteria

Juan Garmendia Larrañaga

Orria

---

## Kredituak

Fausto Arocena Arregui-ren eskutitza .....	5
Lehen edizioari aurreitzak, Satrustegi Joxe Mari-renak .....	7
Zenbait gogoeta orokor Euskal Herriko Iñauteriari buruz, J.G.L. ...	11

## Iñauteria

---

Izen-deiturak eta izen oien sorkun da esanaieri buruzko zear-jardunak	21
Mozorro-jantzi ta arpegi-estalkia. Dantza .....	26
Arpegi-estalkia edo maskara Iñauteriaz kanpo .....	30
Xiberoko Maskaradak .....	34
Antzezkizuna .....	40
Lantzeko Karnabala .....	43
Adiosko <i>Judas</i> .....	51
Abarzutzako <i>Judas eta Judesa</i> .....	52
Arbizuko <i>Aittun aundiya ta Amin txikia</i> .....	52
Okarizeko <i>Lasta-gizona edo Gizatxarra</i> .....	53
Zalduendoko <i>Markitos</i> .....	55
San Millango San Romaneko <i>Amona zarra</i> .....	58
Erri-errietako Iñauteriak .....	61
Bergara .....	61
Antzuola .....	62
Elorrio .....	62

Berastegi .....	62
Elduaien .....	63
Berrobi .....	65
Lizartza .....	65
Abalzisketa .....	69
Latasa .....	69
Etxaleku .....	70
Markina .....	71
Lekeitio .....	72
Gernika .....	76
Enkartazioak .....	77
Urteen zear erri-errietako iñauteriak .....	79
Ostegun <i>Gizakunde, Emakunde ta Orakunde</i> .....	79
Leitza .....	80
Areso .....	80
Ituren eta Zubieta .....	81
Uitzi .....	85
Uztegi, Gaintza, Intza ta Azkarate, Araitz Ibarrean .....	86
Ziga .....	88
Ornoz .....	88
Beruete .....	89
Betelu .....	90
Uri iñauteria. Tolosa .....	95
Asierak .....	95
Aldaba ta Bedaio auzoetako Iñauteriak .....	96
Iñauteri agerleku nagusienak: Plaza Zarra - Plaza Berria .....	101
Tolosa, Gipuzkoako Uriburu .....	104
Beste Iñauteriak .....	111
Enparantza Berriko zezen plaza .....	113
Zezen plaza jasotzea .....	120
«Konfeti». Paper apurrak .....	123

	<b>Orria</b>
Kale jaiak eta besterik ez? .....	125
Ostegun Gizenetik Austerregun artekoa .....	125
Danberrada .....	126
Zezenak .....	127
Eskebatzea .....	134
Mozorrotuen azken Iñautea .....	135
1937-1943 .....	136
Ramos Azkarate .....	148
Musika .....	155
Kanpotar erestaldeak. Erriko Musika Bandaren oporraldia ..	155
Diana. Doinu-sorta .....	157
Alborada .....	164
Iñautearen illetak .....	165
Azken itzak .....	167

FACULTO ADOCFNA ARREGUI  
MILITANC VET. B. 41 202A.  
IN PROCO 12184  
SAN SEBASTIAN

L.P., 27-III-993

D. Sr. Juan Garmendia Larrañaga

El Sr. Garmendia Larrañaga no ha sido con-  
ducido a la prisión en tormentón. No se le ha ni faltado  
nada; al mayor tiempo de un día. Claro es que se  
me está dando y a la misma vez tiempo en mi biblioteca.

Se es una obra para Tolosa, tiene contenido tras-  
cendente para todos los vascos. Fiere y una decisión pa-  
ra determinar los asuntos que, a pesar de ser de-  
terminación, dejan muchos de ser desalentados por  
sus muchas impugnaciones. En un at. sobre Longi-  
tud del mar. La addition

Leone. Leran,

El Sr. Garmendia Larrañaga

## **Aurreitzak (lehen edizioarenak)**

---

Ernagarri herrien bizitzan ihauterien ikasgaia. Ernagarri baino ere gehiago, harrigarri esan genezake, bere griña zuzturren aurpegi izkutua bezala. Jostagarri honen txuri-nabarkeriko gutxi gizonaren asmakizunetan: poza ta negarra, daniza eta heriotza, askatasun gordinaren aitzekian bere zirikada guztien lotura erortzea.

Ihaut eguneko uren zilliportak gizonaren barruen-barrueneko gurakerien iturritik datoz, eta giza mailako lokarri guziak hautsiaz ikusten duen askatasunean datza helburu nagusia. Mozorroa, txantxoa, orduan, barneko askatasun gose hori beste egunoroko bizimodutik bereisten duen orma haundia da. Aurpegiarekin batera bere nortasun osoaren ezaugarriak uxatzeko ezartzen da, muga gabeko ametsen txoraduran murgilduaz.

Urte-aroa ere kontuan eukitzeko gauza da, menderik mende iakintza maila guzien ikaskiak emandako kutsua baztatu nahi ez ba dugu, behintzat.

Ihauteria, beraz, era askotara aztertu laike: denbora guzitan izan dituen aldaketak ikusiaz, hala gizonaren griña sakonak iturritzat hartuaz. Baina, nola nahi dela ere, herri-ohiturei begiak isterik ez dago; direnak diren bezala jaso eta idazki zaharrekin argituz joan behar. Bilketa eta billaketa.

Euskal herrixketako ihauteriak beti berdin eta beti berri gertatzen zaizkigu. Gizon berrien betiko jantzi zaharrak dakarzkigute begien aurrera. Pazko elizkizunen sokan zertxoren bat aurreratu edo atzeratu da eguna, baina, urte-tik urte egiten diren xinta-minten aldatzerik ez.

Atsegin aundiarekin dakarkit gogora bederatzi urtez bizitu nuen Luzaidoko ihautea. Gauza onak ba ditu. Errege egunetik berehala hasten dira gazteak Bolanten eguna prestatzen. Krepak dira etxetan lehenbiziko deia, taloaren antzean egiten den gozoki oria. Gera ihaut astearen kausera arro puztuak.

Errege egunean edo ondoko igandean egiten dute gazteak Bolantetako lehenbiziko bilera. Ostatuan inguratzen dira eta batzarreko puntu berekienak hauek dira: 1) Zenbat dantzari izango diren ikusi. 2) Gorriak izendatu. 3) Banderari, makilari, zapur, gigante eta zaldizkoak aukeratu. 4) Musikariekin hizketatu, hala mintzatzeko norbaiti agindu. 5) Ostatuan bazkari kontua aipatu.

Ihaut igandearekin izaten omen zen, garai batez, Luzaideko Bolant festa. Orai ez da beti hala; bazter guzitan ba dira gazteri festak eta soinulariak egunak hartuak. Baxe-nahartarrak maite dituzte Luzaiden, izan ere ongi ezagutzen bai dituzte hango lantza lauziak. Beste puntu guzien gainera, beraz, eguna ere zalantzan eta lehenik hori erabaki behar.

Bolanten eguna luzaidar eta ondarrolar guzien egun handia da. Hortaz kanpo auzo bakoitzak bere ihaut eguna egiten du, edo egiten zuen, galtzen ari bai da. Bost igande betetzen zuten Azoleta, Gaindola, Gainekoleta, Ondarrola eta Pekotxetako ihauteak. Asko da eta inork ez beretik galdu nahi; ez da harritzeko, beraz, Erregetatik ihauteriari lotzea.

Karrikan egiten da festa nagusia; baina karrikatarrak, beste alde, ba dute heren egun berexia; ihaut asteartea, hain zuzen. Astelehenean haurren eguna. Astelen astearte bikotean eskolarik ez herrian.

Luzaideko dantzarien jantzia aberats eta ikusgarria ba da ere, besterik ziren ihauteritako puska zirtzilak. Artzai xamarra, noizbaiteko emakume gona ta puskila bitxi, tauler txiki (mandarra) eta edozein gauza barregarri on zen egun hortan, Ardi larruak beste alde.

Axeri jantzia ere ba zen, bere buztan eta guzti. Oilo jale honek ematen zion axeribesta izena goizeko ibilaldiari.

Goizik hasten zen etxez-etxe itzulia ematen. Heuren hauzoa eta aldame-neko baserri urrenak ikusten zituzten. Gero, meza nagusira. Soinularien bat edo beste ere ba zuten, eta baserri bakoitzean dantzaren batzuk egiten ziren.

Jauna eta Anderea izeneko senar emazte zahartxoan esku uzten zuten pusken saskia. Axeria beste lagun zonbaitekin oilategi ta bordetan ibiltzen zen, eskura etortzen zitzaion guziak itxika jabetzen. Baserritarrak atari ta leiho guziak itxi behar izaten zuten, gero Bolan dantzak gustora ikusten egon nahi ba zuten.

Meza nagusi ondorean karrikako dantzaldia, atsaldean heuren hauzoan egingo zen festaren deia. Bordel izeneko bazterretxe aurrean ibiltzen ziren gaindolarrak; Pekotxeta eta Azoletakoak, berriz, Andikoberrian.

Luzaiden ez da lastozko irudi eta mamurik erretzeko ohiturarik ezagutzen; baina, beste ikusgarri bat ba dute. Goizean bordaz-borda ebasten ibilitako axeria larrutzen dute beste lagun batekin. Heuren jantzi puska zirtzilak kentzen dizkiete, alegia, gaineratik. Gogoan dute zaharrek Bordeleko haizean egiten del festa. Jende alde handia joaten omen zen. Bat larruz estalia eta



emakume jantzian bestea, esku bana elkarri lotua eta bestean “zarpila” trapuzko pilota estua. Biak sonbel haundi, ator zirtzila eta elorri latzekin, etsaiari nahi zuenik egiten ez uzteko.

Bi erremendu haien jantziak biluzi ondoren, gazte guzien dantza hasten zen. Baserritan bildutako puskekin egiten zuten heuren afaria.

Duela berrogei bat urte legez eragotzia izan zen ihauteria. Ez zen begi onez ikusia izan agindu hau, eta duela denbora gutxi arte egin izan da auzo batzutan. Orain haurtoak bakarrik jazten dira mozorro. Bolant egunean, hor bai, atxatatupinak izeneko jostagarrian garai bateko axeri ta anderearen jokua egiten jarraitzen da.

Orduko puntu nagusienak berekin ditu gaur eguneko festak. Musika-rik gabe, danbor soinu hutsean agertzen dira biak. Hiru itzuli ematen dituzte plaza inguruan eta ixilik gelditzen da danborra. Gorri batek zuzentzen ditu haztarrak eta gogorkeriak moztu.

Ikusgarri traketsa eta gogorra da; halare ez zen hobea izango arnegitar-  
rak beren indarrak neurtzera etortzen ziren garaiko jokua. Herriaren izena  
zuten begien aurrean.

Abesten zen kantua-  
ren zati bat ere gorde zaigu. Festaren mamia ager-  
tzen digu:

Axeri zar bat bainan ernia,  
ladron eta oilo jalia,  
inguru guztietan higindia  
izan zen artean artia.

Axeri zarra, nun duk buztana?  
Jinkoak nasaiki emana?

Bainan axeria bai goserik  
atera zen buztana utzirik;  
atera, diot, buztana muzturik,  
gauza hortaz ahalgeturik.

Nik ez dakit, egia erraiteko,  
auxe nola zen gertatu,  
dakidana zuei kontatzeko  
artetik zela eskapatu.

Luzaideko ihauteri gaiak artzaintzako kutsua berekin du. Izan ere, men-  
dialde haiek ikusi baizik ez da, hala izan beharko lukela konturatzeko. Lurrek  
zer ikusi haundia du bertako gizonen eginkizun eta bizi osoarekin.

Joan Garmendia Larrañaga adiskidearen IÑAUTERRIA, lehenik eta beste  
zer guzien aurretik, bilketako lana da. Ibilkari parrokak, Eusalerrri guziko  
bideskak erabiltzen dituela jakinik, nundik zer ekarriko zai gauzka beti adiski-

deok. Bere ibilaldi guzien emaitza aberatsa bezala, euskal esku-langintzari buruz lau liburu eder argitaratuak dizkigu. Bere Tolosa kuttunaren kondaira-azterketa egina ziguna lehenagotik, Zabala-tar Federiko jaunarekin batean.

Harri askotako ihauterriak ekartzen ditu liburuaren lehenbiziko zatian; berri ez ezagunak edo sos gutxi entzunak, batzuk, eta aipatuak besteak. BILDUMA. Baina, Tolosako ihauteria du egileak gehienik aztertu. Aspaldiko ihauteri zalea izanki bera, erroetik hartu du gaia. Iturri oneko berriak, beraz, eta paper zahar guzitan diren aipamenekin aberastuak.

Gure euskal etnologi gauzetan aberasgarri, beraz, Juanito adiskide onaren lana

Satrustegi Joxe Mari  
*Euskaltzaindikoa*

## Zenbait gogoeta orokor Euskal Herriko lhauteriari buruz\*

---

Herri baten arima oso modu desberdinetara adierazten da, jaialdi erlijioso eta profanoen bidez batipat, eta antzina-antzinako sustraiak gordez hauetako zenbaitetan.

Mesonero Romanos-ek Madrilgo 1839ko lhauteriak eta Hausterre asteazkena komentatzerakoan esaten duenean: *Gizona ezagutu uste duzue bere salbuespenak bakarrik pintatuz?*<sup>1</sup>, erantzungo nioke, hain zuzen salbuespen horietan aurkitzen direla beste inon baino hobeto herri baten arima eta nortasuna, eta zentzu honetantxe aurkitzen dira ere aipatuak zeinu desberdinetako ospakizunak.

Behin baino gehiagotan egiaztatu ahal izan dugu nola, maiz edo egunero tratatzen genuen pertsona bat, harreman normalari ihes egiten dion egoera edo gertakari baten aurrean azaltzen duen jokabidea bitarteko, pertsona horri buruz geneukan eritzia okerrekoa zen. Zentzu faboragarriko zuzenketa egin beharrean gertatuz, batzuetan, edota desengainozko zuzenketa, nahi baino gehiagotan.

Asko-asko desbideratu gabe esan daiteke urtearen agurra haratuzteko denboraldi luzea bezala deituko dudanarekin –orain gure artean jeneralean hondoko edo aurreko fatxada bezala Garizuma duenarekin– lotzen dela.

Garizumaren presentzia eta oroitzapen biziarekin lotzen zuen lhauteri bat, Nafarroako Mañeru herrikoa zen. lhauteri hauek Bost-asteko Igandearekin

---

\* Nire «Consideraciones generales acerca del Carnaval en el País Vasco» lanetik aterea. *Revista de Cultura e Investigación Vasca, Euskal Kultura eta Ikerketa Aldizkarian* argitaratua, Sancho El Sabio. 1. urtea, 2. epoka, 1. zk., Gasteiz 1991, 321/34 orr. Berorren baimenarekin erreproduzitzen dugu orrialde hauetan.

1. Mesonero Romanos: *Escenas matritenses por el Curioso Parlante*. Edic. Romargaf, S.A. Hospitalet de Llobregat 1983, 178 or.

edo Ihauterietako Igandearekin hasten ziren. Ihauteri Astearte arratsaldean orduak aurrera egiten zuten eta jaiak ere bai; baina kaleko iskanbilak egun-sentiko kantu bare eta sosegatuari egiten zion leku, goizeko seietan.

Mañeruko *auroroak* herria berrebiltzen zuten. Taldeko bat kanpanjole edo txilinajole, eta hiru txilin kolpez asten zuten kantua eta beste hirurekin, amaitu.

*Auroro*-ak goizero ateratzen ziren, San Migel egunetik –irailaren 29tik– Berpizkundeko Bazko Iganderarte. Urtearen enparatuan igande eta jaiegune-tan bakarrik egiten zuten, eta baita Igokunde aurreko errogatibetako hiru egunetan ere. Egunsentiko kantuak kaleko isiltasuna urratzen zuen, eta Hausterre Asteazkenean honela deitzen zien auroro-ak atsedean hartzen zeuden herritarrei:

Despierta hombre, despierta,  
despierta para tomar  
la ceniza en la cabeza,  
y allá podrás contemplar  
que al cabo de poco tiempo  
en el polvo has de parar,  
entre la podre y gusano  
hasta el Juicio Universal.  
No desprecies este aviso  
que el Señor te viene a dar,  
despierta como te digo  
vamos a misa a rezar<sup>2</sup>.

*¡Ay, Miércoles de Ceniza, qué triste vienes, con cuarenta y seis días, todos son viernes!*, kantatzen zuten Arabako Heredia herriko mutilek Hausterre Asteazkenean egiten zuten eskean<sup>3</sup>.

Bidera dezagun pixka bat gure saioa, nahiz eta, ez bagenu hala egingo ere barkatuko litzaigukeela uste dudan eskuartean dugun gaiarengatik, Ihauteria&desordenagatik alegia.

Urteari ekin orduko, bada, Ihauterialdian sartzen gara, eta Euskal Herrian deitura desberdinak hartu ditu aldi honek.

José Blanco White-k zera diosku 1806ko Sevillaz hitz egiterakoan:

“Garizuma aurreko jolasekin goiz hasteko bidea ematen duen ohitura zahararen arabera, egun honetan –urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean–, Ihauterien hasiera aldarrikatzen da. Baina ezer gutxi geratzen da orain urteko baraualdi luzean zehar bete behar zen nahitanahiezko laztasuna mendekatzeko bilatzen zen umore zahar hartatik. Nik txikitan ikusi eta entzun nuenaren arabera,

---

2. Juan Garmendia Larrañaga: *Carnaval en Navarra*. Haranburu Editor, S.A. Donostia 1984, 184-6 orr.

3. Juan Garmendia Larrañaga: *Carnaval en Alava*. Haranburu Editor, S.A. Donostia 1982. 58 or.

nire aurreko belaunaldia oso dibertsio kalapitarizalea zen, umeen iskanbilen antz handia zutenak, eta denbora gehiago gastatzen zuten berezko alaitasun batez gailentzen ziren jolasetan, ikusgarritasun handiko edo gusto onekoetan baino, nahiz eta ez egon berorietan inolako mokorkeria edo oieskeriarik. (...) Berez Iñauteria dena, Bost-asteko Igandera eta hurrengo bi egunetara mugatzen da, eta jende xeheak zurrutean eta auzorik apalenetako kaleetan iskanbila sortzen pasatzen ditu egun horiek (...).

Aurrerago, honela jarraitzen du Blanco White-k:

*Familia aberatsek dantzaldi bat eta afari bat ematen dizkiete beren tertuliako lagunei, eta hau berez Iñauteriak deituriko hiru egun horietako batean ospatzen dute*<sup>4</sup>.

Andaluziar idazle interesgarri honen testutik, XIX. mendearen abieran hiri handi bateko Iñauteri urbanoak nola ziren ikuspegi orokor batean ongien islatzen dituen parte aukeratzen saiatu gara.

Gure artean otsailaren bia, Kandelaria eguna, ez da neguaren bihotzetik oso urrun aurkitzen, eta ez zait batere egun aproposa iruditzen gizakia eta animalia hibernatzailea eguraldiak eskaintzen duen perspektibari buruz molestiarik hartzeko, inoiz esan izan den eta beste herrietan ezin hobea izan daitekeen bezala. Jo dezagun esaeren bildumara, non hala bait dio: *Kandelaria hotza, neguaren bihotza. Kandelaria bero, negua da gero*.

Ataungo *Otsabilko* edo *Ostegun Gizen* eguneko eskean aditu izan den letrak –nik lehenbiziko aldiz Jose Migel Barandiaranen<sup>5</sup> lan bati esker eza-gutu bait nuen–, Mutiloan bildu eta jasoa daukadana gogoratzen dit. Otsailaren biko eskean kantatzen zen hau ere, eta honela zioen:

Andre Mari otsailko, otsailko  
Nik otso bizia hilko,  
Okela bat eta okela bi  
Nere burrunzia bete bedi.

Eta *Ostegun Gizen*, hau da, Bost-asteko Igandearen aurreko jaigiroko ataria aipatu dugunez gero, ikus dezagun jarraian nola ospatu zen Baionan 1851ko urtean, nire lagun Pedro Elosegi Irazustaren adeitasunez iritsi zitzaizdan kontuaren arabera. José Nicasio Casal y Anchuelo-k *in situ* jasotako berriak dira.

“Ikusi genuen oso goiz egun horretan, zeina alde guztietan gero etorriko diren Iñauteri zaratatsuen ataria bezala bait da, nola ezohizko jendetza zebilen kaleetan zehar, eta horrek Frantzian jaieguna izango ote zen pentsatzera eraman ninduen, nahiz eta banekien, jakin, han ez dagoela igandeez bestelako jairik. Han-

---

4. José Blanco White: *Cartas de España*. Alianza Editorial, S.A. Madrid 1977, bigarren edizioa, 203, 207 eta 209 orr.

5. Jose Miel Barandiaran: “Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore”, II. 1922, *Fiestas populares*, 136. or.

dik gutxira, gero eta hurbilago entzuten ziren haizezko musika-tresnazko aire batzuek balkoietara aterarazi gintuzten, eta hauetatik, guretzat berria zen ikuskari bat behatu ahal izan genuen.

Gizonezko-talde bat beren txapelak (euskal gizaseme guztiek eramaten dituzte) koloretako zintekin egindako laxo ikusgarriekin estalita dituztela, edo lorez estalitako lastozko sonbrailuekin, edo zuriz jantzita zintazko apaingarriekin; azkenik, modu bitxietan, baina garbi eta ezin txukunago, beren musikajoleak aurretik zituztela zetozen, gisa berean jantzita hauek ere, eta erdian bizpahiru idi-pare zekartzaten, idirik bikain eta hautenak, hauek ere kapritxo bitxi eta ikusgarri hornitutako ez apaingarri gutxiagorekin. Batzuek beren adarrak urrezatuak eta beren gorputzak zilar eta urrezko izarrez ziprirtindua zeramatzen. Beste batzuk urrezko hegal zabalekiko granazko mantelinekin, hegal horietatik gai berezko borla handiak zintzilakutzen zitzaizkiela eta beren buruen gainean eskuzko lore-koroa polit batzuk eramanez; eta idi-pare guztiak lorez eta hosto berdez estalitako uztarri arin batzuekin lotuta. Segizio guzti honek geldialdiak egiten zituen noizik eta behin etxe batzuen aurrean, bertan aldi batean musika joz.

Ez gintuen gutxi dibertitu behin ere ikusi gabeko funtzio honek, zeren eta, nobedade guztiak atsegin izaten badira ere, askoz gehiago gozaten bait da atzerrian. Haragi-hornitzaileen jaia zen, beraz, Sei-asteko Ostegunean edo Ostegun Gizenean, esan ohi den bezala, hiri osoan zehar dituzten azientarrik onenak erakusteko ohitura bait dute eta gisa honetara apaintzen dituzte eta jende guztia entretenitzen, bada norabide guztietatik ibiltzen dira eta hiri osoan zehar gainera kuadrila desberdinak bata bestearen lehian zeinek dotoreen apainduta aterako eta batipat zeinek ganadu hoberenak aurkeztuko.

Guk etxetik eta joaten ginen lekura joaten ginela egun hartan, konpartsa asko ikusi genituen beren musikekin eta beren zintaz apaingutako idiekin, laxo, lore-otarre, koroa, etab.ekin, denak gutxi gorabehera adierazia dudan gisan.

–Hona funtzio bat ondo xaloa eta jende hau izugarri dibertitzen duena.

Esan nion nik ene ilobari.

–Ni ere asko dibertitzen nau, erantzun zidan; baina hemen fartsatik asko dagoela esango nuke, zeren eta prozesio hauek asko bait dute horretatik.

–Ez hainbeste, ez hainbeste, eman nion arrapostu; egia da hain egun inportantean bezala doazela, ezen munduko gauzarik formalena egiten ari direla ematen duela, baina herrien ohiturak dira, behatu eta ezagutu behar ditugunak kritikarik gabe; zeren eta herri guztietakoak miatzen baldin baditugu, zein ere diren zentzudun eta zuhurrak hauek, ondo gauza bitxiak ikusiko bait ditugu, harrituta utziko gaituztenak eta agi denez barregarriak ere irudituko zaizkigunak. Festa hau behintzat ondo baketsua da, ondo xaloa eta aillitez herri-festa guztiak hau bezalakoak. Hala-koxea izan bait zen Baionak Ostegun Gizen egunean eskaini zigun ikuskaria”.

Ez dugu ahaztu behar otsailaren 2a Ama Birjinaren Garbikundeko jaia dela. Eta garbikundeak sua dakarkit burura.

Que a mí me sobra en Toledo  
Donde vivir, sin que tenga  
Que rozarme con traidores  
Cuyo solo aliento infesta.

Y en cuanto él deje mi casa,  
Antes de tornar yo a ella,  
Purificaré con fuego  
Sus paredes y sus puertas<sup>6</sup>.

Sua beti azaldu izan da gizonaren ospakizun inportanteetan: suak ongie-torria ematen dio udari, sua pizten da urteari agur egiteko, eta sua ez da faltatu Iñauterietan ere.

Mexikon, txamula indioek oso ondo gordetzen dute garbikundeko errittoa, eta oso modu garrantzitsu batean burutzen Iñauterietan, alegia suaren gainean lasterka eginez, harik eta hau hankekin itzaltzen duten arte. Eta jaialdiari bukaera emateko zezen batzuk ateratzen dituzte, hauen gainean jartzeko nor izaten den gauza eta nor izaten den eratsia ikusteko.

Arabian, Eginoko Iñauterietan ote batzuk erretzen zituzten eta mutil gazte batzuek dantzan egiten, besteek suaren gainetik salto egiten zuten bitartean.

Galarreta izeneko auzune arabarrean, salto egiten zuten Iñauterietako suaren gainetik.

Langraizko Iñauterietan, mutil gazteak aspergaitz eta etengabe mugitzen ziren suaren inguruan, eta gauaren ilunak inguratzen zituenean, benetan Iñauterietako ikuskari bait eskatzen zuten. Aldi berean, nagusiek, hitzaspertu bizi-bizian solas egiten zuten suaren goxotasunean.

Ollabarreko plazan ardoa edaten zuten zahagi batetik, eta gero, zahagi hori, haga batetik zintzilika ipinita, erre egiten zuten sutan, Iñauterietako sutan alegia.

Tolosan, 1840ko Iñauterietan, hainbat su piztu ziren eta badakigu gauza bera egin zela ondorengo urteetan ere.

Kandelaria eguna ere itzali da eta orri bat gehiago kendu dugu gure egutegitik. Otsailaren 3a, San Blas eguna.

San Blasek eztarriko afekzioak uxatzen dizkigu, eta honek kantua munduarekin eta mahai onaren gozamenarekin, Iñauterietan hain bizirik egon ohi diren bi gauzarekin alegia, lotzen gaitu.

Otsailaren 5a, Santa Ageda, legendan eta mitoan bizi-bizirik dagoena. Eta Santu martirizatu honen eguna zorrozki iristen zaigu aldiro-aldiro Iñauterien ospakizunarekin bat eginda. Ze hamaika urtetik behin Bost-asteko Iñandea otsailaren 5ean erortzen bait da.

---

6. Duque de Rivas: *Romances*, II. Espasa Calpe, S.A. Madrid 1965, 16 eta 17. orr.

Ihauteriak direlako, edo ohitura jeneralizatuago batengatik, Santa Ageda bezpera ospatuz, herri askotako ohitura da egun horretako ilunabarrean eskea egitea.

Oso gutxi ezagutzen da otsailaren 4eko eskean egiten den agur hau, nik nere fitxa artean gordetzen dudana eta jadanik Amezketako herrian entzuten ez dena, hirurogei bat urtetik hona behintzat.

*Santa Ageda bezpera, beti onela ez gera, elbarrendarrak* (horrela deitzen bait zitzaien beheko auzokoei) *alkar artuta atera gera eskera. Alkar artuta* –taldean alegia– zioten, hitz bat baino gehiago ateraraziko ligukeen elkartasunaren frogatan. Orain ordea zera besterik ez dut esango, aspaldi-aspaldiko garaietatik, gizarte-bizitza –aurrerago ere jorratuko dudan bezala– gizadiaren konstanteetako bat izan dela. Elkartasuna, gizarte batek batasunari eusten dion neurrian nabaritzen da. Eta gogoeta honek balio du jai-girorako ere, horixe hartzen du eta bere lekua ihauteri zeinuko ospakizunak.

Eskean txistu eta atabalarekin ibiltzea, ondo gauza arrunta zen batez ere nekazari-munduko begi-belarrientzat; baina musika-tresna horien interpretazioa asko landu izan da, eta lantzen da gaur egun ere, gure herri hiritartuetan eta hirietan. Nola esplikatu, bestela, Frantzisko Maria Arsuga Letamendiak, Txango bezala ezagunagoak, zuen ospea eta Bilboko hiriak azaldu zion gorespena. Txango Tolosan jaioa zen, 1800eko urtean, eta Bilboko udal-danbolite-roa izan zen, hogeitabost urte zituenetik 1881ean hil zen arte.

Hector Berlioz-en oroitzapenetan irakur daiteke:

“Nor ausartuko ote litzateke hautapen zuhur honetan naturaren bulkadari ez antzematera, zeinak orkestazko efekturik garaienetara eta musika handioso batera bultzatzen bait ninduen! Flauta, gitarra eta flautina!... Inoiz ez nuen beste talenturik izan bertuosismorako, baina hauek ere oso errespetagarriak iruditzen zaizkit.

Baina ez, injustua naiz nerekiko, jotzen nuen eta danborra ere”.

Jenio unibertsal honek, ordea, ez du inongo beldurrik Ihauteriaren aurkako eritzirik gogorrenak jaurtikitzeko.

“Grina txarrez josia sentitzen nintzen zakur kateatu bat bezala –idazten du iragan mendearen hasieran jaiotako musikari frantses honek–. Nire lagunek niri haien dibertsioetan parte har erazteko egiten zituzten ahalegin guztiek ez zuten balio izaten nire umore goibela areagotzeko besterik. Amorratorik handiena ematen zidana, ihauterietako (...), irain doilor, emagaldu, mozkor salatari, maskara iguingarri, zaldi akitu, algarazko buruments, mirespenez txundituriko zozo-lelo eta aburrimenduz aspertuen “bozkario”etan aurkitzen zuten xarma hura zen”.<sup>7</sup>

---

7. Hector Berlioz: *Memorias*, J. Taurus Ediciones, S.A. Madrid 1985, 24 eta 168. orr.



Iruzkín honen beste aldea Ramon Artola Larrañagak, XIX. mendearen lehen herenean jaiotako poeta euskaldunak ematen digu:

Guziz egoki daki  
gezurrak kontatzen,  
egokiyago berriz  
dantzan ta kantatzen.

Eta egiten beste  
norbaiten papera,  
iruri arazten du  
bestea dala bera.

Allegatzen danean  
Iñautegi pesta,  
echean asko  
aldiz ikusiko ez da.

Denetan egiten  
du norbaiten papera,  
jantzi mudatu asko  
oi ditu atera<sup>8</sup>.

Aipatu edo ukitutako ihauteri batzuk tonu minorrekoak dira, aipatua darabagun musika-mundura hurbiltzen nauen espresioan, zeren eta, haratuzteak, Bost-asteko Igandean eta hurrengo Astelehen eta Asteartean zentratzen bait dira batipat. Ihauteri hauek egun aldagarritan ospatzen dira, eta Berpizkundeko Bazkoarengatik hori, udaberriko lehen ilargi betearen arabera.

Haratuzteak jai profanoak dira. Ez ordea solstizioen inguruan dabilzan ospakizunak, hauek edukin naturistazko erritoz jositako adierazpen batzuk dira eta, erlijio-kutsuko ohitura piadosoen pean dautzanak alegia.

“Ihauteriak dira, edo behintzat izan dira –eta hori behin baino gehiagotan ohartarazia daukat–, gizakien jairik osokoena. Denetik du: barretik, basakeriatik, disimulotik, beldurretik, urduritasunetik eta giza gaiztakeriatik. Aurki daitezke hor sentimendu antzestral eta totemikoen aztarnak, garairik urrunera irits daitezkeenak”<sup>9</sup>.

Ez da izango ezta ere lehenbiziko aldia guk ezagutu ditugun edo besteei entzun dizkiegun ihauteriak desordena eta kaosaren, nortasuna ordezkatzearren, mimesi eta lengoia figuratuaren, maskara eta mozorroaren adierazpen bat direla, urtetako tradizioari leial zaizkion dantzekin eta inprobisazio eta sorpresarekin jokatzu kaleak zeharkatzen dituzten segizioetan.

---

8. Ramon Artola Larrañaga: *Erriko seme iruchulotarra*. Euskal-Erria, VIII (1883), 163 eta 164 orr.

9. Pío Baroja: *Los demonios del Carnaval (Vitrina pintoresca)*, Obras Completas, V. Biblioteca Nueva, Madrid, 819. or.

Mozorroren adibide bat emateko, hauen iharduketak diodanaren parte bat jasotzen bait du, Izabako *mudaos* direlakoak aipatuko ditut. Informazio hau nire adiskide on Mariano Estornes Lasari zor diot, honek eman zidan eta orain dela urte batzuk.

*Mudaos* hauek Izabako mozorrotuak, ez ezagutuak izateko ahaleginak egiten zituztenak, eta Erronkariko neskak ziren, Maulera espartingintzara joaten zirenak eta bakoitza bere etxera gauez itzuli ondoren disfrazatu egiten zirenak. Azken hauen artean baziren bordatan disfrazatzen zirenak ere, oraindik ezagungaitzago bihurtzeko.

Mozorroren hauek beren ohizko ahotsaz bestelakoan, faltsetean, mintzaten ziren, hitzak artifizialki ebakiz. Hortik datorkie hain zuzen *mudaos* izen hori, ohizko ahotsa ezkutatu egiten zutelako. Iñauterietako izen honek ez zeukan inolako zerikusirik mozorrotzearekin, arropa-aldaketarekin alegia.

Merkantzia debekatuen Pragmatika moderatuz 1565eko urtean emandako Errege-Gutun Patente batek, inportatzea galerazia zegoen hainbat produktu edo gauzaki argitzen dizkigu, eta horien artean maskara aurkitzen da. Honela badakigu maskara inportazio-gai posibleetako bat zela XVI. mendean.

Iñauterietan fijatzen baldin bagara, kontuan izan behar da beren ospakizunak behar hainbateko askatasun egokiarekin kontatu behar duela gizakia- ren barne-egoera kanporatzeko. Askatasun-faltak ito egiten du jokabide eta ospakizun askoren –eta hauen artean Iñauterien– izpiritu aragilea.

Erakunde zaharkitu batzuek nekez egin zezaketen jai hauek ospatzearen alde. Esan nahi bait da, garai bakoitzeko erakunde sozio-ekonomikoak oraingo eta lehengo ikuspegiarekin hartu behar direla kontutan, eta puntu honek sarri askotan ihes egiten digu ohartzeko Iñauteriez interesatzen garenean.

Ohiturak, komunitate xoil edo apaletan, oso geldiro aldatzen dira, ohartu ere egin gabe sarri askotan hainbat belaunaldiren buruan. Horrexegatik entzuten da hain sarri eta erraz harako esaldi hura: *“hau beti honela izan da”*. Komunitate hauen ezaugarriak berezietako bat izan da, eta da gaur egun ere, bizitzako gorabeherarik desberdinenetan laguntzeko duten aurrerajarrera. Gizadia, bere izaeratik bertatik sortu diren erakunde batzuen inguruan bizitu izan da, eta diodan hau oso gogoan eduki behar da Iñauteriak aztertzeko orduan.

Haratuzteak, gaur egun ikusten ditugun bezala, partaidetza kolektibozkoak izan dira, nagusiki bederen, nahiz eta ez dugun ahaztu behar duten alderdi individuala ere; baina aspektu hau, bat zein ingurune edo gizartekoa den kontu, horren arabera topatuko da.

Eskea, haratuzteetan hain usua dena, elkartasunaren frogarik argienetakoa dugu, eta asko harritu ninduen behinola Arabako Heredia herriskan Iñauterietan ligan batez egiten ari ziren eskealdi batean aditu eta jasoa daukadan letrak:

Bendita sea esta casa  
Y el albañil que la hizo,  
Que por dentro está la gloria  
Y por fuera el paraíso.

Baina argitu behar dut bidenabar igeltsero langile hori ez dela izan ematen duen bezain apal eta xoila, aparteko jainko batekin kontatzeko luxua izan du eta. Tutela jainkoak babesten bait ditu igeltseroak, Tarragonan aurkitutako inskripzio batean ageri den bezala, eta eskulangile hauen lanabesetatik atereak izan dira, bereberki, mazoneriaren sinboloetako batzuk.

Gureganaino iritsi den Iñauteria, kasu batzuetan behinik behin, nik jaialdiaren eskeletua deitzen diodan eta, neurri batean bederik, bere jarraitasuna garantizatzen duen antolamendu bati lotua dago. Hauek dira, esate baterako, Lantz, Ituren, Zubieta, Zalduondo, Tolosa, etab. etako kasuak. Baina,aldi berean, guk ezagutu ditugun iñauteriek oso erraz ihes egiten diote esan dugunari eta anarkiaren eta inprobisazioaren mundu mugagabera jotzen dute erraz aski, non mimesi gutxi-asko ondo asmatuak oso eremu zabala besarkatzen duen. Horrela on bihurtzen da Aristotelek azpimarratua, alegia, gizakia beste animalietatik imitazioarako iaioagoa izatean bereizten dela dioenean (*"Poetika" 2. kapitulua, 1. parrafoa*).

Iñauteri hiritarra hartzailea da. Eboluzionatuz doan prozesu baten barnean mugitzen da eta bizibidearekin aldatuz doazen jai- eskakizunei erantzuten saiatzen; bere ospakizunean presente aurkituko dugu beti bizibide batean edo bestean gaurkotasuna duena. Bizitza osoan. Baina Iñauteri hiritarrikalatar hau, indarra galduz jaon da pixkana-pixkana, salbuespenak salbuespen, gure egunotako mundu arautura moldatzen jakin ez duelako edo berorrekin bateraezina zelako.

Hona zer idazten duen Emilio Navas-ek bere *Irún en el siglo XX (1900-1936)* liburuan, 1900eko urteko iñauteriei buruz: *"Iñauteriak bizirik gabeak izan dira. Ez da ikusi bere disfrazagatik atentziora duen maskara bat bera ere"*<sup>10</sup>.

Iñauteri landatarra, aldiz, ez da hartzaile, ikuspegi orokor batetik begirata behintzat. Eta hori baldin badiot, akulturazioaren egitatea ahaztu behar ez delako da, ezin diote eta horri ihes egin, neurri handiago edo txikiagoan, herriek. Nire *Carnaval en Alava* liburuan azaltzen dudana bezala, haratuzte landatarrek, barne-giroa kanporatu nahi bati erantzuten diote, komunitatearen izaeran bertan sortu eta kanpora proiektatuz. Naturarekin harremanetan dagoen bizitzaren arabera burututako Iñauteri bat da, argi aski azaltzen den bezala suaren kultuan eta zenbait disfraz edo fartsatan, hainbat kasutan urte eta urtetako bizitza errealeko portaeran sustraitua dagoena, eta jakinzailearen egitekoa izango da ikergaia zer den funtsezkoa eta zer akzesorioa, zer bertakoa, autoktonoa, eta zer arrotza bereiztea.

---

10. Emilio Navas: *Irún en el siglo XX (1900-1936)*, I. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea–Donostiako Aurrezki-Kutxa Municipalak. Donostia 1977, 357. or.

Teorizatzaileak, interpretatu behar duen egitatearen ezagutzan bermatu behar du, kontutan izanik beti ere, Arnold van Gennep-ek ohartematen duen bezala, deformaziorako joera, nola kolektibo- mailan hala indibidualean, behatzen den une beretik sortzen dela<sup>11</sup>.

Ihauteria goxo-goxo, koloretan eta biziarekin deskribatzen saiatu behar da. Ez da aztertu behar horizontalean, sakonean ikertu behar da.

Ihauteria ikertzearen helburua beroriek bizi eraztea da, egungo egunean eskaini ahal izateko, horrela iragan arrabizitu baten funtzioan interesa dakizkigun.

Malinowskik esaten duen bezala, ez dago deskripziorik teoritik zeharo biluztua egongo denik; baina gogoratu behar da halaber Unamuno ere, zera dioenean, alegia, zenbat eta teoria gehiago eta ikerketa gutxiago, orduan eta kultura zientifiko gutxiago dagoela.

Ihauterietako sinbolo batzuen erreketeta eta errematea, ia beti jaialdia ospatzen den azken eguneko ilunabarrean ematen da, eta hau izan daiteke adio nostalgiko bat, atzean geratzen den zerbaiten adierazpena. Gogoan izan behar dugu gizonak trantsizio oro, bizileku, status sozial, etab., etab.en aldaketara, errotz lagunduta egiten duela.

Ihauterietako zenbait panpinalmozorrolsinbolo, esate baterako Lanzko *Miel Otxin*, ezagunak zaizkigu. Beste hainbat ordea, ez dira gehiago bizitzara itzuli urte bateko –apenas gogoratzen den urte hartako– erreketeta edo makilazoetatik; alienatuak dira beharbada sekulako, salbuespen gutxi batzuk salbu noski, Zaldudoko *Markitos*-en kasuan bezala.

Ihauterietako beste pertsonaien artean gogora ditzadan honako hauek: Urdiaingo *Alikote*, Ustarrozko *Aitandi Txarko*, Izabako *Amandizarko* andere erraldoia, Villanueva Arakilgo *Aittitxarko*, Arbizuko *Aittun Aundiya* eta *Amin Txikia*, Iranetako *Antxon Zarkua*, Yabarko *Aitezarko* familia, hala nola Okarizko *Gizon Gaiztoa*, Arriolako *Kriminala*, Egiluzko *Atso-Zaharra*, Eginoko *Lastozko gizona*, etab., etab.

Villanuevako Arakilgo *Aittitxarko* edo *Itxitxarko* aipatu dut. *Bada, behin pertsonaia honen inguruko pantomima bukatu ezker, gaeuzko kalejiran koplak kantatzen zituen gazteari entzuten zitzaion. Horrelaxe egiten zien agurra Ihauteriei, honako koplak honekin errematatuz haratuzteak:*

Vamos a casa mozos,  
Que las estrellas van altas  
Y la luz del día viene  
Descubriendo nuestras faltas.

Juan Garmendia Larrañaga

---

11. Arnold van Gennep: *La formación de las leyendas*. Edit. Aita Fulla. Barcelona 1982, 150. or.

## Izen deiturak eta izen oien sorkun da esanaieri buruzko zear-jardunak

---

Zenbait erritan, tamalez gero ta gutxiagotan, Eguberri jai-kondarrak amaitu ordukoxe, Iñauteri, Aratuzte, edo Karnabaletakoen gertutzeari ekin oi diote, izen guzti oiekin ezagunak baidira gizagogoan da oituretan ain erro-turik dauden jaialdi berezi oiek. Eta ori egiztatzeko naikoa degu Aita Larramendiren erdal-euskal-laterazko Iztegi irukoitza ikusmiratzea, *antruejo*, *iñoteria*, *aratuztea*, ta baita *zanpantzartac* ere esan-nai bereko direla jakiteko. (Lenengo alea, 81 ta 177 orr.).

Andoaindar jesulagunaren Iztegi ortan ikusi dezakegunez, beti itzez-itze segi bearreko ez bada ere, auxe ageri da beintzat garbi: *burla* ta *iñakiña*, *burla egiñ* da *iñakindu* itzen adierazpena ainbatekoa dala (I alea, 152 orr.). Gai onetzaz Julio Caro Barojak diguna oso kontuan artzeko da iñondik ere, ta auxe da: *iñakiña* ta *iñakindu* itzak, antxiñakoen *burla* gogai ori zeazkiro adierazten al digute, ala beste nonbaitera jo bear degu aztarren billa?<sup>1</sup>.

Joxemiel Barandiarangandik dakigu, Saran, Karnabalak *laute* izenez ezagunak dirala. Lapurdiko urixka polit ortan, esaera zarra da: *mintzaille ederra Sarako*, Iñauteri jaitan, Ostegun Gizenez, ume ta zarrei ere txerrikiak zabal-

---

1. Jakingarri da Caro Barojak bere liburu *El carnaval* izenekoa, 43 orrian, «Iñauteri» ta kideko izenei buruz diona. Manuel Lekuonak ere, *Mozorros y Luperkos* deritzan idazlana ba du aitagarria, *Euskalerraren alde* aldizkarian agertua, XVII alea, 50-56 orr. 1927 urtea. *laute* ta erromatarren otsailleko «lupercales» otsokundeak alderatzen ditu. «Februas» zeritzaten zerimoniak ziran ain zuzen Lupercales aldiko jaikizunik nabarmenenak eta «Februa» oiek garbikunde indar berezia omen zuten. Ortik «Februarius» illaren izena. Garbikunde ori ontan zegon, besteak beste: Pan jainkoaizunaren apaizek Erromako kaleetan zebiltzenei auzt-larruz egiñiko astinkaiaz ematen zituzten zartatekotan. Lekuonak dasaigunez, gure laute, iautu itzetik letorke (A. N., Mendiburu), orain darabilgun txautu edo xautu orren aldakizun, eta garbitu, astindu, jo ta zartaka garbitzea esan nai du, lixiba jo, xuritu, ezabatu, laterazko «februare»-k bezelaxe. Azkue'n Iztegian (I alean, 58 orr.), *Aratuste* agiri da, aragi ta uzte itzez osatua. Dakigunez, gai ontan jakitumak bat datoz, «Carnestolendas» deitura bezela, berrogeikaro ortan «carnes tollere», aragi uztea kristau legs baita. Lekuonak, Iñauteri deitze ori, Gipuzko erdialdeko bezela jotzen du; Iñaute ta Iñote, Bidaso egaleko; Iñoteri, Ipar Naparroko; Inhauteri, Ihauteri edo Ihaute Benaparroan; laute, edo laburtuz lote, Laburdi, Salazar ta baita Oyartzun alde batzutan ere.

tzeko oitura da: urdai, belarri, odolki ta lukainka. Eskekoak etxe-atarian deadar dagite: *laute, laute, zingar t'arrautze*. Eta, ataundar gorengo aztertalle onek digunez, txerri-puxka oiek, gerrena dioten zurezko agan zintzilik daramazkite<sup>2</sup>.

Karnabal izenaren esanguraz, gure Olentzaro-z bezela, bi-biak aldi bereko izanik, ez da gutxi idatzi. Carnaval, «Curus navalis»-etik datorrela asmatu digute ele-jakitun da kondairazale batzuk, eta erromatarrek Isis jai kalejiratik artua omen diteke. Baña Caro Barojak dasaigunez, gauregun bururakizun ori badaezpadakotzat jo bear omen da. Izen-deitura orren arrasto jatorragoa arkitu leike noski kristau-erriaren Garizumako baraualdian<sup>3</sup>. Gaur aitor dezakegu ziur, Karnabal-aroa, jan-edan da nabarmenkeri aldia dela, Garizuma, alderantziz, gartxualdi ta izpiritu girozko den bezela.

Resurrección Maria Azkue'k azaltzen digu Orion abesten zana:

«Gaur dala Maria kale,  
biar dala Zanpantzar,  
egin dezagunarte  
tripan larruak zart»<sup>4</sup>

Lekeition berdiñ, lagun talderik otordu oparotsuan biltzen bazan, erasozten omen zieten esanaz: *Egin dozue Zanpantzar ta Mari Galleta*<sup>5</sup>.

«Zanpantzar. Iñauteri asteartia. Donostiar jator guztiak beren zelebrequeri puntta egiten duten eguna»<sup>6</sup>.

*Zanpantzar* deritzan panpin zatar ori, ainbat erritan Karnabal adirazgarri zaiguna, ta bere izpirituaren agerle, praintzitar «Saint Pansard» –San Panzudo– edo *Sabelandi* gogora dakarkigu. Sanpantzar gizirudia Olentzeroen jatorriko degu ba ta tripaizaikeriaren irudi bizi.

Bigarren karlista gerrate ondorenean galdu zan Sanpantzar jaia Irunen. Ba dira ba urte batzuk Bidasoz aruntz joan zitzaigula etorritako bidetik<sup>7</sup>.

Arestian aitatu degun Sara'ko enparantzan, erre egiñ oi zuten, biraolari zala ta Karnabal irugarrenaren irudia. Eta Bearnen, Zanpanzaren kalez-kalekoa astearte-Iñautez ospatzen dute. Zanpanzar tripaundi, odoluritsua, Garizuma nortzen duen andre argal, zurbill, sardiñ isatsez ornituriko soñeko zuridunak epaitu oi du. Eta bi antzezlarien arteko eztabaida ondoren, Zanpanzar'en gaitzespen da eriotzaz amaitzen da.

---

2. José Miguel de Barandiarán: *Anuario de Eusko Folklore*, XXIII zenb., 99 orr.

3. Julio Caro Baroja: ait. lib. 30 orr.

4. Azkue: *Euskalerrriaren yakintza*, I al., 318-320 orr.

5. Azkue: aip. lib., I al., 320 orr.

6. Toribio Alzaga: *Zanpanzar. jostallu pargillea*.

7. Luis de Urantz: *Lo que el río vio*, 426 orr.



Baiona'ko Zanpanzar, espetxe aurrean epaitu ta su emanda, aren kondarrak ibaira botatzen zituzten<sup>8</sup>. «Xiberoko Maskaradak eratzen dituzten erriak, Zanpantzarren gzirudia austerre egunez erretzen dute»<sup>9</sup>. Liginaga'n (Laguin-gue) austerre-egunez Haustez-Japantzar deritzan txontxongillo sabelaundi bat darabilkie errian barrena. Gero, erriko enparantza erdian ipiñi eta su ematen diote. Bere inguruan dantzatzen dira guztiak. Jai onegatik Austerre egunari *Pantzarteguna* izena eman zaio<sup>10</sup>.

Ba dira diotenak, Iñauteri jaien jatorria, erromatarrek Bako-ren omenezko orritskerri ta tripa-festetan billatu bear dala. Ilbeltz asieran, Jano bikopetadun jainkoari eskeiñitako mozorro-jaitan; saturnaletan, katiguak askatu ta jolas-erregea autatzen zanekoa, gaurko San Nikolas ta Iñuxentetako gezur-gotzaia-aren oroipena dakarkiguna; luperkalesetan, otsabil artzaigirozko festetan; matronalias, emakume ezkonduen jaitan, len gizonezkoei bezala, oraiñ egun oietako bederen emakume katigui libertadea ematen zietenekoan. Kideko-tasan oiek guziak ordea ez dira naikoa nai luketen senidegoa agertzeko<sup>11</sup>.

Karnabal itza ta bere sorkuna eztabaidagarri baldinbada ere, ez da ordea ala gertatzen gure artera noiz iritxia den auziarekin.

Negu-jaiari buruz, Iñauteri rito asko, abendutik martxoarteko neguaroi dagozkienak beintzat, kristau erligioaren eskutik etorriak agertzen zaizkigu. Ala, adibidez, Kandelari, San Blas eta Santa Ageda bezpera, au bere eskeoitura zaarrarekin. Len esan dugunez, eskebatze au Iñauteriz ere zenbait lekutan egiten dana da. «Erligio saillean deabruak bere arri-topekoa Jainkoagan daukan bezela, Karnabalak Garizuma asierako austerre egunean du berea»<sup>12</sup>.

Juan Ruiz, edo obekiago esan Hita'ko Arziprestearen DE LA PELEA QUE TUVO DON CARNAL CON DOÑA CUARESMA-tik, ateratzen ditugu bertso auek, guk itz-lauz eta euskeraz ematen ditugunak:

Neregandik, Garizuma andra, itxasoaren zuzentza, salbatu bear nauten arimen errizaiña naizen onengandik, iri, Iñaute litxar orri, iñoiz asetuko ez aizen orri, Barauak nere izenean, arpegia emango dik.

Oso ongi jarrita zegoan Iñaute jauna ongi ornitutako maiean, oiñ-aulki zabalaren gaiñean; koblariak, bere aurrean, jaun agurgarriari dagokion bezela; jaki guztietatik bete-betea.

---

8. Juan Thalarnas Labandibar: «Contribución al estudio etnográfico del País Vasco continental» *Anuario de Eusko Folklore*, XI al., 40-41 orr., 1931 urt.

9. Violet Alford: «Ensayo sobre los orígenes de las mascaradas de Zuberoa». *RIEV*, XXII al., 1931 urtea, 377 orr.

10. José Miguel de Barandiarán: *Ikuska. Instituto Vasco de Investigaciones*, irugarren alea, 2-6 zenb. Sare. Mars-Décembre, 1949 urtea. «Materiales para un estudio del pueblo vasco En liginaga», 42 orr.

11. Julio Caro Baroja: aip. lib., 28 orr.

12. Pío Baroja: aip. lib.



Gaba etorririk, afari ondoren, guztiak sabela ongi beteta zeukatenean, erri-zain etsaiarekin burrukan sartzeko, zorionez guztiak loak artuta gelditu ziran.

Gaberdi inguruan, aretoen erdian Garizuma andra sartu zan, Jaun, Jaungoikoa, lagun zaiguzu! Oillarrak abots egin zuten eta egoak astindu; eta berri txar auek Iñaute jaunarengana iritxi ziran.

Gizarajoa geiegi janda zegoalarik eta, aragi askorekin ardo asko edanda, puztua zegoan, erdi-lo; zabaldu guztian guda-deiaren oiua entzuten da.

Erdi-lo joan ziran guztiak burrukara; guda-taldeak bai osatu, baiñan iñor ez da burrukatzen. Astintzen dituzte ongi itxas-gudariak beren izkilluak eta guztiak zauritzeari ekin, esaka: Goazen!

Iñaute jauna zauritu zuan lenengoa porru lepa-txuria izan zan, eta oso gaizki utzi zuan, karkaxa botatzera beartuaz; auxe izan zan dei-zantzua. Zabaldu guztia berea zala uste izan zuan andra Garizumak.

Sardin gazitua etorri zan gero berari laguntzera, sendoro zauriturik ollo gizona, eta bere mokoan zearka gelditu errearki itotzen zualarik gero, Iñaute jaunari, burnizko burukotea autsi zion.

Antxen zebillen atuna (ega-luzea), katamotz ausarta ba-litzakean, Urdai jauna arkitu zuan, eta irain aundiz esan; guda-oialak okertu zuan zeziña izan ez ba-zan biotz-biotzean joko ziola Lardón jaunari.

Laredo kondea an burrukatzen da, oso indartsu itsas-aingira, trinko eta freskoa, Iñaute jaunari zoritxarra ekarri ziona; eraso eta eriotzara bultzatzen du. Iñaute jauna itun dago, alaitu-eziñez, mugi-eziñik.

Loturik ekarri zituzten, iges egin ez zezaten, andra irabazlearen aurrera, azkatu baiñan lenago; eta Garizuma andrak agindu Iñaute jauna gorde zezatela eta Zeziña andra eta urdaia zintzilikatzeko.

Barauak zaindu zezala Iñaute jauna; itxirik edukitzeko eta iñork ez zezala ikusi, gaixorik zegoanen batek ez ba-zan, edo aitor-apaizen batek; eta egunian jatena bakar-bakar bat eman zezaiotela.

Igande egunez, ire ezin-ase orrengatik, olioarekin jan beariko dituk garbantzoak, ezer geiagorik gabe; eleiza ikusi, eguraztera ez joan, ez duk ere jenderik ikusiko ez eta txarkeririk iñori opako.

Babak, eta besterik ez duk jango larunbat egunetan, bekaizkeri aundia daukamelako, arrairik ez duk izango; au guztia dala-ta zerbait nekalduko aizelako ire arima pekataria salbatuko duk.

Auxe izan zan erronka, bere agerbidearekin esandakoa: Guregandik, Iñaute indartsuak, guzti-guztia iltzen duan onek, zuri, Garizuma mear, giartsu, gizatxar eta legenardun orri, osasuna ez baizik odoletan ixurtzea opa dizut, karkax-jario.

Lapurrraren antzera etorri ziñan, gabaz, illunpean, Gu lasai geundenian atsedean onean; ez digu Guri ez gaztelurik ez esirik galeraziko, iretik ar dezagun larru-azal eldua.

Beste eskutitz bat danori zuzenduta zijoan: Gu, Iñauteri altsuak, Jaungoikoa'ren laguntzaz, kristau eta arabetar eta judutar guztiei osasuna, aragi askorekin, beti Gugandik zuetara.

Oso ongi dakizute, adiskideok, nolaz, pekatuaren-pekatzuz! dirala orain zazpi aste eraso-erronka bota zigun Garizuma maltzurak eta itxaso asareak, eta Gu atsedenean geundela erasoturik gertatu giñala.

Caro Baroja'k zeatzki digunez, gure Karnabala, atsegiñ bazaigu-ezpaizaigu, kristaukumea dugula aitortu bear dugu; edo, obeki esanda, Garizuma gabe, ez litzake ezaguna izango gure artean, Erdiarotik ona European ezagutzen dugun eran beiñepein. Ordunik baidatorkio, ain zuzen, bere izakera berezia. Orrek ez dio ordea Iñauteri-jaiari iñolako moduz berekin duen paganotar kutsurik kentzen, ostera baizik, «lurkoi balioak nabarmenarazten dizkio», orren ondorengo dolu-aldiak, seriooki, «kistar-balioak agertarazten dituanetz». «Nerekiko, dio Caro Barojak, Karnabalaroa, aldiaren umea da»<sup>13</sup>.

Zenbaitek, aixegi noski, Iñauterieri pagano-kutsua bakarrik nabaitzen dio. Jokabide errexa orixe iñondik ere; zergauz erligio kistar-gandikoak eta zertsuk paganogandikoak diren bereiztea baño. Eta orrela, jakiña, Iñauterien erligioarekiko zerikusia erabat baztertu ta ixildu egiten dute.

## MOZORRO-JANTZI TA ARPEGI-ESTALKIA. DANTZA

Euskalerriko Iñauterietan, naitaezko jan-edan-bear oparotsuz gaiñera, baditugu gizirudi parregarriak ere, zomorro-jai oien izpiritu agergarritzat artu ditzakegunak; orra or arestian aitaturiko Zanpantzar ori; baita mozorroak ere, zaarretakoak batikbat, ardi, aari, artza naiz azeri-larruzkoak, gizakia abereitxuratzen dutenak –areago oraindik, euskal esaerak dionez, irudia ta izana kideko baitira–, eta arpegi-aurrekoaz ere ia berorixe esan dezakegula derizkiot. Beste zerbait ere aipa bearrean gera festa oien osagarri: eresi edo musika<sup>14</sup>, dantza, jolas batzuk eta izkera berezia, alegia.

---

13. Julio Caro Baroja: aip. lib., 22-23 orr.

14. Emen esaten ari geran musikarekin zer-ikusi aundirik ez duen-arren, bañan bai festa oekin, Norberto Almandozek Sevillako ABC, egunerokoan, 1956 urtean, abenduaren ogeitairuan, auxe argitaratu zuen: «Ezin uka dezakegu, Karnabalak musika doñu baliotsurik sortarazi duela, naziotako gertakizun mota guzietakoz gairi iraun dutenek. Pianoak, orkestak, operak eta abebatzak, eta abarrek jaso dituzte Iñauteri takakoa».

. Norberto Almandoz'en lan orretan azaltzen dira Schumann'en «Iñauteri» eta «Viena'ko Iñauteria»; Liszt'en «Pest'eko Iñauteria», Berlioz'en «Erromatar Iñauteria»; Dvorak'en «Iñauteria»-«Maskarada» deritzan Nielsen'en sinfonia; Milhaud'en «London'go Iñauteria» eta «Aix'ko Iñauteria» eta Benjamin Britten'en «Kanadatar Iñauteria». Aipatzen du, baita ere, Saint-Saëns'en «Abeeren Iñauteria».

. Eduardo Mokoroaren ikasle izan zan Astigarragako musikalaria onek ba-ditu, ordea, idazki orretan oso atsegiñak ez diran itz makatzak kaleko Iñauterientzat, agian egokiak bere garai artako apaiz bati zegokion eziketarengatik, bañan idazki onen egillearen iritziarekin bat ez datozenak.

Iñauteriaz mintzo geralarik, jauzi ta dantza etengabe aitatu bear. Bernardo Estornes Lasa'k digu, dantza, gure erriaren kirol zarra deitu izan dala. Leen-garaiko eiztarien-gandikoa omen dugu, orduko piztitzarrak izotz-orma artean eizatu ondoren sortutakoa. Siniskeri kutsuzko dantzak, aunditasunez beteak, adoretuak...<sup>15</sup>.

Guiche'-ko kondeak 1671 urtean zionez, «Euskalerriko Iñauterietan ez dago dantzan egin gabe egoterik»<sup>16</sup>.

Pedro Fernández de Campo, Felipe IV-garrenaren edeslariak, Gipuzkoan ikusitako dantzen berri zeatza damaigu. Karnabalez eta jai aundienetan dantzatzen zirala dio. «... errietako emparantzetan da abar, baita andikitarrak berak ere, ezpata gorriak diz-diz, batak beko muturretik eta besteak eskulekutik elduaz, mugimendu ikusgarriak zegizkitela».

«Gero, ezpatak utzi ta emakumeekin dantzatzen dira, andikitarrenakin ere berdin. Ori, geienetan, txirula ta kaxa baten soñura dagite, eskuak alkarri emanda, erreskadan naiz biran gizon-emakumea txandatuaz. Erri xea ia jaiero dantzatzen da. Badira orraatik toki batzuk ezkonduak dantzatzen ez dutenak»<sup>17</sup>.

Iztuetak, euskal-dantzei buruz Jovellanos'ek idatzitakoak irakurri ondoren ala dio: «Noraño jasoko otezituzkean, euskoak, norbere erriko jaitan... da Iñauteriz zegizkitenak, ain bikañak, ikusi izan balitu...?»

Zaldibitarak, gure dantzen baztertze negargarriaz ari zaigularik, alakorik urtean oso gutxitan ikusi ditezkeela, dio. Iñauteriz soilki. Zaldibitar dantzari-zale purrukatu onek, beste batzuen artean «azeri dantza» ezagurazten digu, Iñauteri girorako arrunt egokia. Eskerakoan, basarri-atadietan dantza oi dira gazteak, eta, eskura di tuztenak sabeleratu ondoren, an dijoaz plazara berriro dantzari jarraitzera.

«Dantza alaia ta bizia izanik, poz-oiu ta irrintzi dagite dantzariak. Buruzagiak, zuzi piztuakin, sudurzulotan damazkiten amukoei su ematen die. Beste batzuk, doñuaren azkenean, plaza-erdian zintzilik dagon uztaiaren barrena buruz-aurrera begiak itxita igaroko dira»<sup>18</sup>.

Durango'ko Karnabaletan, erri-agintarien begirapean, «dantza luzea», aureskuia zeritzana, ta «fandangoa» dantzatzen ziran «erri erara». Etxerakoarekin bukatu oi zan jai-aldia. Doñu ori entzutean, Agintariak, soñu-joleak aurretik zituztela, plazari bira ematen zioten. Jai-irugarrengoz ordea, kalez-kale jarraitzen zuten ardangelak ustueraziz.

---

15. Bernardo Estornés Lasa: *Estética vasca*, 75 orr.

16. Francisco Arrarás Soto: «Danzas de Navarra». *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, irugarren urtea, 8 zenb. 1971. Maiatza-abuztua, 172. orr.

17. Ignacio Iparraguirre, S.J.: *Idiazabal-visión histórica*, 100-101 orr.

18. Juan Ignacio Iztueta: *Guipuzcoaco dantza gogoangarriak*, 68-69, 85 ta 229 orr.

1830-garren urtea ezkerro, Durangoko Iñauterietan noizik-beiñ «Domingillua» atera oi zuten, baña, soildua, urritua, au da, zortzi zintadun agaia besterik ez. Urte orren aurretik ordea, «Domingillo» ori osorik agertzen zuten, murriztu gabe, alegia. Aga-buruan gixon-irudi bat zeraman ikurriñ gixa. «Zinta bakoitza, taldeko mutiko batek, eta aga berriz, morroskoak zeramazkiten. Dantzari-txikiek zinta oiek gurutzatu ta askatuz dijoaz dantzari uzteke»<sup>19</sup>. Gure «zinta dantza» ezagunaz ari dela derizkiogu.

Luzaideko dantzariak Iñauterietan da «Bazko Zaharrek» deritzanetan agertu oi dira. Ogeiren-bat dantzari dira, beren zintzilikaio apaingarriengatik *bolantak* deituak. Atorra xuri almidonduaz iantziak, paparaldea urrezko orratz, botoi, kate ta edergalluz apaindua.

Bizkar-sorbaldetatik dilindan sedazko xingola luzeak, belaunpetaraño-koak. Pañelua paparrean-bera gerriko batekin soiñari lotua. Bai ederra!

Galtza zuriak, barrenetan, zearka, lau galartzuz, ta albotan goitik-bera kolorezko zinta gurutzatuz orniak, eta denak kuxkulluz josiak. Abarketa txuriak, kolorezko zintatxoaz apainduak. Buruan txapel gorria, beste kolorezko borladuna. Lenago, ta oraindik ere, koroatuak ziran eta dira *kaska* deritzan kartoizko burukoaz, arrabetean paperezko lorez edertua. Dantzari ikusgarri oek ba-daramakite kolorezko zintatxoaz jantzitako eskumakila ere.

Luzaideko dantzarietan zaldizkoak ere badira, bat edo geiago, zamar gorri jantziak, zinta zuri edo urraidazkoz, praka xuri ta zaldun oiñetako. Txapela gorria borlakin. Zaldizko oiexek dira dantza-taldearen oiulari ta otsegille. Dantza bitartean, beren buruak erakutsiz gañera, badute beste zeregiñik, alegia, jendeari eustea, dantzarien trabagarri ez ditezten.

lote-taldeko ditugu baitere, *zapurrak* deituak, alkandora, mantal da galtza zuriz, ta banda gorria bularrean zear dutela. Ardi-larruzko burukoa daramate ta bizkarrean zurezko aizkora margoztua.


*Makilariak* kartoizko burukoa zeraman sedaz apaindua, ta aurrekaldean ixpillutxo batekin, gotzai-txapel antza artzen zun. Eskutan daraman kolorezko makila aidera botatzen, da beartzartean girabiraka ibiltzen oso iaioa da. Aizken sailleko Makilariak zamarra ta buruko estalkia gorriak. Buruko estalkia zubil tankerakoa, bi ronbo illeraz, lumez gainditua.

Bi *Gigantiak*, txapel gorria ta pañelua lepoan, bruxa ta gona zuriak.

*Gorri* degu zomorrotaldearen buru. Gorriek sarritan bi izan oi ziran. Beste dantzariak bezelako prakak dituzte, zamarra gorria, ta txapela ere berdiñ, da kolore asko dun borla zintzilik. Esku baten zorroa ta eskubian zurezko ezpata. *Banderariak* bere egitekoa betetzen du: Luzaideko ikurriña jendeai erakustea. Taldearen atzetik dantzariak datoz.

---

19. F. A. Veitia y R. de Echezarreta: *Noticias históricas de Tavira de Durango*, 125-126 ta 160 orr.



Dibujo: Luis Lertxundi

Oar gaitezen, mozorroturik eta arpegiaurrekoz jantzirik dabiltzanak, irudi-menezko beste zerbaitetan gogoz aldaturik, beren barru-barruko gurari ezkutuenetako bat asetzen ari direla, ta bete-beteen orixe lortzeko egokiera, Iñauteriak damakiela. Leen-gizonen leiza-zulotako irudiak dira iñondik-ere esaten degunaren lekuko, ta erri zaarrenetakoen oitura batzuk ere bai. Asabengandiko joka-lege au, era duenean, gaureguneko gizakitan ere ageri da.

Arrigarri badirudi ere, ez deritzaigu burugabea onako galdera au: Ez al da gizaki mozorrotua, ain zuzen, sarri gizona dan bezelakoxea agertzen diguna?

«Iñauteriak or datoz urteoro bere ixkutagalluekin guri erakustera egitazko mundua zein bildurgarria litzaken guretzat. Egun oietan begitarte estalita izkutzurrean entzun edo esaten ditugun egi galantak, ausartenak ere ez lituzke iñoiz botako arpegiz-arpegi esanak balira. Mozorrotuta, edonork edozer dio, ta orrelako abagunerik gabe berriz, gizonak gezurra besterik ez dario.

Egun oietan bada, norbaitek jolas aitzakian, munduari begiraldi sakona balemaio, ikusiko luke noski, ez dela gizonarentzat ezer egia baño garratzagorik. Ala esan dezakegu, gizakia gezurretik egira dijoala, ta gezurretan dabilenean duela egia amets. Orrela bada, aitor dezakegu, Iñauteri-giroak, ez lau egun (onela), baik eta irureun da irurogeitabat irauten duela»<sup>20</sup>.

Gizaldi asierako aldizkari baten –bere izenik gogoan ezba-dut-ere– auxe irakurri gendun: alegia, estalki gabeko gizonik ez dagola ezagutzerik. Estali eiozu arpegia ta berak emanen dizu zeatz-meatz bestela jakm-ezingo zenituken bere buruaren berri. Beraz, Karnabalak damaigun erakutsirik bitxiena, auxe litzake: Mozorroturik, gezur-itxuretan gabiltzanean, orduantxe ageri gera ziñez egjazkoenik. Egoki derizkiogu emen gai oni buruz Machado idazle-olerkariaren iruzkiñ au:

«Badira Iñauterik azkenetan direla diotenak. Nik dakusdana berriz au da: erriak jai egin nai duen guzitan, ustekabez ere, Karnabal egiten duela. Ez dira bada Iñauterik, ots, bere giro, kutsu ta kera berezia bereala amaitzekoak. Ta goragoko malla baten ere berdin diogu. Iñauterien mami berezia ez baita aurpegikoa jartzea, kentzea baño. Ez baitago iñor berearekin aiñ ongi uztarturik besterena amets ez dezanik»<sup>21</sup>.

## ARPEGI-ESTALKIA EDO MASKARA IÑAUTERIAZ KANPO

Mozorroa, ez da Iñauteritako ta ez bestetako. Serapio Mugika'k esaten digu, Frintzi mugaldeko zenbait erri-jaitan, Karnabalez at, arpegi-estalkiak darabilzkitela. Agintariek onartu izan dituzte orrelakoek, eta arrigarriago dena, baita elizgizonek ere.

---

20. *Diario de San Sebastián*, 1882-ko 18-2.

21. Antonio Machado: *Antología de su prosa. I-Cultura y sociedad*, 74-75 orr.

Garai artakorik gutxi dakigunarren, dio Mugikak, Irun'go erriak San Martzial mendian, prantzitar da germandarrei, 1522ko garagarrilez irabazitako guda ospatzeko, urteoro dagizkin «Alarde» deritzan jaitan nabari da moztururik agertzeko erritarrak zuten oitura.

Geroztik, XVII-garren gizaldian, darraikio Mugika'k, Ondarrabi'k Condé aundiak ezarritako guda-esitik garaille atera zelarik, promes egin zuen, Andra Mari agorreko bezperatik jai gordetzea, denak ospetsuki erromes bertara joanaz, beren izkilluekin, itzaldidun meza entzun da gabaz gau-suak piztuta, kañoi-mosketoiak erauzi, «maskara festak» eta abar eratuaz.

Alabaña, Iñauteriaz-beste mozturutzeko oitura onek xeetasunik berezienak agertzen ditun lekua Oyartzun degu, noski. Emen, dio Serapio Mugika'k, San Juan egunez, elizako oparitakoan biltzen zana, maskaradunen artean banatzen zuten.

Ona nola galduerazi zuten oyartzuar oikun au:

«... 1683-garrengo agorrek 29, Agintari Jaunak, kanpaia jota, Ibarreko jende geienarekin bildurik, Jainko Gure Jaunarekiko ta gizartearen onarekiko arazoetaz erabakiak artu bearrez, Aita Mixiolari Jesulagunek bein da berriz ala eskatuta... aditzera eman zuten, alegia, San Juan, San Pedro ta San Martzial egunak moztururik jaitzeko oitura txarra zan ezker, ixkamill asko ta zarata-bide zirelarik –urte artan bertan, Joseph Olaciregiren eriotza lekuko, Elizaldeko plazan jende ta moztururor artean sortu zen eztabaidan–, gauz oiek zuzentzeko guzien onari begira, erritar eta predikariak geldiro ausnartuaz, erabaki zen, aurrerantzean ez zedilla irior moztururorik atera, ez iru egun oietan da ez bestetan<sup>22</sup>, Santuei zor zaien errespetoz da erritarren pakesosegurako.»

Oietan biltzen ziren eliz-opariak, moztururor ta estalduen artean banatu bearean, berbertatik Oyartzun Ibarreko beartsu-ixillei zabal zezaizkiela<sup>23</sup>.

Debekapen au ordea, aurretik emandako beste batek osatzen zuen, alegia, eleizkizun ondorenetan erabil zitezkeela maskarak. Lekuonagandik dakigu berebat, Oyartzungo Erri-etxeke batzarrean, 1682-ean, artutako erabakia:

San Juan da San Pedro egunez, ezin ibil zitezkeala moztururorik. Bezperak eta eraskiñak bukatu arte, diru-zigor da morrollopean eror nai ez bazuten beintzat, eta orobat, burukodun da arma naiz makillekin bazebiltzan, baña etzedilla iñor moztururorutakoek galeraztera ausar<sup>24</sup>.

Luis de Uranzuk *Lo que el río vio* liburuan, Karnabalei buruz ari dela digunez, 1686-garren urtean Oyartzungo uri-batzarrak, lege-barruan etzebiltzan moztururoruei aditzera eman zien, zigortuak izango zirela «baita bizia kentzerano ere bearbada, edo ta gutxienez ondasunak galtzerano».

---

22. Gero dakuskegunez, «ez bestetan» orrek, Karnabalak etzituen barruan sartzen.

23. Serapio Mugica: «Antiguas costumbres vascas. Las máscaras». *Euskalerrriaren alde*, IV urtea, 78 zenb., 165-168 orr.

24. Manuel Lekuona: *Anuario de Eusko Folklore*, II zenb., 1922 urtea, 25-27 orr.



Dibujo: Luis Lertxundi





Dibujo: Luis Lertxundi

Ta oraintsuagoko kontua degun arren, 1838-43 ingurukoa, orra Tolosako jai-agerkaia bertako «Viuda de la Lama» irarkolan argitaratua.

Tolosa erri geientsuenak, Erruki-etxerako limosna biltzeko asmorik onenaz, ta bidebatez, bertako ta auzokoei. Pazko-solasaldi alaiak eskeñi naiaz, erabakitzen du, agintarien baimenez jai oek andikiro ospatzea, onela ta onela:

Aurtengo martxoko 23 ta 25-ean, atsalde-elizkizun ondoren, launa naparxeren adargardeak, eztenkatuak, banderillaz zulatuak eta ezpataz illak izango dira.

Plaza-berriko oltza gaiñean, balentzitar talde ikusgarria dantzatuko da, ikuski-zun auei dagozkien zertzelada arranditsuz.

Gabaz, Errietxeko aretoan, jazki-dantza, aurpegi-estalkirik gabe ordea.

Xexen-sarrera 23 ta 25-eko garai egokian egingo da, soñujole, txun-txun ta dultzaiñeroekin.

Iru egunetako jolaskizunetan da 24-eko arratsaldez, dantza-saioen ondotik, zaleentzat xexenak eta beste jolasketak ere izango dira.

Xexenetarako sarbidea, guzientzakoa, erreal bi izango da<sup>25</sup>.

Ari geran gaiari gagozkiola, jai-agerkai ortan «arpegi-estalkirik gae» esatean, nik uste adierazten digula, estalgalluak eta zomorro jantziak, ez zirela Iñauteri jazki bakar-bakarrak.

## XIBEROKO MASKARADAK

Gure egunetaraño eldu zaizkigun Iñauteriak, ta guk ezagutzen ditugunez beintzat, geientsuenetan eginbide arau batzuen barruan moldatuak dira. Egiñ-arau edo joka-lege zabal-samarra derizkioguna, baña ziurki festa oien eusgarri izan dena.

Benabarreko maskaradak olakoxeak dira. Urteberritik asi ta Astearte-Iñaute bitarte ager oi dira maskaradak Zuberoan. Ala dio Joxe Mari San Sebastián, «Latxaga» idazle trebeak, olerki-girozko esakun ontan: «Xiberoko Maskaradak, Euskalerriko urtearen berritzea ta gure udaberria dira».

Maskaradak, antzezlarien bizilekutatik urbill da egun jakiñetan egin oi dira, beren errietan azkena ematen zaiolarik<sup>26</sup>. Hérelle jaunak, gai orretzaz zabal jarduna denak, oararazten digu:


«La condition première et essentielle pour qu'un village organise des mascarades, c'est qu'il y ait dans ce village un assez grand nombre de bons danseurs, et qui aiment à s'amuser et a se montrer»<sup>27</sup>.

---

25. Tolosako *agjritegia*. B. sailla. 6 negoziadua. I Errenkada. I lib.

26. G. Hérelle-k bere «Les mascarades souletines»-en *RIEV*, VIII alea, 370 orr., digu, lenengo ta azkenengo agerkizuna itxurakeri-gilleen errian zegitela.

27. G. Hérelle: aip. lib., 369 orr.



Dibujo: Luis Lertxundi

Iñaute egunez, Xibero irixka politak, bere betiko pake-sosegua galtzen du ordu batzutarako.

Hérellek dasaigunez, begirada batez kontura gaitetzeke, itxurakeria egiteko bi taldetan banatzen direla: al de batetik, gorritz dotore jantziak, eta bestetik beltzeko zarpaillak. Beltzak eta gorriak ditugu beraz maskarada-egilleak.

Gorrietan dugu *Txerrero* deritzana, zaldizurdazko erratza astintzen duela. Gerrian kuxkulluak daramazki. Aspaldi, galtzerdi bat zuria ta bestea gorria jazten omen zituen<sup>28</sup>.

Irri-jolas oetan oi ziran *artzaña*, ardiak eta artzá, galduak dira orainaldian. Soñeko zuridun bi ume omen zeramazkin artzaiak, arkume-itxuran, soka lepotik zutela. Diotenez, artzañak makilla zeraman eskuan da etzuen dantzarik egiten. Hartza ta axuriak batera galdu ziran<sup>29</sup>.

*Gathusain*, *gathia*, edo *gatuzain*, zurezko guraizez jostalari dabil, ikusleen erneagarri. Manuel Lekuona jaunak digunez, Oyartzunen, mozorrotuak makilla dute eskuan edo abere-larrua, edo sorgiñ-guraizak. Ala deritzaie zurezko estrabez egindakoei, mozorroak eskulekutatik eraginda beste zerrenda danak luza ta bilduarazten dituelarik. Orixe bera da ain zuzen Xiberoko dantzari batek erabilli oi duena ta itxi-idekitzean alako lixtoi ots berezia ateratzen duena<sup>30</sup>.

*Kantiniersa* degu orain noizbaiteko ijito-andrearen ordezkoa, txantxa, ausarkeri ta lizunkeritan ere labaintzen zenaren ondorengo. Baña orrela irau du gaurdaño<sup>31</sup>.

*Zamalzaina*'k egurrezko azpi-euskarri bat darama, garaikoaldean zaldiburu txiki baten antzeko duena. Dantzarietan berau degu ba garrantzirik aundieneko, maskaradako buruzagi beraz. *Zamalzainak* puntilla zuripean erdi estalirik ditu zangoak eta ba dakar buru-uztaia ere, lorez, lumaz, galartuz da baita xpillutxo batez ongi ornia<sup>32</sup>.

Aingeru Irigarai, izenordez Apat-Etxebarne'n liburu *Noticias y viejos textos de la lingua navarrorum* izenekoa ikusi degu, *Zamalzainak* arripitxiz da zintaz apaindutako burukoa duela, gerriari lotuta zumitzezko zaldixko-aren buru-lepoka, eta Iruñeko *Zaldikomaldikok* bezela dantzariak urrats eta jauzi trebeki darabilkina.

---

28. Violet Alford: «Ensayo sobre los orígenes de las mascaradas de Zuberoa», Pedro Garmendiak itzulia, *RIEV*, XXII alea, 373 orr.

29. G. Hérelle: aip. lib., 373-374 orr.

30. Manuel Lekuona: aip. lib., 25-27 orr.

31. Violet Alford: aip. lib., 374 orr.

32. Violet Alford: aip. lib., 374 orr.



Xiberoko maskaradak

*Kherestuak* edo irentzalleak bi dira. Zamaltzainaren atzetik dihoaz eta Bearn'eko izkeraz mintzatzen dira. Maskaradetan agertu berriak ditugu<sup>33</sup>. *Lore-saltzalleak* berriz, erabat ezkutatu ziran.

*Kukulleruak* zenbat diran ez da gauza jakiña. Hérelle'k dio beti lautik gora izan oi direla ta biñaka: «hamar edo hamabi»<sup>34</sup>. Bide-ertzetatik joan oi dira dantzatuaz bi errenkadatan. Violet Alford'ek digunez, Zamaltzainak bezelako koroia zeramaten ta dantza bitartean eskumakillak gurutzatzen zituzten. Orain, txapel zuriz, txamarra gorritz, galtza zuriz dihoaz, ta eskuan bastoitoxa dutelarik galartzuz apaindua<sup>35</sup>.

*Maretxalak, manitxalak, manixalak* edo perratzalleak bi izan ditezke, edo iru edo lau. Beren lan-tresnekin biarrean ari direlako ziñuak dagizkite. Aspaldiko lore-saltzalleen ordeez beroiek egiten dute oiturazko eskea. *Sapurrak* edo bidegille zeritzanak ezkutatuak dira zearo, ta *enseñaria* edo *entsenaria* or dugu ikurrindun.

*Jaunak* besotik darama *Anderea*, gazte soñeko ta kapel zuriduna. Jauna. zillarrez apaindutako jaka beltzez jantzia, kapel andi galoiduna, galtza beltzak eta gerrian ezpata motza; ba du agintari-makilla ere zinta urdiñakin ta bular zearka banda urdiña<sup>36</sup>.

Ondoren dator *laboraria* edo nekazaria ta *etxeoanderea* illunez jantzia. Etxekoanderea akulludun laborariaren ezkerretik dijoa.

Urrengo datoz *maskaradako beltzak*. Oien artean ez da maiz agertu oi Zamalzaina, ezta Txerreroa ere<sup>37</sup>. Beltzartean dator ijitoen buruzagi *-bohem jauna-*, bere kidekoekin. «Berak ditugu zalapartarienak eta egun osoan nabarmenkeririk larrietan aritzen dira».

*Kauterak* edo pertzagilleak auvern-eraz mintzatzen dira. Auetxek ditugu: Maixua edo ugazaba, langillea ta mutilla. Parre-eragiten ibilli oi dira, Jaunaren pertza konpontzen, mutill asi-berria bidali, ta dantzan egin, edo salto ta jauzi, obekiago esanda<sup>38</sup>.

*Txorrotxak* edo txorroxtalleak bi dira: nagusia ta biargiña. Lanean diardutela, prantzeraz ariko dira; irrijolas bitartean ordea, euskeraz<sup>39</sup>. Maskarada oetan sendagille jaun bat ageri da, ta len, baita bizargin, agiri-idazlea, aragoitar espñoala, bere aspaldiko jazkeraz, ximinigarbitzalleak, eskaleak eta

---

33. G. Hérelle: aip. lib., 376 orr

34. J. Bte. Mazéris: *Gure Herria*, XIII urtea, 1933, 298-315 orr.

35. A. Apat Etxebarne: aip. lib., 215 orr.

36. A. Apat Etxebarne: aip. lib., 215-216 orr.

37. V. Alford: aip. lib., 374 orr.

38. V. Alford: aip. lib., 375 orr.

39. G. Hérelle: aip. lib., 383 orr.



Xiberoko maskaradak

gotzaia ere<sup>40</sup>. Maskarada gorri ta beltzaren artean dute soñulariek beren tokia. Bi dira auek; batak xirula ta danborra, ta besteak atabala jotzen dituzte<sup>41</sup>.

---

40. G. Hérelle: aip. lib., 383-384 orr.

41. G. Hérelle: aip. lib., 379 orr.

## Antzezikizuna

Maskaradak errira iristean beren irrijostetarako, or dijoaz gorriak dantzan da beltzak arrapaladan, bidean zearka pillotutako oztopoak oro jauzika gainditzen dituztelarik.

Kaleak igaroz, erriko andikienak ikustatzen dituzte. Beltzak, Zamalzaina amorrarazten diardute. Zaldigizona ijitoengandik eta arrapa nai luketen kherestuengandik igeska dabil<sup>42</sup>. «Kharrikan sartzian hasik herriko plazala artino horra dira dantzaz *helduda* en edo *arribada* en emaiten»<sup>43</sup>. Dantzarik nagusiena *Bralia* edo *Bralien jaustia da*, Jaunaren aurrean gorriak dantzatzen dutena<sup>44</sup>.

Dantza mota orretzaz A. Apat-Etxebarnek digu, erri-dantza jatorra dela, plaza biran uztai andi bat osatuaz, neska, mutil da edonork eskuartzen dutelarik.

*Kakoillatzea* deritzana, enñeriak zuzendua da ta «bralian» barruan sartzen da. *Godalet-dantza* ta ondorengoak osatzen dute *fonction* diotena. Zamalzainarekin, Txerrero, Gathusaina ta Kantiniersa dantzatzen dira.

Bakoitza, baso-ardo baten inguruan da gañean dantzatzen da. Zamalzaina, azkeneko izanik, baso gaiñean oin bat jarriaz, beste oiñaz gurutze ziñua aidean egiten du. Zamalzainak agerkizun ontan erakusten duen bizkortasun arrigarria areagotzen da, zaldizurajeak gerriz bera ikustea eragozten diola jakiñik<sup>45</sup>.

*Perratzalleak*, irri-gertaera batzuen ondoren, Txerreroa perratzen dutela itxura egiten dute, ta ijitoen laguntzaz, indarrean, Zamalzainarekin orobat dagite. Kherestuak edo irentzalleak ere bere egitekoa betetzen dute itxurakeri ontan, Zamalzaina arrapatu ta irenduaz.

*Txorrotxgilliak* bere lanean diardute. Jaunarentzat ari diran ezkeru, euren bizimoduaz erruki dira, onako aapaldi ontan ikus ditekenez:

«Chorrotchak erran dizu egia handia  
Nekez bizi dela laboraria  
Bai eta nekezago chorrotcheria  
Eztiez irabazten pintuaren saria.

Orai ene mithila aigu lanila  
Zorroztu behar diagu jaunaren ezpata  
Zorrozten balinbadugu behar den bezala  
Harek emanen dikuk guri soldata»<sup>46</sup>.

---

42. V. Alford: aip. lib., 375 orr.

43. J. Bte. Mazéris: aip. lib., 298-315 orr.

44. V. Alford: aip. lib., 375 orr., *Braulia Jaustia* deitzen dio dantza oni.

45. V. Alford: aip. lib., 376 orr.

46. J. Bte. Mazéris: aip. lib., 298-315 orr.





Xiberoko maskaradak

Ijitoez da pertzalariaz len esanari gagozkio. Maskaradak ari diran bitarte gultzian, ijito jende orrek, burura ditezken aldrebeskeririk aundienak dagizkite: ixkamilla ta zarata erruz. Pertzalariek, ziñuketan, Jaunaren pertza konpontze itxura egiñaz, eztabaidaka naasten dira, ugazaba, langillea ta bere mutilla.

Orain, ikus zugun Aussurucq edo Altzurukuko 1972garrengo maskaraden azalpena. Gorriak dantzari trebeak dira, tankera onekoak; esan dugunez, txukun da apañak. Beltzak ostera, alderantziz.

Goizetik kaleetan eragozpengarri ipiñitako kupel-esiak garaituaz, oituzko ikustaldia egiten diete agintari jaunei. Komprimentu au egin bitartean, beltzak Zamalzaina enparazitzen gogoz saiatzen dira. *Zamalzain gorria, eder beno ederrago.*

Gero, gorriak eta beltzak eliz-atariraño laguntzen die agintariei. Meza bukatzean, itxurakerigilleak elizatik datozenekin baturik, plazaruntz dijoaz. Orixe da arribada deitzen dutena. An dantzatzen dituzte *moneiak*, *antziña pika* ta *baskaleta*. Jarraian, txorrotzak edo txorroxtalliak, bi abotsetara kantari.

Arratsalde, iruterdik aldean asiera ematen zaio egitazko maskaradari. Berrero barrkada gaiñetik pasa ta agintariei agur egitea. Urren, *muñaina* dantza, *mutil-dantzaren* antzekoa. Dantzaldi ortan, talde batek Zamalzaina inguratzen du. Ondoren *manañe* ta *matxalena* dantzatu, ta ekiten diote Zamalztzaina irentzeari. Gezur-jolas onen atzetik dator *Bralie jaustia*, Txerrenak, Gatuzainak, Banderaiak, Kantineirak ta Zamalzainak dantzatua. Dantza-keta saio oni bestea darraio, parregarria, maskaradetako itxurakeria. Or azaltzen zaizkigu ijitoak, *bohem jauna* ta beretarrak suma ala aldrebeskeri egiñaz ta euskera-prantzera naasiaz.

Txorrotzak edo txorroxkilliak, xuberotar abestiak bi abotsetara kantatzen ari direla, ijitoak batetan asmatutako erokeriak dagizkite. Bereala, gorriak berrero ageri dira. *Godalet-dantza* aurkezten dute. Eta, badatoz jolas-lekura kherestuak edo irentzalleak. Gero, beltzak izango dira gaxo baten sendaketa itxura egingo digutenak. Agerraldi ontan, sendagillea azaltzen zaigu, dakigunez, maskaradetan beltzetakoa duguna.

Ostera *godalet-dantza* ta txorrotzak bi abotsetara kantari. Eta jaiari azkena emateko, gorriak eta beltzak gizonezkoekin baturik, xiberoko dantza saltoak dagizkite. Jauzi oiek, festa-osagarri bearrezkoak ditugu iñolazere<sup>47</sup>.

*Le Carnaval au Pays Basque-Ihautiri solas-Oraisons funebres de Carnaval*, izen luzedun liburuan, Sauveur Harruguet jaunak dakar onako agur-abestiño au, panpintzar bat erreaz kanta oi zutena. Ez dira bearbada esanai aundiko itzak, baña bai umoretsuak, eta Iñauteri giro berezidunak:

---

47. Maskarada au azaltzeko, idazkera errespetatuz, Latxagak *Diario de Navarra* 1-6-72-en argitaratutako *Maskarada xiberoan* saiakeraz baliatu gera. Gipuzkoari gagozkiola, guk dakigunez, maskarada beroietzaz lan oek azaldu dira: Javier de Aranburuk *La voz de español*, 4-3-72-en eta Luis Pedro Peña Santiagok *El Diario Vascon*, 2-3-72-en.

«Aurthengo ihautiri,  
Dembora de tirreteri,  
Bazterretan hanitz eri,  
Tillula eta krichteri,  
Tisana eta lotgarri,  
Tripaco min izigarri,  
Kataplasma harrigarri,  
Zapeta zola janhari,  
Tipula corda erraki,  
Gathu zaharra cherriki,  
Uzkinazoa epherki,  
Asto haragia achurki,  
Leherra jende makhurki,  
Barne guzia arras ahul,  
Zerbeiten egiteco nul,  
Mihia zuri, hertzic chirul,  
Kasko guzia erdi maboul.  
Harro harro Mariagno,  
Altcha zangua gohoragno!»

## LANTZEKO KARNABALA

Lantze, Naparroako errixka, Iñauteriekin oso bat egiñik dagerkigu. Urtez-urte Kinkuagesima ondorengo astelen-asteartez, Lantzen Karnabalak ospatzen dira.

*Miel Otxin* edo *Mile Otxin* deritzaio itxurakeri ontako erraldoi nabarmenari. Iribarren Joxe Marik esanda dakigu, erraldoi ori, bi pago-adarrez osatua dela. Bata besotarako, ta bestea, ankabikoa, soin da zangoak osatzeko. Txano edo kapela buruan, kartoizko arpegikoa, ta pañelua lepoan. Bruxa loretsuz jantzia, ta galtza urdiñak gomazko polaiñetan bildurik. Goibea irubat metro, ta belarondoaz da garoz barrutik betea<sup>48</sup>.

*Xaldiko* edo *Zaldiko*, zaldi-gizona da. Gaztea da, segalarien lasta-txapelez burua estalia, begitarteia ikatzez beztua ta gerri-azpitik egurrezko tramankulua, aurrekal dean zaldi-burutxo xutik duelarik. Atzekaldetik zintzilik, benetako abere isatsa dauka.

Tresnamendu orri, dio Iribarren-ek, mutillak bi eskuekin eltzen diola, ta bizkarretatik bera bularrean gurutzaturik daramazkin soka bidez katigatua dijoa, ta gañetik estalki apañez ornia, burualdea ta buztana bakarrik ageri dituela. Lantzeko Xaldiko au degu ain zuzen, mito-ipuin zaarrari jarraiki, berez izan bear duena: basa-zaldia; ta berorren biziemalle dijoan morroskoak alik eta ongien da bortizkien betetzen du bere egitekoa<sup>49</sup>.

*Ziripot* izenekoa degu itxurakeri ontako izakirik al drebesena ta parregarriena. Buruan kapela, aurpegi estalia, ta gorputza belar da iratzez trinkotutako zakuan sar-

---

48. Gizatar orren gertuketa lanak damazkigu baitere, ta zeazkiro, Caro Barojak: *Príncipe de Viana*: «Folklore experimental: el carnaval de Lanz» (1965), 13 orr.

49. José María Iribarren: *Historias y costumbres*, 178 orr.



*Txatxoak enparantzan dantza egiten*



*Perratzaileak*



Lantzeko Ziripot



Lantzeko txatxoak

tua. Bere ibillera baldarrean makilla du lagun. Erraldoiaren ondotik, Xaldiko ta Ziripot, perratzalleak eta mozorrotuak, txatxo deituak. Txatxo ibiltzera ia erriko gaztedi osoa atera oi da, baña geroz da gutxiago. Errixka au, beste asko bezela, atzeraka bai doa, bizilagunez urritzen, alegia. 1847-gnean, Madoz-en iztegian 367 biztanle zitun, 1900-garrenean 341 lagun ziran, 1964-garrenean berriz, 215 soilki<sup>50</sup>.

Itxurakeri onen irten-leku ta itzultoki, ostatua da, enparantzaxo aldera ateduna. Etxebizitzarako igoera, malladi illun da zastar batetik zear egiten da. Areto ortantxe ematen zaio jostaldiari asiera. Arizkun-go txistulariek ekiten diote beren soñu-jotzeari ta txatxo edo mozorrotuak, dantzatzean, festa-giroa sortzen dute. Laister-asko eskaratzean agertuko dira banaka-banaka, perratzalleak, beren pazi ketsuekin, txistulariak, Miel Otxin erraldoia, atariko koska igaro eziñik, Zaldiko ta Ziripot, mallak jeisten laguntza bear duena. Eta azkenik, arrapazka ta zalaparta bizian, zintzarri-joaz, or dijoaz txatxoak ere.

Itxurakeri au Gurutze Donearen karrikatik ateratzen da samaldan. Kale luxanga da, etxe zaarrez osatua, bere izen da arma-arri ajedrezatuekin. Miel Otxin erraldoia, gazte baten beso indarrez ibilli ta dantzatzen dena, bere inguruko ikuskizunari irripartsu begira dagola dirudi. Xaldiko, Ziripoteri erasoka dabillega, or botatzen du ankaz-gora bein da berriz. Txatxoak, oso itxuragabe jantzita, an dabilte oi ta irrintzika. Ziripoteri laguntzen diote jaikitzen da Xaldikoren atzetik laisterka dijoaz.

Ziñuketa au dijoan bideko toki jakiñetan, ingura jarri oi dute. Orren gañean, perratzalleak, pertza bat eta lan-abesak berekin dituztela, txatxoek arrapatu duten Xaldiko perratzen dute.

Lantzeko ziñu-jaiak eguerdiz du asiera, esandako egunetan. Astearte arratsaldez ordea, Xaldiko ta Ziripot agertu gabe, Miel Otxin erraldoia plazara eraman da bertan tiroz iltzen dute, ta ondoren erre. Erreketa bitartean, txatxoak, erritar batzuekin zortzikoa dantzatzen dute; baña, Caro Barojak dionez, Baztango mutil-dantza edo ingurutxoaren antz geigo du. Miel Otxiñek, beraz, Zanpantzar ta kideko beste Iñauteri panpiñek jasan bearreko azken berbera du<sup>51</sup>.

Antziña, ordea, Erraldoiak etzuen bere burua ain bakar da baztertua ikusten itxurakeria amaitzean. Oiturazko zan bukaera egitea ere, utzi egin bear izan zuten, askoren iritziz, errespeto gutxikoa zalako edo. Onela omen zan: bi mutil, emakume itxurazko soñeko zuriz jantzirik. «Oso serioski zijoazen, txatxo guziek onartuak eta liburu bana irakurriaz. Aien planta ixil da naigabetua ikusirik, bazirudien erraldoiaren aide urbilleko zirela ta eriotz zigorrera laguntzen zietela. Plazaratzean, neska auek, egundoko izu itxurak eta alarauak zegizkiten». Miel Otxini ongi iltzeo gertuera ere egiten zitzaion. Pekatu-aitorpen itxura egiñarazten zioten, neskak Kristoren nekaldia entzunerazo, ta txatxoek, lurrean auspez, aren eriotzaz negarrez ari bai-lira bezela zebiltzen<sup>52</sup>.

50. Julio Caro Baroja: *Príncipe de Viana*, aip. lib., 6-7 orr.

51. Egunkariko idazlan batek dezaken aiñean, Lantzeko Karnabala egoki azaldua du Joakin Ormaetxeak *El Diario Vasco*-n, 24-2-71.

52. José Maria Iribarren: aip. lib., 180 orr.



Iru txarxo Lantzeko kalean.



Lantzeko itxurakeri onen amaiera au dela ta, norbaitzuk, Naparroa alde ontako bide-lapur bati beiñola emandako eriotz-zigorra zer-ikusit duela diote. Bideebasle ori egitazkoa da, ziñez; erraldoia ordea lenagokoa izaki. Eta oriek orrela, ez da batere arritzeko bi gizaki oiek, bata egiazkoa ta bestea gezurrezkoa, erri-irudimenak naasi ta bateratzea. Bidelapur artatik ar zeza-kean bai Lantzeko erraldoiak gauregun duen bere izena.

Lantzeko itxurakeri orrek, ba du zer-ikusirik noski, xiberotar maskarade-tako Zamalzainekin beñepein. Maskarada oen jatorriaz jardunak dira bat baño geigo, zein-bañozein oker-xuxenago. Esatebaterako, aipa ditzazkegu, Francisque Michel, Agustin Chaho, Sallaberry, G. Hérelle ta Mazéris. Orobat, gai berau aztertu digu Violet Alford-ek. Britania Andiko folkloristentzat, udaberriko rito-egintza dira, ugaldimenaren antzirudipean, izadiko bizi-berritzea adiraz-ten duena.

Bere enda edo jatorri-galtzea eragoztearren, bizidun oro, abere naiz lan-dare, elkartuaz ugaltzera jotzen du berez. Maskaradekin zer-ikusia alde batera utziaz, landare naiz abere edota gizakien ugaritzea dela ta, ezkutu-indar miragarriak tartean dabilzala uste izan da, beren jomugaruntz giza-adi-menak ez dakizkin bideetatik abiarazten dituztenak<sup>53</sup>.

Are-emekuntza-bidez, gizaki-aberekiak ugaltzen ikusi, ta urak naiz eguzki epe-lak berekin duten bizi-indarrez oarturik, leengo nekazari ta abelzaiak ikasiko zuten bearbada «erligio gauzei» dioten itzal berezi ori. Ontatik izan bide du asiera «izadi-oparotasunari» eskeñi izan zaion gurgintza<sup>54</sup>.

Gizonak, izadigañetiko indarrak bazirela oartu zenean, irudimen bidez jainko bihurtu zitun, izena eman zien da beregixa antzaldatu.

Siniskeri oetatik, illunxea lenbizi, mugatuagoa gero, jaio ziran errien ain-zin-oiturak, olerkari-idazleek aizatuak «mito» bihurtuaz<sup>55</sup>.

Ziñuketa auek aztertzean, erreparaiogun batikbat irudikizun zaarren da jatorrenei, jakiñik alare, gizaldiak zear, da, ikuskizuna aberas nairik noski, eraskin asko itsatsiak izango dituela.

Julio Caro Barojak, Xiberoko maskaradaz ta Lantzeko itxurakeriaz, oi duen egizaletasunez egoki mintzatzean, ondorio jakingarri oek atera ditu:

«1.–Soul-eko maskaradaen da beste Euskalerrikoen artean ba dela zerikusirik aski, funtsezko ez-tiren zenbait gauzetan beintzat.

---

53. Juan Errandonea Alzuguren: *Edén y paraíso*, 321 orr.

54. Juan Errandonea Alzuguren: aip. lib., 320-321 orri. Obra ontan oargarri dugu Inazio Errandonea elenistaren errikide ta abizen bereko beratar idazle onek «Emakortasunaz» diguna.

55. Antonio C. Gavalda: *Historia de las mitologías griega y romana: dioses, héroes y monstruos*, 12 orr.



- 2.–Garrantziskoetan ere ageri dela kidekotasun nabarmenik, Souleko ta beste zenbait eskualdeko maskaraden artean.
- 3.–Alkarrekikotasun au nabaitzen dugu batezere zaldigizonean, da baita maskaradetako antzezleri baten eriotzean ere.
- 4.–Negualdean geienbat jarri oi diran maskaradetako antzez lagunak ageri direla beste urte garaitan da bestelako egokieratan ere».

Galizitar maskaradei buruz ari dela, azken aldera, ara zer digun Caro Baroja edeslari ta etnologu jakintsuak:

«Agerkizun onek<sup>56</sup> ba du iñondik ere antzik Xiberoko maskaradekin. Galizi, Euskalerrri ta beste zenbait lekutan, urte-asieran naiz Iñauteriz azaltzen diran zaldi-itxurazko auek, aintziñako goi-argien iduri ta norbiurtzeak besterik ez dira, ta bere izakera, kalenda-jaien aurkako itz-erasotan ez diteke sar»<sup>57</sup>.

Panpintzar asko erre ta desegin dira gure Iñauterietan da baita beste jaialditan ere.

Ondoren dijoazkizuenak, bi *Judas-i* dagozkio, ta gañerakoak, Aratoztetako mozorrozarrak ditugu, panpiñak, piltzar-irudiak, gízirudiak.

## ADIOSKO JUDAS

Ilzarbe napar ibarreko, Adios deritzan auzoan, umeak «Judas» erretzen dute Asteazken Santu arratsaldez. Ortarako, auzotar baten arropa zarrez baliaturik, laute-panpiña antolatzen dute erri sarreran. Gizorde zazar bat duzu bera, txapelduna, arpillerazko musua ta jake ta espartziñak dituena, lastoz naiz zerrautzez barrua betea.

Agaitik zintzilik darabilte gizataldearen aurrean, «*Judas gíatzar maltzurra, ogeitamar diruz Jauna saldu zuna*», oiuz. Lenago, plazan erre oi zuten, baña azkenaldian erritik kanpora.

---

56. Ikuskizun au Orense-'ko Viana del Bollo-n agertu oi da. Erri ontan ospatzen zan Igande gizen delakoa. Arratsaldez, jendea plazan pilloturik, maskarada ikusten, mandaeme ta «maragato» batez osatua. Abere itxurakoaren gaiñ-estalkiak bi gizon ezkutatzen ditu bere azpian Maragatoak, zurezko arpegiko pintatuarekin da kopeta sugeantzeko irudiz apaindurik, aberea ugaletik darama. Mulak eta maragatoak urteoro jende aurrean gauza bera berritzen zuten. Mandagañean zebilkitena tabernara ematen zuten zerbaixoren eske. Mandaemeak bazekien gaxo plantak egiten ere. Orduan, albaiteuarenak egiñaz, aietako batek sendagai au aginduko zion: maragatoak bota zitzala ogi puskak zurezko erratillura ta gozagarritu. Ondoren, kuartillo batzuk ardotan, da ongi naasturik, bi manda-gizonek jan. Ola, sendatuz gero, Maragatoak, aberea perratzera eraman nai izaten dute. Mandatzakoak gogor egingo die, ta orrela dabiltzala, illunarekin batean maskarada erretiratuko zan. (Xeetasun oek, Nicolás Tenorio-k *La aldea gallega, estudio de derecho consuetudinario y economía popular...*, liburuan argitaratuak, Caro Barojak *El carnaval* idazkian jasotzen ditu, 214 orr.).

57. Caro Baroja: aip. lib., 203 ta 215 orr.

Direla amabosbat urte, auzo bertan esan digutenez, bearrezko izaten zan auntzaia.

Bere egitekoa, turuta joaz, auzo artako auntzak mendiratzea goizeko zor-ziretan, da gero, iñularrean berriro erriratu.

Ostegun-Iñautez, auntzaia, eguneroko lana asi-aurretik, etxez-etxe eskean ibiltzen omen zan, *Ostegun Iñaute, auntzaia merienda eske*, oiuz. Gizon bitxi onengan dirau gaurdaño Adios auzoan aspalditxo galdu ziran Iñauterien aztarrenak.

## **ABARZUTZAKO JUDAS ETA JUDESA**

Abarzutza-n Pazko igande eguerdiz ateratzen ziran *Judas* eta *Judesa*, las-tozko gizirudiak, gatz apur bat naasirik, eta gizabetekoak neurriz. Arpegiordez-kodunak. Buruan sonbrerua ta oñetan abarketak. «Judas» delakoak, jake ta galtzak edozer kolorezko, ta bizkarrean kartoitxo itz oekin: «*Eztaietara dijo-ala, aiñ apaiñ, Judasek uste, ta plazan betik-gora su ematera dijoazte*». Jude-sak berriz, txanbra da gona luzeak soñean.

Gizon bat zijoan Judasekin asto gañean, da beste bat Judesakin. Giziru-diek antolatzen zituzten etxetatik izaten zan arteera. Etzan baña antolaketa urteoro toki berean egiñ oi.

Bikotea, gazteriarekin bat, kaleak zear kitarra joaz zijoan dantzari. Enpa-rantzan ematen zioten azkena ibillaldiari. Bertaratzean, soka banatik ixikita su ematen zieten. Sua ikusgarria gertatzen zan, gatza erretzean zerizkion txinpartekin. Orain berrogeitamar urte inguru ezkutatu ziran Abarzutzako «Judas» eta «Judesa»<sup>58</sup>.

## **ARBIZUKO AITTUN AUNDIYA TA AMIÑ TXIKIA**

Arbizuko *Iyotiak* delakoen asiera, bi gjzirudi edo panpiñen antolatzearekin ematen zitzaion. *Aittun Aundia* ta *Amiñ Txikia* deituak, ta gizakume ta emaku-mezkoaren ordezkio zirenak. Iruditzar oien antolaketa edozein gazteren etxean egiten zan.

Aittun Aundiari, txapela, alkandora raiatua ta galtza urdiñak jartzen zizkio-ten, larruzko gerriko batez loturik. Lenago, oñetan larruzko abarkak, eta orain-tsuago berriz, gomazko zatak. Amiñ Txikiak, txanbra ta gona jazten zitun. Buruko pañoloa zeraman, da oñetako espartzin beltzak.

---

58. Aizken orrialdean dakargu agertoki oietan gauz-erakustalle zintzo izan zitzaizkigunen izen da erriak. Guzi-guziez oroi ezbagera, utsegiñak barka bizaigute, arren.

Gizirudien gorputzak lastoz osatuak ziran, burua trapuz edota zerrautsez, eta oialki margoztua arpegitarako. Al zuten parregarrienik azaltzen saiatzen ziran, Aitonaren xilbor andia nabarmenazirik.

Jaiak, Igande-lyotez edo lyote-Egunez asten ziren, Kinkuagesima atsaldez, Bezpera ondoren. Ordun ateratzen ziran mozorrotuak eta arpegi-estaliak, *txatarrak*, edo txatar-jantziak<sup>59</sup>. Oien artean emakumezkoa arkitzea oso gauza bakana ziteken. Mutillak, neska-jantziz ager zitekean, gutxi-asko, nai izan ezker. Ortarako, oegañekoa ta arpillera erabilli oi zuen geienik. Igande atsaldez berebat, ixiki ta erretzen zituzten Aittun Aundia ta Amiñ Txikia. Orrela, beraz, gerritik lotzen zituzten soka lodi *tokarak* deituekin, onuzkoaldeko ganbaratxo batetik kalez-bestaldekorano. Lokarriekin gora ta bera jolastean, gizerudiek jetxi ta igo zebiltzan, da aien itxura parregarriek zirela bide, jendea gozatzen zan, zaar da gazte. Illunabarrez, bi panpiñen erreket, ortarako eskueran jartzen zituztelarik. Gero, *ama-azkille*, *aimari-ezkille* jotzean, txatarrak beren aurpegiak azalduko zituzten.

Astelen lyotez da Astearte lyotez, eskolak orduz-aurretik ixten ziren. Astelen lyotez umeak, txatar-jantziz, aundi itxurak zegizkiten. Illuntze aldera eskean asiko ziran, *pixkat*, *pixkat* oiuz. Mutiko bakoitzak makil muturxorrotx batekin zizatzen zituen jasotako urdai-lukainka puxkak.

Astearte lyotez, gazteak txatar-jantzirik kaleratzen ziran, da etzan beren artean gizon ezkonduarik oso bakanka baizik ikusten. Erromeri aurretik eta bitartean, txatarren bat-bateko kanta saioak kalea alaituko zuten. Amaazkille jotzean, txapero edo *almintia* aurretik ta soñujotzalle bat edo birekin, etxez etxe eskea. Gazte txatar-jantziei, arrautzek, urdaie, txistorra ta dirue ematen zieten.

Apalorduan, sendi bakoitza emaztearen jaiotetxera dijoa, gurasoek bizi arterano. Aparitako, anak eta zerribelarrik, ogitxigortuakin azken emateko. lyotea gaberdi arteko erromeriakin bukatzen da, 1936-ean ospatu ziran azkenengoz lyotiak Arbizun. Arrezkero, Astelen lyotiak, aurren jaiak bakarrik dirau.

## **OKARIZEKO LASTA-GIZONA EDO GIZATXARRA**

Arabar errixka ontako Ostegun Gizena, beste inguruko zenbaitetan bezela, umeen jaia izan da batikbat. Aurrak, Igande-jantziz, batzuk txapel da guzi, eskebatzea egiten zuten. Lukainka, arrautz, koipe, ogi ta diru bilduaz. Taldeko zaarrena zen poltsadun. Beste bat akolito-jantziz, gotzai-kapela buruan, Obixpoa zirudin<sup>60</sup>. Etxaurretan, alde ortako auzo denetan bezela, onela kanta oi zuten:

---

59. *Txatarrak* ziran baitere Etxarri Aranazko mozorrotuak eta arpegi-estaliak, eta Barrankako Iturmendin, Arbizu ta Etxarri, urbilleko errixkan *jtomoxorroak* deitzen zieten.

60. Arabako Barrundia erribarrutiko Heredia-n, Ostegun-Gizen jaiko Obispotxo au, gotzai kapa aundi ta beste alako jaunari dagozkion apaingarriz bitxiturik zebillen.

Ostegun Gizen, Ostiral Gurutz, Pazko Larunbat, piztu da Jesus. Aingerutxo gera, eskean gabiltz, eman ez eman, aurrera beti. Etxe ontako Andrea bedi emazte ona, bekar txistor eta arrautz ta ardotako txanpona. Bekarkigu urdai zar, azal xamurreko, egosi-errea, eskolaumeak baibaitaki nola aozgoza<sup>61</sup>.

Ola kanta ondoren, Obixpotxoak Aitagurea esanda agurtzen dira. Heredia-koak, ala bear bazan, oso bestelako moduz jo-katzen zuten. Eskeko txikiei erantzun onik ez bazemaioten, onela erasotzen zieten:

Etxe ontako etxeoandrea, a zer emazte prestua; ez dakar txistor, arrautz ez diru, edan dezagun ardua.

Eta aldegitian, deadarka zioten

ximurra... ximurra...

Ostegun Iñautez, erriko abereen artzaia ere, eskebildari atera oi zen. Aurrei ematen zietenaz gaiñera, iñorgutxik ukatuko zion abelzaiari katillukada babarruna.

Larunbat gabaz, mutil andienarenean, gazteen biltoki oi zena, ardi bat iltzen zuten, da etxeoandreak odolkgintzari ekiten zion. Bereala, morrosko taldea –zazpi-amar– Agurain-dik ekarritako ardoakin aparitara batzen ziran.

Iñaute-Igandez, gazteria bilduko zen kafea artzera, ta elizkizun ondoren aterako ziren, aunts edo ardi-laruz, joaretxoz, larruzko ubeletatik zintzarriak, eta narru-arpegikoz mozorroturik. Oiek ziran *porreroak*, beren agaburuekin aurrak eta neskatillak izuarazten zituztenak. Neska ta ume, aien iges, elizataripean gordeko ziren, porreroak an sartzerik ez baizuten.

Iñularrean, mutil-jendeak, estalgalluak kendu ta eskebatzeari ekingo zion. Kitarra bat edo besterekin asten ziran errondan, da geldiune bakoitzean ala zioten: *Ate ontara elduak gera laute jaiegunez, txistor, arrautz ta diru eskean, oiturak agintzen dunez.*

Agurra berriz onela: *Ez dakit nola eskerrak eman, ongi adieraz naiez, agur etxeo... guztiak eta denok ondo izan bitez.*

Etxean neska eldurik bazan, onek ogi-erroskil azukretuz saritzen zituen eskeko mutillak. Eta ogierroskil ori, gazte aietako batek *matasarda* deritzan ankabiko agan ezartzen zuen. Mutil gaztetxoena ogitako zorroa zeraman, besteak, koipe ta lukainkarentzat erratillua, ta irugarrenak berriz, arrautz-saskia. Gazte zaarrena zen diruzaia. Aintziña, Astelen goizez, mutil mordoia joan oi zen mendira idi-gurdiarekin Astearte-lautez erretzeko sugai billa. Azkenaldian ordea, jaiardi ortan, etxez-etxe zebiltzan ardo ta tabakorria eskeinka. Bazkalondoan, Agurain-en biltzen ziren, gero illunakin batera erriratuaz.

---

61. Badakigu Ostegun-Gizenez Lazagurrian ere onen antzeko kanta abesten zutela. José Maria Iribarren: *De Pascuas a Ramos* lib., 115 orr.

Astearte goizez, gazteen lenengo lana, *Lasta-Gizon* edo *Giza Gaiztoa* gertutzea zen. Ortarako gazte zaarrenaren etxean bildurik, praka batzuk inguratu ta lastoz beteko zituzten. Gerrialdetik josten zioten jakea lepalderaño ongi loturik, eta besoak zabal, lastoz sendotu. Burutzat zapi bildua serrautzez betea, ta arpegizat kartoizko maskara. Txontxongillo onek etzuen eskurik, eta kaxkoan txapela edo ginbailla ezartzen zioten. Oñetakotzat, abarketak zintzilik. Gorputzean, lastartean gordeta, bi kartutxo, metxak kanpokoaldera. Urteren baten, kartutxo ordez, panpin barruan ziri batzuk sartzen zizkieten sutauts da metxakin.

Astearte atsaldez porreroan ekiñaldi ondoren, laurak aldean, gazteak zigagaiztoa ateratzen zuten. Gurdian elizalderuntz eraman da mutil batek sekulako eraso gogorra egin ondoren nasa barrutik, bereala su ematen zioten. Gero erromeria, mutillak, neska ta ezkonduer berekin dantzatzera dei egiten zietelarik. Okarizen, Ostegun-Gizenez jai egiteari orain bi urte utzi zitzaion, ta gañerako Karnabalak ere ez dira ospatzen 1940 ezkeru.

### **ZALDUENDOKO MARKITOS**

Zalduendoko eskolamaxuari Ostegun-Gizenez opari egiten zioten. Aur bakoitzak, txistorra edo arrautz bi eskeintzeko oitura zen. Egun ortako atsalde, gazteri ta gizon ezkonduer, meriendatzera biltzen ziren. Txistorra egosia jaten zuten, arako esaera gogoan: *Ostegun-Gizen zortziurrengo, ez duk zikiro-rik jango*.

Larunbat gabaz gazteak ardandegian zuten billera. An, aparirik gabe, mutil aziak batzartu, ta euren buru izango dena aukeratzen dute, Iñauteri festak eratu ta bear bezela zuzenduko dituen, alegia. Batzar ortan bertan izendatuko dute baitere, mutill-etxea, Iñauteri bitarte guzian elkartuko diren tokia, bertan jan, mozorro jantzi, ta *Markitos* panpiña antolatuko dute, gero, Astearte-lautez desegiña izango dena.

Igande-Iñaute-Jaia, atsalde-berritan asi oi da, ta Illuntzeko «aimarita-koan», zazpirak aldean, buka.

*Porreroak* arpillerazko prakak zeramazkiten, batzuk lasta-zorrotan sartuta ageri ziran, da batedobeste emakume jantziz ere bai. Begitarte estaltzeko, geienek kartoizko arpegikoa zeramakiten. Neska aziak, mantoia, edota lepoko pañelua zuten egun oetako ezaugarri. Porreroak, arpegi-agirian zebiltzan iru eguneko erromeria alaitzeko, Zalduendon txistularia edo soñujolea ibilli oi zuten.

Astelen-laute, biaramoneko gertuketan igaro oi zuten. Txekorra il, da panpintzarra antolatzen. Onek metro terdi inguru bazukean. Zurezko ankabidun zutikakoa zeukan barrutik. Goialdean, zear-makilla batek egingo zun besotzako. Garoz betetako galtza zarrak betik gora. Azkenik, alkandora jazen zioten edozer koloretakoa ta iratzez barrua betetzen. Gañetik jakea jantzi ta lapikoa ezarri burutzat, kartoizko arpegikoarekin. Artaorri naiz kartoi zerrendak atza-

partzat. Artilezko galtzerdi gañetik larruzko abarkak, naizta azkenaldi ontan aien ordeztotak jarri.

Astearte-laute goiznabarrean, mutil gazteak mendiratzzen ziran abarrak ebaki ta erriko plazan metatzeko. Urrena, mutillak, txistulari edo soñujolearekin kalez-kalekoa egingo zuten. Gosalostean, gazte bat jartzzen zan asto gañean *Markitos* delakoa berekin arturik, ta txistua joaz, gazteria ondolik zuela karriketetan zear zijoazen. Eliz inguruan ematen zitzaion azkena ibillal-diari, zazpi-zortzi metroko aga baten gixontxoa ixikiaz ta bekaldetik lurrean egindako zuloan tinkaturik. Gero eskebatzea zegiten. Arrautz, koipe, odolki ta ogia zemaieten. Arratsaldean, geienek elizkizunean zirela, gazteak *porrero* ateratzeko prestatzen ariko ziren. Garaia eltzean, idi-gurdia artu ta gizirudia utzi zuten zulotik atera ta karroan Jarri.

Bertan zegon nasa barruan ezkutaturik izlaria, bere orduan agertuko zena. Manto *.gorria* zun, da arpegia ikatzez beztua. Batetako sermolariak bere etorria ta iaiotasuna erakusten zituen urte batetik bestera gaia aldatuaz. Iñoiz, errexenera jota, irakurria izaten zan. Eskuratu al izan dugu 1889 ta 1934-garren urtetan zuzendutakoa. Ona laburpena:

«Petrikillo Jaunak dio, gizona, estutu ezker, tontuena ere azkarra biurtzen dela, bada ni, astoa baña burugogorragoa izanik ere, ara zer diozuedan Adizkideok! Jakin ezazute gaur, Petrikillo madarikatu au Galtzagorriren trabenara jetxi zala, bere fama, bizitza ta diruarekin...

... baña zaudete pixkabat, gauzak esaten asi aurretik mingaña busti dezadan, ardagaia baño legorragoa baitaukat, ia orrela, utsegin gabe, itxurazko zerbait adierazten dizuedan.

Ezbaita sermolari txarrik Errioxa ardo gorritz eztarria ongi ezkotu ezker, ta nik sabela preskatu ta lukainka muturra jan bitartean, erreza ezazute abemari bat nere izenean.

Eta orain bai, bapo zurrut eginda, pronto nago kontu zarra kontatzeko. Zuek bada entzun arretaz, da, neska, mutill, atso, agureak, zabal kanaerdi zuen belarriak.

Gaur danok jakin bear duzute, Astearte-laute ospa nairik, naasketa aundi bat ba degula matasaturik. Eta orrelakotan onena, tira ta ateratzea izaten omen da.

Ala bada, erauziko aut nik ipurditik. Alde, alde, zoritxarreko; irekin ez nauk errukituko.

Emen egin dik ireak, orain ordainduko dituk larrutik egindako gaitzakeri guziak».

Markitos delakoak, zentzungabeko prediku bildurgarri ua entzunda gero, epaiturik gelditzen zan. Erruduna, pekataria, gurditik jeixten zuten, eztaga-ria sabelean jarri, ta zugaitzpe baten lerrarazten zuten.





Erromeri-urren, mutil gazteak, alkate, txistulari, ta errizaiarekin afaltzera bilduko ziran. Geroago, abarrei su eman da aien argira ta aguazillaren begira-pean, gaberdiarte dantzan.

Urteren baten, Austerre-egunez, *sardiña eortzea* ere egin izan zan. Mutil batek zeraman sardiña txape lari josia plazara. An, sardiña txapeletik kendu ta txuloan sartu. Iñaute azken-jaikizun ontara umeteri guzia bildu oi zen, gazteak kantari zirela.

## **SAN MILLANGO SAN ROMANEKO AMONA ZARRA**

Arabako errikoakor au ere aipagarri zaigu, bada, emen ere Ostegun-Gizen eguna umeen jaia bezela artu izan da gaurdaño. Bezperatik asten dira aurrak eskean. Oietako bat, *obispo jantzirik*, ba du erraztun pitxia, gotzai-kapela, kapa ta artzai-makilla. Obixpotxo onek baditu bi laguntzalle akolito jantziz, gain-ator txuri ta sotana ta esklabiña gorrizko. Oñetako berezirik ez dute, arrunta baizik. Gañerontzekoek ez darabilte Iñaute ezaugarririk.

Eskebatzallee, arrautz odolki, lukainka, koipe, arroz edota dirua eskeintzen zaizkie, ta gotzaitxoari dagokio jakiñeko eskar-itzak esatea: *Eskerrikasko andre, eskuzabala zera, Jaunak bedeinka beza zure biotz onbera*. Aurrak, alkate, erretore ta maixuarekin bazkaitara biltzen dira Ostegun-Gizen eguerdiz. Arratsaldean, ume aietako batzuek, aurpegia beztu ta edozer jazki soñean artzen dute estalgarri antzera.

Igande Iñauteak, arratsaldez zun asiera. Mutil gazteak zomorroturik *porrero* bezela ateratzen ziran. Eskuan, makil-muturrean, urde-mazkuria lotzen zuten aizez puztua. Iñularrean *porreroek* beren estalgarriak ken, da erromeria asten zen, kitarra ta esku-soñuz alaitua.

Astearte lautez, ezkonduen eguna. Auek *Atxozarra* antolatzeari ematen zioten da gizonezkoz jantzi. Atxoa delakoak, enbor bat zeukan gorputztzat, zertxobat aizkoraz tajutua, ta beso-zangoak berriz, eraskiñak. Egur mokorrari xilborra zulatu ta bertan kartutxo erdikarentzat tokia uzten zioten bere metxarekin, da galtzak eta atorra jantzi ondoren, lastoztatu. Gero, jake ta txapela ipiñi ta kito. Esku-oñik etzuen, da metro terdi or nunbait goibea.

Lau-terdik aldean, *Atxoa* ta *porreroa*, lorez, kuzkulluz, kolorezko mantaz, ta iñoiz, galtzaz ere ornituriko asto gañean jartzen ziran. Onela *porreroz* inguraturik, erriari bira emango zioten, da seirak aldean, panpiñ-atxoa lurreratu ta orma ondoan utzirik, lerrarazten zuten. Atxozarraren ondakiñ, da gurdika bat edo bi egurrekin sua pizten zuten, *zumardo* deitua.

San Millango San Romaneko azken Karnabaletan, 1936-ean, utzi zioten Panpiñ-Atxoa erretzeari. Len esan dugunez, aurrek bakarrik irauazten diote Ostegun lauteri.

Salzedo erriko Karnabal jaietan ere, Garizuma aurreko iru egunetan batik-bat, ba zan panpiña moldatzeko oitura; galtza ta jake lastoz beteak, arpegi-estalki ta sonbreroduna. Mutil gazte batek zaldi gaiñean zeraman alkate-etxeraño. Mutil eramalleak, panpiñaren beso-buruei eragiten zien Agintariari agur balegio bezela.

Mutil-elkartekoek gizairudia beartu nai lukete alka teari atsaldeonak ematera, baña ori lortu eziñik, ukatzalleari berealdiko jipoia damaiote. Orduan, zaldizko mutillak, irudiaren orde z negar ta intziri itxurak eginaz, Agintaria agurtzen zuen. Ori bera bein da berriz berrituko zuten.

Segidan, panpintzarra errian zear ibilli ondoren, makilka ta ukaldika ondaturik, tellatu batera botako zuten<sup>62</sup>.

---

62. Felipe Arredondo: *Anuario de Eusko Folklore*, II, 1922 urtea, 103-107 orr.

## Erri-errietako ñauteriak

---

Bi eratako Karnabalak bereiz ditzakegu: uriburu ta erri anditakoa, ta errixka edo auzoetakoa.

Erri txikitakoak, baso, mendi, alor, landazabal, au da, Izadi bikaña du bere ager-toki. Or ditugu antzezlari, artzai, ikazkin aizkolari, baserritarrak, berekin bizi izan diran etxabere larruz estalirik. Oietan dena da berezko-berezkoa, arrotz eraskiñik gabea, alegia. Agerkizun oien jatorria ta nondik-norakoa ixkutu-gorderik diraun arren, gure leenaren irudi bizi ditugu, ta egun oietako eske-bertsoak aspaldiko Euskalerrriaren bizikera dagerkigute.

Ikus bestela Ataungo *Otsabilkotan* eskebatzalleak erabilli oi zuten bertso garratza:

«Otsabilko, otsabilko,  
ni basoa jun da otso aundi bat ekarriko, ekarriko.  
Nei lukainka mutur bat emate'ez diñai  
tripati aurrera burruntzie sartuko, sartuko».

Erri-giroa berekin dute, edo beintzat erri-kutsurik ez dute zearo galdu ondorengo leku oetako ñauteriak. Baña aurrez, oar bat egin nai genduke. Konturatzen gera, erriz-erri festa ber-beraren berezitasunak zeatzkiro azter-tzea enparagarri gerta ditekela. Alazgutziz, datoak jasotze lanai ala dagokio-nez, or dijoazkizu diren-direnean<sup>63</sup>.

### BERGARA

Emen *Aratoztiak* edo Karnabalak *Eguen Gizenez* zuten asiera, Elgeta ta Eibar-en *Eguen Zuri* diotena, Kinkuagesimaz ta urrengo egunetan jarraitzen zuna.

---

63. Erriak ez ditugu saillean aitatzen, gaiak eskatzen duen arabera baizik.

Eguen Gizen goizetik atera oi zan ala-olako bat, artza-larraz estalirik. Pizitzakoa, beste estaligabeko gizonak zeraman sokatik, ta goiz osoa umeen atzetik laisterka zerabilkin. Artza delako ori, eguerdi aldean ezkututzen zan urrengo urtearte.

Igande goizean, Errietxeko Soñulariek *diana* jotzeaz balia oi ziran eskea egiteko. Bildutakoarekin bazkaltzera inguratzen ziren.

*Martisena*, jai gordetzen zuten. Ezkondu ta ezkongabe asko mozorrotzen ziran. Goizetik *soka-muturra*, ta eguerdiz, Errikoetxeak ardo-zaragia zerabilkin kalez-kale edan nai zuenak libre.

Arratsaldean, San Martin Agirrekoaren Enparantzan aureskuak dantzatzen ziren, *kukumarro* edo mozorrotuak tarteko ziralarik. Laskurain Bonipaziok, larogetamar urteko txistulariak, gogoan omen du, Martisen-Iñautez, amar dantzal-ditik gora jo izandua. Bergarako Aratoziak ez dira ikusi 1936 urtea ezker.

## ANTZUOLA

Erri ontako Ostegun Gizen egunak, *Eguen Gizen* zuten deitura. Baña, azkenengoak beintzat, Kinkuagesima Asteartez bakarrik ospatu dira. Goizetik, gazte sail bat, abarkak eta eunezko alkondarakin, millarraiazko prakak, txapel da bruxa beltz edo urdiñakin, «sorgin-dantza» dantzatzen zuten. Plazan asi ta kale-baserri oro pasako zituzten dantzari. Auei biltzen zitzaizkien *kukumarroak*, tximiñua ta artza, ango jaki naiz diru usaiera. Eske-lana eguerdirako bukatzen zuten da batutakoakin bazkari-apariak egin Martisen Karnabala ospatzeko.

Arratsaldez, enparantzan, erromeri ta aureskua. Au, sorgin-dantzari taldearen gain izan oi zan. Dantzarien jazkera, goizekoa bezela. Gaur aaztu xamarrak dira Antzuolako *Aratuzteak*.

## ELORRIO

Elorrioko Karnabalak, Austerre aurreko Igande ta Astearteak osatzen zituzten. *Aratuzte Domekia* ta *Aratuzte Martitzena*.

Domeka atsaldez eta Martitzena egun osoz ateratzen ziran bi edo iru *artza-gizon*, ardi larraz jantzirik, *arranak* joaz, arpegia kedarrez bezturik, urbiltzen zitzaizkienak erratz batekin astinduaz. Artza-gizon oien aldean zebiltzan mozorrotuak ere. *Kokomarroak* berriz, mutil aundi ta txiki, arpegi estaliekkin da emakume jantziz. 1936-garrenean galdu ziran Elorrioko artzak eta kokomarroak

## BERASTEGI

Gipuzkoako erri ontan, Iñauteriak, Garizuma aurreko iru egunetan, *Zaldu-niota*, *Asteleniota* ta *Astearteñota* jaitu oi zituzten, Igande, Astelen ta Astea-

teari dagozkienak. Zalduniotan, mozorrotu gabe zebiltzan. Oikunde onen jatorria, gai orretzaz sarri gerta oi danez, Eliza ta erriaren arteko artu-emanetan daukagu noski<sup>64</sup>.

Kinkuagesima baño bi igandez aurretik, gazteak biltzen ziran bi *espensero* aukeratzeko. Kargu onek urte barrurako zuen indar. *Espenseroak*, festetan erabilliko zen diruaren ardura izango zuten; da baita neskak dantzara ekartzea ere, aurrez, txandako dantzariaren naiagoenak jakiñik, eta Iñauteri jaiak bear bezela igaro zitezen zaitu.

Ostegun Gizenez, aurren dantza-soka ateratzen zan. Larunbat atsaldez, *espenseroak* baserririk urrutienetan atea jotzen zuten. Gañerako gazteak ere, Igrande goizetik, eginbear ortan laguntzen zieten. Errikoetxetik aterako ziran Erretorearenera, txistulariak berekin zituztela. Dìrela irurogeitabost urte, Lazaro Atxukarro zen txistulari, Berastegiko «Ezpeleta» basetxekoa. Eskebatze oetzaz 1910-ean argitara zuten Erribarrutiko erabakietan, amalaugarren atalean, au irakur dezakegu:

«San Juan dantzariak deituak ta gañerako eskekoak, Karnabaletan naiz beste edozein jaitan, dantzan, kantuan, soñu-jotzen, eskean, beren buruak ager nai dituztenak, Alkatearen baimena bearko dute».

Zalduniota, Asteleniota ta Astearteñota atsaldez, gazteak, Errege Plazan bertan sokadantza ateratzen zuten. Erri-erabaki oiek berak, Iñauterietako mozorro ta dantzei buruz, amaseigarren atalean au dio:

«Iñaute-jaitan debekatua dago auresku naiz soka-dantza mozorroturik ateratzea, baño goizeko bederatzitatik illuntzeraño ibil ditezke era ortan, elizkizun bitartean izan ezik, ta jokabide ta oitura onak baztertzeke. Dena dela, agintari edo ordezkoeak badute eskubide utsegille ta gaizki dabiltzanei arpegi-estalkia kentzeko, guzien edo norberaren kaltetan abiatzera ausar ez ditezten».

## ELDUAIEN

Elduaiengo etxadia Berastegitik igeska bezela ageri zaigu. Berrobiko sakonera sartu nairik, arek aurrea artu bai-lìo. Emen, Iñauteri-Karnabalak, Kinkuagesima Astelen-Asteartez ospa oi zituzten, *Astelenita* ta *Asteartita* izenez ezagunak. Iñaute-jazkeraz zebiltzanei, *txantxoak* deitzen zieten, da arpegi-estaliei berriz *mozorrotuak*. Oetako batzuek emakume-jantziz ere ikusten ziran, neskak berak soñekoak emanik. Txamarra ta gona zuri almidoitua. Burua iru puntako pañolo zuriz estalirik, mutur bakoitza alde banatara. Galzterdi ta abarketak, gañerontzekoak bezela, zuriak.

---

64. Olako zerbait gerta oi zan Puente la Reinan ere, Eliza ta erriarekiko ar-emanetan. Karnabaletan, Garizuma aurreko iru egunetan, «maskaridak» atsalde-elizkizun ondoren azaltzen ziran. Baña, asteartez, Mateo Iraxeta kanpajoleagandik dakigunez, Santioko ta San Pedro elizetakoak, eguerdiz jotzen zituzten, nekazariei jai-deia egiñaz. Puente la Reinan ba zan jolas berezia jai oien osagarri, *pikotxo*a deitua Maskaridak, eskuan ziria zeramaten, da aren muturretik, ari batetik zintzilika, pikoa. Maskaridak, beste eskuan zeukan makiltzoz ziria astinduaz ara ta ona geldigabo zerabilkin, onela, aoz atzeman bear zuten umeentzat zaillago zedin. Jolaskizun au Tolo-sako Iñauterietan ere ikusi izandu da, eta *al-higi egiten* izena ematen zitzaion.



Mozorrotuak, beren gorputzak, belar-ondoak, ostolegorrez da lastoz trinkotuak zituzten. Txantxoak, eta berdin mozorrotuak, Iñauteritako iru egunetan aterako ziren. Astelenita goizez, gazteak, txistularia lagun zutela, eskebiltzea egiten zuten. Taldeko batek, makilla muturrean, lukainka zeraman deigarri, ta beste batek beso-saskia arrautzak.

Astelenita-Asteartita atsaldez, plazan eratzen zuten ollar-jokue. Asteartez, erromeri-ostean, mutil gazteak, bezperan bildutakoaz afaltzera elduko ziran.

## BERROBI

Erri ontako Karnabalak, Iñauteri izenez ere ezagutu omen ziran. Ostegun Gizen eguneko gertakizunik bereziena, gazteriarren apari-merienda zan.

*Zaldunita* edo Kinkuagesima atsaldez, ardangelako bazkari ondoren, gazteak Karnabaletako eskeari ema ten zioten, biaramon *Astelenitaz* jarraitzeko. Garai baten, txistularia izaten zuten lagun, da oraintsuago berriz, soñujolea. Mutil batek, arrautz-saskia zeraman, da besteak makilla, lukainka ta ogi-erroskillentzat. Irugarren bat poltsadun da diru-zai.

Eskeari erromeriak jarrai. Gero aparta. Bazkari, erromeri ta aparta, *Astelenita-Asteartitaz* berrituak izaten ziranak. Asteartitaz ordea, gazteak agintariei dei egiten zieten berekin maikide izateko.

Iñaute-jantzitakoei, arpegi-ageri naiz mozorrotuz, *txantxo* deitzen zitzairen. Txantxoak makilla bat bazuen, da bere jolasik gogozkoena umeen atzetik ibiltzea zen, oek kantatzen ziotela: *txantxo malakasta, ipurdian bakasta, kotkoan ardoa, txantxo pikaroa*.

## LIZARTZA

Araxes errekatxoaren ur gardenak banatzen dute bi sailletan Lizartzako etxadia. Alde batetik, bidezabal zear, kale-nagusia, bere etxe ezberdin kokatuz, begi alaigarri, ta Araxes bestaldetik, erriko enparantza ta eliza.

Lizartzako Iñauteriak bazuten bere garrantzia erri-barruan, da bai ingurumarian ere. Gizadietan barna saiatu zen dantza-talde bat maitekero moldatzen, Iñauteriaz agerraldi nabarmena egiten zekiena.

«Lagun Artea» elkargoa, emezortzirenbat gazteek osatuak, ba zitun amar dantzari, bi zaldidunak, ta besteak kontu-emalle ta festa-eratzalle, *kamare-roak* deituak.

Ostegun Gizenez, Errietxeko dantza-ikaslekuan os patzen zuten jai au, lukainka ta ardoakin. Larunbatez, berrogei erraldeko txekorra il, eta gelditzen zena, Iñauteri ondoren, saldu egiten zuten.

Iñaute Igandez, *Zaldunita* jaia. Egun-sentia baño len, dantzariak Erriko-gelan biltzen ziran. Bakoitzak neska bat artuko zuen lagun; agian, norbere andregai, edo bestela, auzokoa.



Dantzariek, alkandora ta galtza zuriak zituzten. Paparralde almidoitua ta beso banatan seda gorrizko lazoa. Zinta gorridun abarketak eta galtzerdi zuriak. Txapel gorria, ta gerrikoa berdiñ. Bizkarretik bera, sedazko mantoia. Iru puntako pañolu modura jarria, bi mutur gerrian erraztunaz bildurik. Mantoiak ere ba zitun iru orratz bularraldean apaingarri. *Zaldunitaz* da *Asteartitaz* zeramatena, oria zen, da, *Astelenitaz* erabiltzekoa berriz, gorria. Dantzariei, bati *kapitana* ta besteai *sargentoa* zeritzaten. Lenbizikoak, eskulekutik elduta makil apaiña zeraman, irurogeitamar zentimetrokoa, kolorezko zintaz ornia. Sargentoa ostera, zastakaia, metro ta irurogeitamabost zentimetrokoa. Zurezko eskulekua zun da gañontzekoa burnizko. Mutur aldetik bazitun bi besotxo makur.

Goizeko amarrak alderako, dantzariak ertetzeko gertu zeuden. Taldeak, kapitana ta sargentoa aurretik zirela, txistu soñura, kalerik-kale paseo-dantza egiten zuen. Au zan goiz-eresi edo diana.

Gosaria, okela izan oi zan geienbat, egun oietako sukaldari gizon-emaume autatuak maniatua.

Gero, dantzariek Mezanagusitara joaten ziren. Elizbarruan etzuten dantzatzen, Agintari-alki atzekoan egon baño.

Amaiketan, plazan, dantza sail osoa dantzatzen zuten<sup>65</sup>. *Paseo-dantza*, *Leenengoa*, *Bigarrena*, *Seigarrena*, *Ostiko-dantza*, *Etxe-dantza*, *Lau ostiko-dantza*, *Makil-dantza*, *Bloke-dantza* ta *Paseo-dantza*.

Kontseju-etxean egiten zuten otordu-billera, ta Zaldunita egunekoa, ollozopa, garbantzua eta aragia ziren.

Arratsaldeko jaiak erriko enparantza zuen bere agerleku jakiña. Emen bilduko ziran lizarzar geienaz gañera ingurutako ikuslerik asko ere. Kontseju-etxetik plazara bitartekoa paseo-dantzatan egiten zuten eta an berriro dantzatu. Gero bi dantza-soka. Lenengoa kapitanak eta sargentoa aterea, ta bigarrena, taldeko bi aurren-dantzarik. *Aimari-ezkillak* edo *abemarik* zemakion erromeriari azkena.

Zaldunitan ikusi deguna berritzen zan ia osorik *Astelenitaz* da *Asteartitaz*. *Astelenitaz*, diana ondotik, puska-biltzea. Bi zaldidunak, dantzarien jantziekin baña mantoï gabe, orratzik eta erraztunik gabe, baserri urrutienetaraño joa-

---

65. Onako kontatzera noan edeskizuntxo au, aoz-ao datorkiguna da ta Lizartzan aski eza-guna. Beiñola, Espaiñiko Errege, Alfonso XIgarrena noski, egokitu zan Lizartzan barrena bidez zijoala, ta Iñauteri jai alaien zarata somaturik, jetxi ta abiatzen da plazaruntz. An ikusi al izan zitun dantzarri arrigarriz lilluraturik, zorionak emanaz gañera zer nai luketen eskatzeko esan zien, sarigarri zirela ta. Mutillak erabaki zuten, Iñauteriei laguntzeko eskakizun txiki bat egitea, alegia, jai oietarako Naparroatik zekarten ardoari mugako zerga-kentzea edo sitze barkatzeko. Eskariak arrera ona izan zuen, eta xox batzuek gutxiago kostako zan jaietan edandako ardoa. Lizartza-ko Inazio Zubeldiak eman digun dantza zerrendaz, Jose A. de Urbeltz'ekin itzegin dugu, gure Koreografian jakintsua dana.



Lizartzako dantzariak eta zaldunak, auek abererik gabe. 1928



Lizartzako dantzariak eta zaldidunak, Inauterietako alkatearekin. 1931

ten ziran. Dantzariak txistulari ta atabalerokin, da kamareroak, beste etxe-tako ateak jotzen zituzten. Atarian, kapitanak, dantza-sailletik berak nai zuena dantzatzen zuen.

Etxeetan ematen zieten gutxienez dozena arrautz. Eta txerri-ilketa gerta baledi lukainka ta solomokia ere bai.

Kale-etxetakoek dirua ematen zieten. Kamareroak ziran poltsero ta puxka-eramalle. Zalduen da dantzarien eskeari erantzuten zieten etxe-jaun edo seme zaarrena, Asteartitako bazkaritara deitzen zuten, ez ordea duan edo utsaren truke, ogerlekoa ordainduaz baizik. Eskea amaiketako bukatu ta bertatik jaiak jarraitzen zuen Zaldunita Igandez bezelatsu.

Asteartita goiza, Goiz-eresi edo Dianak, dantzari ta lagunen gosari ta plazako dantzaldiak ematen zuen. Eguneko otorduan –iru jaki ta gañetikoa– etxe bakoitzetik bat an zan. Arratsaldeko jai-legea, beste bi aurrekoen antzekoa.

Lizartzako Iñauterietan ere baziran laute-jantziak eta arpegi estaliak. Astelen-Asteartez ateratzen ziran da mozorrotuak deitzen zituzten. Ezkondu naiz ezkongabeak izan zitezken da eskebatzeari ere ekiñ oi zioten, baiña, ori bai, oso karnabaleraz egiña gertatzen zen; batetan da zalapartaka. Lizartzako Iñauteriak, emen azaldu ditugunez beintzat, badira berrogeitamar urte ezkuta zirela.

## **ABALZISKETA**

Gure gipuzkoar goierriko errixka ontan, ardiak, neguari iges, borda epeletan beeka ta ausnarka zeuden artean, artzai-jende ta menditar guziak Iñauteri ospaketan ziarduten, dantza ta jolas, festa-egun berezi oei dagokionez.

*Astelenita* ta *Asteartita* izenez deitzen zieten Karnabaleako astearen bi lenbiziko egunei auzo-erri ontan. Astelenez egun osoan, da asteartez goizetik, eskea egiñ oi zen erribarrutiko basetxetan, da baita aurrez baimena iritxita, Gaintzako, Orendaingo ta Zaldibikotan ere. Eskekoan, makil-dantza agertzen zuten, geienik, txistulariakin, baiña iñoiz, baita eskusoñuakin ere. Dantzariak txapel gorritz, gallurrean zuriz bordatutako uztaitxo zuela, ta bertatik kolorezko borla zintzilik. Alkandora ta gal tzak zuriak, lepoko gorbata ta gerrikoa, gorriak. Besotatik bera, margo askotako zintak. Sedazko mantoia laukia, fleko zuri, ori, berde, gorri naiz urdinduna, iru puntako eran tolesturik eskubiko sorbaldatik bera, bular-bizkarrak estaliaz ezkerrera eroria ta gerrian lotua. Dantzari batzuk iru puntako pañelua erakusten zuten, da mantoiaz bestaldea jarrita, kolore ezberdiñak nabarmentzea billatzen zan. Giroari begiratuz, zintatxo gorridun abarketa zuriz, edo bestela, zapata naiz botaz jantzirik azalduko ziran.

Asteartita egunez, makil-dantza enparantzan.

## **LATASA**

Igandez jaitu oi ziren Imoz Ibarreko napar erri ontan *loteak*. Garizuma aurreko Astelen lote ta Astearte loteak. Auzo ontan, *lotez-jantziei txatxuak*

deitzen zieten. Onela agertzen ziran: arpegia zapiz estalia, ta sarri tan, nekarizarien lasta-txapelaz da emakume bata edo gain-jantziz. Eskuan, aizez puztutako maxkurie makilla-puntan, urreratzen ziranei, aurrei bereziki, erasotzeko.

Igande ta Astelen goizetik, ogeitabost edo ogeitamar txatxuak, atez-ate, oiturazko puska biltzea egiten zuten. lote Asteartez, txatxuek berekasa jolas-ten ziren. Iru jai-egunetan *ingurutxo*a dantzatu ta erromeriaz azkena emango zitzaion. Egun oietan, otordutarako, baserrietan bildutakoari, txatxuak, txekor-okela erasten zioten.

Latasako loteak 1940-garren urtearte eten gabe ospatu izan ziren. Geroztik, egun jakiniik gabe, iñoiz edo beñ jaitu dituzte.

## ETXALEKU

Orra Imoz Ibarreko beste erria. Bere *loteak* ospatzeko egunak eta beroien izenak Latasakoen kideko dira. Ez ordea Programa; Etxalekuko jai-egitaraua arena baño aberatsago baita.

Erriko mutill kuadrille baturik, abuztuaren iruko festa txikiz, *mutill-nagusie* aukeratzen zuten zozketa-bidez, eta bere *mutill-lagune*. Neskak berebat, egun-ean bertan izendatuko zuten *neska-nagusie* ta bere laguntzallea. Bi bikoteak lote-jai oek antolatzen saiatuko ziren.

lote Igande goizetik, *mutill kuadrille*, neskaren bat bizi zen baserrietan atea jotzen zuten, txistularia lagun zutela. Gizaldi aserako jaitan, Pantxo zubietarra ibil tzen zuten, da gerora, aren semea ere bai. Ala zebiltzan, mendibideak barna, txistu-soñu ta gazteen poz-irrintziak naasian. Egaztiak, bilduala, bizirik eta anketatik lotuta panderoaren uztai iltzeztatutik zintzilikatzen zituzten. Larogei zentimetro izango zitun panderoak alde-alde, ta gazte batek bere makil-muturrean sartzen zuen, larruaren da bi listoi sendogarrien tartetik.

Igandez, gazteen otordu-gaia aarikia izan oi zen, lote bezperaz ildako aariak. Azken aldiari txekor-okela sartu zan aren orde.

Arratsaldez, gazte batek, mutil-nausiaren esanari jarraiki, ollo-opari egin zuten etxeetatik neska bat artu ta plazaratzen zuen. Gero, eskalari ibillitako neska danakin berdiñ egingo zuten. Baña, mutil-nausiak neska-nausia ekarri bear zuen, da mutil-lagunak neska-laguna. Onekin iritxia zan *ingurutxoaren* ordua, ta lau gazte agintari edo direlakoek, dantzari asera emango zioten. Bereala erromeria ta neskak etxeratzea, eta mutillak afaltzera. Urrena, maia utzirik, Zubietako soñujolearekin da iñoiz baita bere semearekin ere, mutil-kuadrille neska ikustera abiatzen zan, etxe-barrutan jo ta dantzatzuz. Onela erronda egingo zuten. Bertsolaria ere an izango zan kantari festa-giro osagarri:

«Tanporra ta txistue, soñu alegriak,  
ondo dibertitzeko gure euskal erriak.  
Ez neuken aazturikan launari graziak,  
gora gure Zubitako soñu jotzalleak».

Astelen-Asteartez, berriro ingurutxo, erromeria ta gau-erronda. lote-Asteartez, mutil-kuadrillek, berrogeitabost inguru, auspo-soñu bat edo birekin, eskebatzeari, au da, puska -biltzeari emango zion. Lukainka, urdaie, arrautz eta ogi biltzen zuten. Gazteak zato-ardoa eskeñiko zion nagusiari. Eta, esker-agiritzat, baita baso-ardo betea ere utziko etxeko andreari. Oitura onen aztarrena, emakumeak agirian, jendearen aurrean, ez edateko gizarte-legean daukagu noski. Arrautz-jasotzeko, saskia zeramaten; urdai ta txistorra alanbretik ixikita, ta ogiak zakutoan.

Astearteko eskean an zebiltzan *txatxuak* direlakuok, sonbreruaz, arpegi-estalarik eta batedobat emazteki-jantziz ere bai. Eta *txatxututa* etzebiltzenak berriz, zeukaten jazkirik dotoreenakin.

Ibillaldi ortan, amarretakoa apaizetxean egingo zuten; denak, erretoreak ere, arrautz egosia artuaz. Apaizak ardoa jarriko zuen. Eskebatzea plazan buka oi zan.

Bildutakoa metatu, ta aren inguruan mutillak *jota-dantza* dantzatuko zuten. Mutil-kuadrillen Astearteko otordu-gaia au zen: ollo-zopa, aarikia, egazia, tortilla, txistorra ta urdaia.

Egun ortako erromeri ondoren, mutiko-dantza ta gizon-dantza. Ortan ziar dutela, Udalak ardoa banatuko zien dantzari ta ikusle oroi.

Orrelakoxeak ziran bada 1936 aurreko loteak. Geroztik ospa izan dira iñoiz, *mutil-kuadrillek* erabaki egunetan. Baña, ba dira iru urte, Etxalekuko loteak bertanbera utziak izan direla.

## MARKINA

Bizkai-erri polit ontan, *Eguen Zuri* ta *Txitxiburduntzi Eguna* deituraz ezagun da Ostegun Gizen jaia. Dakigunez, txitxia, aragia izanik, eta burduntzi berriz, erregallua, berokiek adirazten digute egun ortako oikuna; giro ona bada, mendian meriendatzekoa, alegia. Lukainka ta arrautzak maizenik. Txistorra erretzeko, burnizorrotz naiz makil muturrean ezarririk egiñ oi da.

Markinako mozorrotu ta txantxo-jantziei, kokoxak deitzen zieten. Igandez *kokoxak* etziran agiri, jairik nagusiena Martisen Karnabal edo *Antzar Egune* izaten bai zen. Egun ortan, kokoxak, txistularien soñura kaliak betetzen zituzten.

Arratsaldeko ordubitan asten zan antzar jokue. Egaztiok, Guenkalia edo *Amore-kaleko* alde batetik besteraño jarritako sokatik dilindan ipintzen zituzten. Zaldizkoak, jazkera berezirik gabe egiñ oi zuten ibillaldia Erdiko-kalean zear. Jolasa zaillagotzearren, zenbait lekutan bezela, antzarak lepoa olioiz bustia zuen, ta zaldizkoak berriz, beren lana errezagotu guraz, eskuak zaiaz igurtzita zeramazkiten. Joko bitartean, txistulariek jakiñeko doñua jo oi zuten, da, aren neurrira lotu bear zuen trotea zaldiak. Doñu orrezaz Patxi Arrarasek

dasaigu, antzarari kolpea bota aurretik, aide geldian, astiro-astiro jo bear zala, «Andante» edo «Marciale» moduan, baña egaztiari burua kolpez moztean, aide gero ta ariñagoan, *Allegreto* antzera<sup>66</sup>.

Antzarari lepoa moztu al izan zietenak, Zelai Txiki Belardiari bira emango zioten egaztia erakus-bearrez. Ondoren, erromeria ta aurreksua. Ta urrengo Domekan, joko-irabazleak beren lagunekin antzara-jana.

Gaur egun ez da Martisen Karnabalik edo Antzar Egunik Markinan.

## LEKEITIO

Markinan, Ostegun Gizen egunari, mendian su egin da meriendatzen zelako, *Txitxiburduntzi* deitzen bazioten, arrazoi beragatik Lekeitio, *Sasikoipe-tsu* izenez ezagun zuten. Oraindik ere badiraun Sasikoipetsuk damaio asiera, Iñauteri, Karnabal, edo Aratuzteei Lekeitio<sup>67</sup>.

Len, Sasikoipetsu arratsalde beranduan ikusten ziran *maxkariek* bat edo beste, iñularreko *arimaittakua* jotzean erretiratzen zirenak.

Lekeitio, Iñautez-jantziei, *marmoak* zeritzaien. Aratuzteak urreratzean, baziran ardangelak, «Perutxurena», «Petra Laca» ta «Severianon», Karnabal-erropak alogeratu ta arpegitakoak edo maskarak saltzen zituztenak.

Domekaz, marmorik etzan ikusten, Parrokiko atsalde-elizkizunak amaitu arte. Aurrak, kale-kantoiatik oiuka zioten: *amaitu da eleizakoa*. Ori entzutean, kaleak marmoz betetzen ziran. Erriak beste itxura bat artzen zuen, oso bestelakoa, Aratuzte-giro ta kolore bereziz jantzia ta soñu-zarataz betea.

Astelenez, «Estudiantina», ikasle-ereslari aldra aterako zan, praka ta alkandora zuriz, jake urdiñez, ta ezkerreko besotik bera kolorezko zintak eta buruan txapela beltza. Oñetan zapata arruntak.

Martitzen Karnabal *Turuturu Eguna* zen, goiz-goizetik marmo-jantziz ateratzekoa. Azken urteotan, Aratuzte Igandea umeen jaia izaten da. Aurrak, arrantzale ta nekazari erara jazten dira. *Turuturu Eguna* izena galdu da, baña, Martitzen Karnabalez, ume ta zarrak ere marmo jantzita dabiliz. Egun ortan atera oi da ume-estudiantina bat edo beste, ta baita aundien musikalaria molzorenbat ere. Oiek, orrelakotan oi duten jazkera bereziz apaindurik dijoaz, ta baita bruxa ta millarraiazko prakakin ere noiz edo noiz.

Eusebio M.<sup>a</sup> Azkuerenak ditugu emen dijoazen aapaldiok. 1900-garren urteko jaitan kantatuak, eta 1964-ean, «Aratuste Alai» taldekoek berrituak.

---

66. Francisco Arrarás Soto: *Navarra—temas de cultura popular: la danza*, 13 orr.

67. Ba da *biribilketa* Musikabanda ta pianorako *Sasikoipatsu* izenekoa, Udakiola J. M.-k rnodatua.





I

«Aratuste eguna dala ta  
Kalera gaur urteten dogu  
Gentia poses betetziarren  
Alegina egingo dogu.  
Negu txarrari  
Kazu ein barik  
Sabela bete  
Gaur egizu  
Antxoia ederra  
Agertutzian  
Sorrak gustijak  
Pagako zus.

II

Escuchad niñas encantadoras  
La armonía de nuestro cantar  
Y entre dulces caricias sonoras  
Pretendemos cariño hallar  
Pues preferimos  
Por ser mejores  
Vuestros amores  
Hoy merecer  
Cuando pedimos  
Que generosas  
Nos deis hermosas  
Vuestro querer.

III

Leki-to lako erri ederrik  
Inun be ezin degu billatu  
Bere plai eta kai ederrakin  
Ezin lezake guk ukatu  
Bertoko jente  
Amabli andik  
Itxoten dogu  
Guk sarija  
Poses beterik  
Selebratzeko  
Gaur gabeko  
Aparija.

IV

La alegría de nuestros cantares  
Siendo nuncio de dicha y humor  
No desprecies nuestros amores  
Os pedimos con mucho ardor.  
Que en este día  
Los estudiantes  
Buscan amantes  
Llenos de ardor.  
Y en su alegría  
Niñas amadas  
Dulces miradas  
Que den calor.

V

Talaitik eta portaleraño  
Bana banaka ezango zu  
Politagorik  
Leki-to baño  
Mundu guztijan ez daukazu.  
Arrantzaliak  
Euren lanian  
Bai ate tarrak  
Eure nian  
Ipiñi daigun  
Gure Leki-to  
Erri justijen  
Gan ganian.

VI

Sentimos mucho lequeitianitas  
Que nuestros cantos hagan final  
Os despedimos, niñas bonitas.  
Mas no olvidéis lo que es amar.  
Pues no penséis  
Que aunque vayamos  
Nos olvidamos  
De vuestra faz;  
Vivid alegres  
Niñas hermosas  
Hasta que vuelva  
El Carnaval<sup>68</sup>.

Eta ikasleri edo estudiantinari buruz ari galararik, aipatu dezagun 1827-gko. Iñauteri Asteartean Donostia'n azalduetako talde batek abestu zituanak. Ara emen:

Estribillo

«Graciosa tirana  
Preciosa sin par  
Con la Estudiantina  
Hoy vas a campar  
Cantemos alegres  
Viva el Carnaval  
Vivan las comparsas  
De San Sebastián».

---

68. 1972-garrengo San Antolin jaietako eratu agirian, Franzisko Okamika-k azaldu zitun erriarekiko beste gauz jakingarrien artean, «Aratuste Alai» Ikas-taldearen antolaketa ta egintzak. Guk gere aldetik, Feliziano Beobide tolosarra gogora nai genduke, Lekeitioko Eresbatz edo Musika-bandaren zuzendari izana 1920 aldean, da Aratuzte jaien laguntzalle bikaña.

### Bolero

«De la caridad somos  
Embajadores  
Pedimos lo que pueden  
O lo que quieren  
De aqueste modo  
Con algo se hace algo  
Aunque no el todo».

«Somos de la miseria  
Caricatura  
Como lo manifiesta  
Nuestra figura  
Y sin embargo  
Divertidos y alegres  
Siempre cantando»<sup>69</sup>.

*(Errukiaren ordezkariak gera, al dezakena edo nai dutena eskatzen dugu. One-laxe, zerbaitekin zerbait egiten da, guzti-guztia egiten ez ba-da ere).*

*(Mixeriarren karikatura bat gera, gure itxurak adieratzen dun bezela. Eta alaz ere jolasean eta alai beti abesten).*

## GERNIKA

Gernikan, Karnabalei *Aratozteak* deritzaie. Kinkuagesima aurreko igandez asten ziren festak. Lendabiziko egunak *Bazaratoste* zuen izena. Arratsaldean, gernikarrak mendiruntz jotzen zuten, lukainka, arrautz eta ur daia maniatu ta jatera. An, multzo bakoitzak bere erromeria eratzen zuen, txistu naiz ausposoñuaz, edota beingoan or asiko ziran paela ta eskueran zuten beste edozer-taz egundoko soñu-zarata atereaz. Kinkuagesima Igandea zen Aratozte Domeka. Goizetik, kukaña-jolasa eratzen zuten «Fueros» deritzan Enparan-tzan. Zilindro edo zur-biribil luze bat zen, iru-lau metro luzeko, ardatzean koka-tua, bi zur-astoen gaiñean. Oetako batek ikurriña zeraman. Zilindroa igierazten zuten etengabe, zankoloka aurreraka zijoanak garai-saria eskuratu arte. Ikuskizun biziki atsegiñ da alai benetan. Aratozte Astelen da Asteartez berritzen zan kukaña jolasa, ta geienak zerbait itxura aldaturik agertzen baizi-ran, *marro-jantziak* esaten zieten.

Martitzenaz, Fueros Enparantzan, amaikak aldean, aureskua dantzatzen zan, dantzariak *marrotuta* zirela. Auresku-ostean, plazan bertan, ollar-jokue. Parte artzen zuten «marrotuei» zapiz begiak estaltzen zizkieten, ez pata bat eman da ollarretik ogeitabost bat zentimetrora iru bira emanerazoko zien. Ollarra, gandoraldea ezik, lurperaturik zegon. Txistulariek inguruan txistua jotzen zuten. Doñu ori izaten zen jolastarien gidari; baña jolastu-guraz edo,

---

69. Bilbon bizi diran Izueta'ren ondorengoak zeukaten idazki baten kopia da, ain zuzen gure eskuetara etorria Jose Garmendia Arruabarrena borondate onari esker.

astiroegi jotzen zieten da naastuerazi. *Marroak* joko-lekutik ateratzen ba ziran, baztertuak gelditu bear zuten. Gandor-eballe trebeak zeramakin egazia beretzat.

Martitxen atsaldez, musikari taldeak kalez-kale zebiltzan. Eta, oiturari jarraiki, egun ortako otordutan ogi-txigortuak utsean banatzen zituzten jatetxe ta okiñarenean.

## ENKARTAZIOAK

Artzentalessen, Sopuertan, Truzios-en, ta ziur aski baita gañerako errietan ere, baten noski Karnabalez baserritan eskean ibiltzeko oitura. Panderoa joaz biltzen zuten lukainka, urdaiazpiko, arrautz eta intxaur. Oso nolabait jantzirik agertzen ziren. Batzuk arpegialdea beztua edo estalia zeramaten. Gaurarte iraun du alde aietan laute-kutsuzko legeak: txerri-anka ta muturrak saltsa miñetan da lurrezko paelan eginda jateko oiturak, alegia. Eta gañean ogi-txigortua, jaiari dagokionez<sup>70</sup>.

Artzentalesen, «Puente del Rolante» zubia daukate San Migel de Linares ta Traslaviña auzoarteko mugatzat. Karnabal asteartez, bi iribarrenetako gazteak, lautez-jantzirik, zubi ortantxe azaltzen zuten auzoarteko erra ta ikuseziña. Alkarri arrika erasotzen zioten amorruez beterik. Ospakizun gaizto ta iguingarri oek, bestetan ere berrituak, etzuten noski Artzentalesko Iñauterien alde asko esaten, alderantziz baizik.

Sopuerta ibarretik barna, sartalderuntz arkitzen da Artzentalessen, mendi-basoz inguratua, bere ixuralde ta malda belartsu ta orlegiak, artzaingo oroipenak dakarzkigutela. Bi eliz nausi ditu, Linaresko San Migel, eta Traslaviñako Santa Maria, garai bateko erriarteko konpondu-eziñen oroigarri<sup>71</sup>.

---

70. *Tostada* auek, *fotes* izeneko ogi luze batzutatik egiten dituzte. Zatitu ta gero esne-arrautzetan busti ta azukre ta kanelaz goza. Ondoren prejitu ta ateratzean kanela ta azukrez autseztu. Ba dira beste tostadak ere esne, iriñ ta arrautzez egiñak.

71. Eduardo de Eskarzaga: *Avellaneda y la Junta General de las Encartaciones*, 8 orr.

## Urteen zear erri-errietako iñauteriak

---

### OSTEGUN GIZAKUNDE, EMAKUNDE TA ORAKUNDE

Beste zenbait deituren artean, batzuk aitatu ditugu, Ostegun Gizen ezaguna da *Orakunde* izenez ere, aurreko bi ostegunez *Emakunde* ta *Gizakunde* ospatuz gero, noski. Eta au da ain zuzen «Orixe»-k *Euskaldunak* poeman ederki asko kanta diguna:

#### «GIZAKUNDE»

«Gizakunde len-eguna  
jainko txikiak diguna.  
Mutil gazte ta gizon elduak  
zainetan alaitasuna.  
An jauzi eta emen irrintzi,  
biguintzen dute belauna».

#### «EMAKUNDE»

«Urren ernakunde-eguna,  
jainko txikiak diguna.  
Argi orduko mutikoari  
oska asi zaio amuna.  
Ez du nagirik; argiago du  
atzoko bekoki illuna».

#### «ORAKUNDE»

«Azken Orakunde-eguna  
jainko txikiak diguna.  
Neska ta mutil, atso ta agure,  
dantzan ikusten tuguna.  
Oroen dela itzak berak du  
adirazpen ezaguna».

Iñauteri ospatzea ez da erri guzitan garai berean da egun jakiñetan izan oi, ta eraberean esan dezakegu *Gizakunde*, *Emakunde* ta *Orakunde* oietzaz ere, ez direla beti saillean zelebratzen.

Adibidez, Zarautzen, Urte Berriz asi ta Austerre egun arte zirauten<sup>72</sup>. Eta Oyartzunen, Yyotiak edo Karnabalak, mozorroturik ibil zitezkeala, Kandelari egunez asten ziran batzuentzat beintzat<sup>73</sup>.

## LEITZA

Leitzan, *lotegik* Garizuma aurreko iru egunetan jaitzen zituzten *-Zaldunio*, *Astelenio* ta *Asteartio*-z.- eta zomorrotuta zebiltzan gaztediaz gañera zaldiak berak ere. Zomorroturik zebiltzeneri atxoak deitzen zieten. Mutillek, txistulariarekin, Astelen da Asteartez eskatzen zuten. Astelenio goizetik erri-kaxkoa, ta Asteartioez baserriek ikustatzen zituzten. Biltzen zutenaz izaten zuten bi egunetako otordutarako. Atxoak zeritzanak, *amezkill*a jotzean, *lote-jantziz* ta arpegiurrekoz erantzirik, erromerian eskuartuko zuten.

Gaurkoan, ilbeltzaren irugarren igandez ta ondorengo astelen-asteartez eratzen dira *Festa Txikiak*, lengo lotegien orde. Erromeri ta eskebatzeak gaurdaño dirau, ta bi gazte taldek egiten dituzte. Txistu-soñuz dabiltz base-txez-basetxe, ta kale-etxeetan ostera, auspo-soñuz. Atxoak galdu ziran erabat, eta oraingo mutillen Iñaute-ezaugarri, sonbrerua, pañolua ta brusa dira.

## ARESO

Emen, Leizan bezela, Karnabalak, *lotegik* edo *loteik* izenez ezagutzen dira. Jai-ospakera ere berdiña zen, ez ordea egunen izenak, bada, Areson *Zaldunio*, *Astelenio* ta *Asteartio* deitzen dituzte.

Gazteak, beste ainbat lekutan dakusgunez, «Lagun Artea» Bazkunean alkaturik, Santa Ageda bezperan, zozketa-bidez aukeratzen zuten *mayordomua* ta bere *lagune*.

Ingurutxo dantza ta atsalde erdi arteko erromeriak osatzen zuen Zaldunio igandeko festa. Ondorengo bi egunetan ere berrituko zituzten dantza ta erromeria. La gun Artea-koek Astelenio ta Asteartio goizetan egiten zuten eskea. Lenengo egunean baserritan da asteartez kale-etxetan.

Gazteak, zakuz, emakume-arropaz da sonbreruz jantzirik, *atxauretuta* zebiltzan, txistulari-atabaleruak berekin zituztela. Maiodormu ta laguntzalleak, igandean, txistulari ta atabalariakin afaltzen zuten, da Astelenio-Asteartitaz, gosaldu, bazkaldu ta afaldu, *Lagun Artea* bazkideekin.

---

72. Juan Iruretagoiena: *Anuario de Eusko Folklore*, II, 192 urtea, 38-40 orr.

73. Manuel Lekuona: aip. lib., 25-27 orr.

Baña Areson ba zan Karnabaletan beste eskakunderik. Naranja-biltzea, arrautz-biltzea, ta orrezaz gañera, sagar, urrak, eta intxaurrak. Naranja-biltzea emezortzi urtez beerakoek egin zezaketen, ori bai zen oiturazko adiñ-muga Lagun Arteako bazkide izateko. Atxauretuta agertzen ziran, arpegi-zapiz batzuk, eta, kartoizko maskaraz bestetzuk. Edozer jazki soñeratzen zuten, da gerrialdean zintzarriak zeramazkiten.

Agintariak berak ere, oiturazko jazkeraz, eskea egiten zuten da bildua bere artean banatu. Gaur, Aresoko lotegik, egunez aldakor diran auek, ia-ia galduak dira zearo ez bada ere.

## ITUREN ETA ZUBIETA

Toki batzuetako Karnabaletan, Lantzen, Xiberoko maskaradetan Aresoko lotegietan, zintzarria garrantzizko gauza bezela agiri ez bada, oso bestelako moduz gertatzen da Ituren da Zubietako Iñauteriaz. Erri oetako laute-jaiak arras bereziak eldu dira guganaño, zintzarri edo yoareak direla ta. Ortik datozkie ainbat izen: *yoaldunak*, *Zampantzar* naiz *ttuntturroak*, daramaten buruko muturxorrotzagatik.

Zintzarria, Baztanen *garea* deitua, oraiñaldian etxeapaingarri bezela ain erabillia, berez dagokion zertarakoz gañera, baditu beste zenbait erabilkuntza.

Gudagaiari gagozkiola, antxidaldian, baditugu yoareekiko aitamenak. Ordungo edeskizunetan maiz arkitzen degu esaera au: gudariek burruka-tokian sartu zirala *zintzarri ixilka*.

Mitologi saillean, Zintzarriak ba du aztikeriarekiko zerikusirik. Bere soñuak ba-omen du indar ingurutako izpiritu gaiztoak uxatzeko. Ala dio esa-kun zaarrak: «ardiek zintzarri-jole borda barrenean, atarian elurra biaramo-nean». Da beste batek onela: «eskortako zaldiek zintzarri ixilla, geroz ta lodiago elurraren pillan». Azkuek dionez, Luzaiden, aberek zorigaitzetik babes nairik, ara zer dagiten. Zintzarritzar baten, ereñošto ta argizari bedeinkatua sartzen dute, ta eiz-egazti ezurra ur bedeinkatuz bustia. Aurretik apaizak onetsita sartu bear dira ioarean, da ongi estali ondoren, ataurrean jarri, bere gañetik aari, ardi ta axuriak igaro ditezen. Ate ortatik zear pasatako azienda ez du gaitzak joko. Adigarri bezela, ona-bitxizaieentzat, Antonio Donearen zintzarriaz, Azkue berak diguna.

Ba omen zen gizon bat, zintzarria eskuan, erriz-erri, Santuarentzat limosna eske zebillena. Etxe bakoitzean, yoarea urez bete ta berorrekin bedeinkatzen zituen abere, baratz da soloak. Ganaduren bat eri ba-lego, iru aldiz ixurtzen omen zuen ura txarrotik zintzarria ta zintzarritik txarrora. Eta ba-ziran norbaitzuk –Arrati-aldean beñepein– ur ori ikullun zabaldu ezezik, edan ere egiten zutenak<sup>74</sup>.

---

74. Resurrección María de Azkue: aip. lib., 30, 32 ta 34 orr.



Iturengo ttuntturroa



Zintzarria or dakusgu ainbat dantzari soiñetan, kuskulu antzera ezarririk damakitela, ta alargunen eztaietan ere, toberak jotzean, jendearen jolaspidez.

Iñauteriak, orobat, berekin dute yoare-soñua. Ori dala ta, sartuak gaituzu bada zintzarri gaiean.

Zubieta ta Iturengo gazteek, aurrez alkar arturik, Iñaute jaiok ospa oi dira, Erregeetatik asi ta Kinkuagesima ondorengo astearte bitarteko edozein astelen-as teartez.

Yoaldunak bi erri oietako mutillez osaturiko taldeak dira, baña zenbat ez dago erabakirik. Urtetik urtera aldatuz bai-dijoa aien kopurua, ta apika, baita egun batetik bestera ere.

Ituren-ek ba ditu bi Zampantzar talde; Ituren da Aurtitz auzoek bana, ta Zubietak, bat.

Astelen Iñautez, Zubietako taldeak, Iturengo erriari egiten dio ikustaldi, alkatearen baimenaz, eta biaramonean, iturendarrak biurtzen diote ikustaldia bere auzoari.

Yoaldunek, zuzen da begirune osoz betetzen dute beren egitekoa; zeregin sakratua bai-litzan. Patxi Arrarasek dio, Iñaute agerraldi ontako eresi-doñuek neurkera bikoitza duela<sup>75</sup>. Bi jaialdiotan, dantzari talde auek, beren gerriei neurri jakiñean eraginda, yoareak ozenki astinduz, izerdi-patsetan, asperkaitz eta etengabeko jardunean ari oi dira errietako kale ta trabenetan.

Zubietako yoaldunak alkandora zuria du; baña Iturengoak ardi-laruzko gerrontzea, bi solapa bulargaiñetara dituela, ta besoak gorri. Laruzko gerrikoa bearrezko du yoaldunak, bertan bai-dijoaz zintzarriak ezarririk. Lotukera ortantxe datza yoarearen soñu egokia.

Galtzak sarritan urdiñak, oiturazkoak, geienbat gona almidoitu txapalduaz belaunetaraño estaliak. Ez dira urte asko partanaz da laruzko abarkaz zebiltzala, baña orain, «zapiñak» eta gomazko zatak daramazkite. Dantzari oen gauzik nabarmenena buruko kapela degu, goibez metro erdikoa, ta *ttuntturro* izenez ezaguna. Bekaldea puntilla txulodunez ta kolorezko zintaz apaindua. Gaikaldetik, bigarren gañeko txanotxo du, pitxi-lanez ornia, aspaldiko gorularien antzekoa. Eta txuntxur-muturretik betikgora, ollar isats-luma.

Yoaldunak eskubiko eskuan zartallua, latigua darama, xipua deritzena. Egurrezko eskulekua du, zaldi isatseko zurdaz osatua, ta larru-azal da urrez-tatutako tatxuelaz josia. Berandutzean, Zampantzarrek astinkai onekin plaza-tik etxerazitzen ditu umeak.

---

75. Francisco Arrarás Soto: «Danzas de Navarra», *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, III urtea, 8 zenb. 178-179 orr.



*Iturengo yoaldunak*



*Zubietako yoaredunak eta Iturengo yoaldunak*

Zampantzar oek, bizkarrean bi yoare txiki dituzte mingain gabeak, lokarri batetik tiraizuan ezarririk. Gerrian, esan dugunez, bi *polunpak*, zintzarriak. Yoare oek, dantzaririk nekarazi gabe ta bear eztenean jotze ez dutela jarririk dauzkate. Iturenen ba da gizon bat joare-jartzalle, *maixu aparejadore* deitua. Zubietako yoaredunak eta Iturengo yoaldunak bi errenkadatan ibilli oi dira.

Ez dira oraindik urte asko, iturendarrak Santesteban albo-errira zijoaztela. Ortarako Elgorriaga erritik igaro bear, da alkateari baimen eske zijoazkion, onelatsu esanaz: *Nola nai duzu Elgorriagatik igarotzea, ixilik ala zintzarri yoka?* Ta Alkateak, aurrez errian ildakoren gorputzik ba-zenentz galdegiñik, erantzuten zien: yoka, yoka.

Ttuntturroek bein da berriz ikusiak ditugu beren agerraldietan. Zorionez, baita euren errietatik urrun ere. Urte asko ez dirala, Tolosan ezagutu al izan giñuzen, da Zaldibin, artzai-girozko erri ortan, udazken bateko iñularrez, lztuetari eskaiñi omenaldian.

Yoaredunek ikusteak benetan barru-zirrara sortarazten du. Beroien agerkeria, zintzarri soñu zaratatsu orrekin, ametsetan bezela jartzen gaitu, begien aurrean duguna ta irudimen sorkaria elkarbatu nairik. Gure erriaren leenaldira aldarazten gaitu<sup>76</sup>.

## UITZI

Larraun Ibarreko uitzitar gazteak, «Lagun Artea» Bazkunean elkarturik, agorraren zortzian, *mayordomoa* ta *bere lagune* aukeratzen dituzte, urtean zear izango diren erriko jaiak zeazkiro antola ditzaten. Uitziko *loteak*, ilbeltzaren seian asi oi dira geienetan, ta iru jai-egunetako erromeria ta azken bietako puska-biltzeaz osatzen dira. Mutil-gazteek, brusa naiz emakume gain-soñekoz da sonbreruz jantzirik, goiz batean etxe-jabe *bezinoak* bixitatu, ta urrengo goizean etxejabe ta maizterren ateak joko dituzte. Beren otordutako, Errietxeko gelak zabalik dituzte, ta «Mainea» ta «Angelenea» ardandegiak ere berdiñ. Erriak, utsean eskeñi oi du eun-da-ogeï litroko ardo-kupela. Azken erromeria etenaz, oitura zaarrari jarraiki, neska-mutillek txokolate-jana egitera biltzen ziren.

1936-garren urteko goitikako debeku-arte, loteak, Kinkuagesima edo lgandeiotez, ta Asteleniotez da Astearteiotez jaitu oi zituzten. Ostegun Giza-kundez zemaïoten loteei asiera. Gero, Emakunde zetorren Ostegun gizenez<sup>77</sup>.

---

76. Ezaguna dugu, Mariano Estornés Lasaren idazlan bat, argitara gabea, Zangotzako Idaz Jokoetan saritua 1968-an: *Los tunturros de Ituren y Zubieta* izenekoa.

77. Ikus *Anuario de Eusko Folklore*, 1922 urtea, 137 orr. «Orixe»-rentzat, Ostegun Gizen, *Gizakunde* zen, da *Emakunde* berriz, aurreko osteguna. Baña, tokiko zaarregandik dakigunez, jai egunen izenak ematean, akatsdun agertzen zaigu gure orexarra.

Gizakundez, neskak mutillari batetan lepotik eldu ta ala zion: *Zer aintzen diazu?* Erantzuna, zera izan zitekean, alegia; irriparrea, edota musu ematea, naiz esku-eskain, goxoki, pañelu ta abar.

Emakundez, burubide berberaz baliaturik, mutillek joango zitzaizkien neskei galdezka. Berebat, nexka-mutikoek batuketari ekingo zioten oiuz:

*Txistor mistor, emakunde; ematen duna leala, ematen eztuna zimurre.*

Ba dira bi urte Uitziko Gizakunde-Emakundeak erdi ixillean igarotzen direla. Lengo lotetan ingurutxo dantzatzan zuten, da gizaldi asiera arte, antzara jokue gertutzeari eman oi zioten. Jolas oietan eskuartzen zutenetik, batzuek alkandora zuriz eta bestetzuk brusadun azalduko ziran.

## **UZTEGI, GAINZA, INTZA TA AZKARATE, ARAIZ IBARREAN**

Gaintzan da Uztegin, Karnabalak, Kandelariz ospatuko zituzten. Aratozteak dira, beste zenbait tokitan bezelaxe, *loteak* deituak.

Erri oietako lotetan, orain ogeitamabi urte arte, Meza Nagusi ondoreko uzten zuten *antzarre jokue*. Jostaldi onezaz gañera, otsaillaren lenengoan, baserritako eskebatzea egingo zuten txistularia berekin zutela, gero, otordu billeran, dirutan naiz gauzetan bildutakoaren kontu emateko. Txistularia zuten plazan ere dantza-alaigarri, naiz ta azken aldian soñu-joleak ordeztu duen. Txistulari aietatik, zaarrenetik gazteenera, auek dira: «Ezkerra» edo «Miltxo», Gaintzako «Miltxonea» basetxekoa, Martin Migel Goikoetxea, Intzan jaio ta Gaintzan, «Arrazti» nekazari etxean bizitua, ta orregatik toki izenez ezaguna, ta Juan Antonio Sarasola Bedayokoa. *lote* auetan etzan, oi danez, itxuragabe jantzita ibiltzeko oiturarik. Geienaz ere, lepoko pañelu gorria jai-ezaugarri, ta kito. Lau urte bete dira Gaintzako *loteak* ezkuta zirala. Uztegin, Kandelariz ospatzeari jarraitzen diote oraindik, eskakizunik gabe ordea.

Intzan, ostera, Erregenetan da biaramonean *lote* jai egingo dute. Azken bolara ontan, Intzako *loteak* eskebatze ta dantza egitera urritu zaizkigu; baña, lenago, *antzarre* jokue ta guzti gerta oi zituzten.

Azkaraten, Kinkuagesima aurreko asteazken-ostegunak bereizten zituzten Karnabal jaitako. *lote* izenez baño *Emakunde* deituraz ezagunago ziran, noski. Ostegunetz zen Emakunde eguna, ta aurreko asteko egun berean, Gizakunde, mutillek neskari garrondotik elduaz galdetzen zionean: *Zer aintzen diazu?*

Azkarateko aizken *Antzarre* jokue, 1934-ko Emakundez gertatu zen, da ospakizun ontarako asteazkena, au da, Emakunde bezpera berezten zuten. Bi egun oietan txistu ta soñu jo ta ke zebiltzan, da gazteak tabernan, jakiz ongi osatutako mai-inguruan.

Mutillak Emakunde goiza artzen zuten eskerako. Ortarako bi kuadrilletan banatzen ziran: gazteena ta gartzetxoena. Biei entzuten zitzaien sarri, arako: *Txis-*



1934 gn. urteko antzarre jokurako prest, Azkaraten

*tor miztor, Emakunde*. Gazteenak igotzen ziran azken baserritarano. Gazte eldua-goak, Lagun Arteako bazkide puskabiltzalleak, neska ezkongairik egon ziteken etxeetan bakarrik atea jotzen zuten. Ark, bi pezetakoakin erantzungo zuen, aspal-diko oituraz, eta gañera amaiketakoarekin. Taldeko arduradun, alkateak zozketaz aukeratuari, *mayordomoa* zeritzaion, da bere betebearra len esandakoa bera zuen. Emeretzi urte dira orain-urrengo Emakundeak Azkaraten egin zituztela.

## ZIGA

Ez dira ainbeste urte Baztango Iñauteak Kinkuagesima ta ondorengo bi igandeetan jaitzen zirela. Zigan, Igande orren aurreko lau ostegunak jai eza-gutu dira: *Emakunde*, neska-gazteena; *Andrekunde*, emaztekiena; *Gizakunde*, gizonezkoena, ta *Orakunde*, Ostegun Gizen, oroena edo guziena.

Azken garaian, erri ontako Iñaute asiera Sexagesima Igandearekin batera zetorren. Eguneko festa, plazako erromeria soilki. Astelen goizetik, mutillak, txistu naiz esku-soñuz lagunduak, baserriz-baserra zebiltzen, da, otordua berriz, nun ordua egokitu, bertan goxo egiten zuten. Erromeria bukatzean, goizean bilduarekin ostatuan afaldu. Astearte goiz-partetik, atzera berriro eskera, alkarrekin bazkaltzeko. Arratsaldean erromeria.

Asteazkenez, kale-etxetako eskegintza. Atsalde erdiruntz, tortilla prestatzeari lotuko zaizkigu, plazaratzen direnei utsean eskaiñiz.

Ostegunez, esan bezela, Orakunde dugu, Zigako Iñaute azken-eguna. Aurreko egunetan bezela, berdin-berdin jarraituko dute goiz-eskeak, ostatuko otorduak eta erromeriak.

Alabaiña, Orakunde otordu ondoren, ollar joku moduko itxurapena eratu oi dute, egiazkoaren antz-antzeko. Jokalarien begiak estali, eskutan berak egin da etxean gordetako zurezko ezpata artu, ta saria irabazteko naikoa du lurperaturik dagon ollarraren gandor agiria ezpatatz ikuitzea.

Gazteak egunero ibiltzen dira Iñaute jantziz, Orakunde ostegunez izan ezik. Mozorrota batzuek arpegia ere estaltzen dute paiñoluaz. Ta Zigan ere ba dute oitura beste zenbait lekutan entzun dugunez, oiei kantatzeko: *Mozorro zinko, mukizu, sobera, sobera, badakazu*.

## ORONoz

Kinkuagesima baño bi-iru igandez lendik asten dira Iñauteriak Oronozen. Jai egun oek ospatzen dituzte: Iñau te Igandea, Astelen Iñaute, edo Iñaute biaramona, Astearte Iñaute edo Iñaute irugarrena. Gaurko jaitan galdu dira mozorroak eta aiei kantatzen zieten: *mozorro zinko*, ta abar.

Astelen-astearteko txistu ta soñuz egiten zen eskakundean, mutilletako batek arkume erretzeko *gerrena* darama, bertan lukainka ta urdai puskak ziztatzeko. Jaiak iraun arte, gazteak bazkari-afariak Erriko Etxean dagizkite.

Baztango Orakunde –Ostegun Gizen– umeen jaia da. Nexka-mutikoeak, paiñolu gorria lepotik, eta paperezko eskolan egindako txanoz jantzi-rik, eskean dabiltz, diru ta txistor, urdai ta guriña egiteko esnea biltzen. Gero, bilduarekin jatera biltzen dira eskolan, alkate, apaiz, txistulari ta agua-zillakin.

## BERUETE

Basaburua Nagusian Berueteko *lyoteak* ilbeltzaren bigarren amabostaldian datoz. Baña, 1936 arte, Garizuma aurreko iru igandetean jaitu oi ziren. Antziñako Iñauteri jaiok Berueteko auzotegi ontan, ospa-eguna izan ezik, gañerontzean gaurkoen kideko izaten ziran.

Ostegun Gizenez *Emakondo* jaitzen zuten, da au rreko ostegunez *Gizakondo*, aspaldi ontan aaztua.

Emakondo egunez, gizakiek, ezkondu naiz ezkongak beak, emaztekiei lepotik elduta, jakiñeko galdera ua egi ten zieten.

Larunbatean, bi edo iru aari iltzen zituzten; da orain tsuago berriz, txekorra. Bereala mutil gazteen aparta, *lyote* jaitako otordu ta beste antolaketak egiteko artu tako etxean.

Eta Igandez, *lyote* Eguna. Gaztetaldea eratzea, batetako gauza izan oi zan. Enparantzan maiz entzuten zan mutillen galdera: *Lagun artea sartu beao?* Edo ta, *Mutilleta joan beao?*

Gosariakin asten zan mutillentzat *lyote* Eguna. Berealaxe, kalejira, erronda, auspo-soñuaren aidera. Gazte geienak arpegi-agirian, bruxa ta lepo-koaz joan zitezken, edota emakume jantziz. Guziak mozorroak deituko zieten. Ingurutxo ta erromeriak betetzen zuen atsaldeko festa. Aurrez, ordea, mayordomo edo mutil nagusiak eta aren lagunak beren neskatxe billa bear zuten. Onen etxera bilduko ziran da an eskeñiko zieten txokolatea espo ja-urarekin da piperopilla. Plazaratzean, bi bikoteek dantzari asiera emango zioten. Ondoren ingurutxo ta erromeria illun-ezkille jo arte.

Astelenez zan *lyote* bigarrena. Gosal ostean puska biltzea bordaz-borda. Auspo soñua izango zuten bide-alaigarri. Mutillak, arrautz, urdai ta txistorra eskuratzen dituzte. Etxean neskarik ba zen, onek olloa zekarkien. Bi mutillek, egazia artu ta anketatik loturik, bizkarretik-bizkarrera daramakiten agatik zintzilik zekarten. Festa legea iru egunez beteko zuten, ingurutxo ta erromeri.

Astearte lyote egunari, aldrebes samar ba deritzaigu ere, ildako lagunena aldeko mezarekin zemaio ten asiera. Gosalduz gero, kale etxetan eskea egitea. Berueteko ostatuan Ezekiel Arano-ri entzun al izan genion batetako bertso saio luzea, eskebatzeari buruz. Basaburua Nagusiko gizaki kantari onen bertsoetatik, ona emen bi aapaldi:

«Bertsoak jarri bearttut lyotetarako,  
gañera gaztetasun dibersiorako.  
Auxen da onrra ona  
Euskalerrirako.»

«Orain asi bear det  
neskatxa oiekin.  
Konformatzen badira  
nere esanakin.  
Ortxe ibilliko gera  
makil zaar batekin,  
konbidatzen gaituzten  
ollotxo banakin.»

Astearte Iñautez, mutillak, erretorea zekarten berekin maikide. Eta arratsaldez, erromeri tarte batean, mutillek, neskak ekartzen zituzten beren bilde-txean txokolatea artzera. Erriak berealdetik, *izorrapotea* gertu oi zuen, ots, ardo egosia, kanelaz, piko ta gozagarriz festazale oroentzat.

## BETELU

Gizakundez asten ziran Beteluko loteak. Aren ondotik zetorren, Garizuma aurreko azken ostegunez, Emakunde. Gizakundez, neskatoek, mutikoei lepa-zamarretik elduaz, orrelako unean bestetatik ezaguna zaigun arako galdera ua egiten zieten. Eraberean, Emakundez, mutikoez izango ziren galderagille.

Igande-lotez, erromerikoan, *ñañarroak* edo mozorroak ertetzen zuten. Batzuk arpegia pañeluz estalirik, edo azken lotetan bezela, 1930 aldean, laute-jantziz itxuraldatu rik.

Nañarroek, illun-ezkillen soñura erretiratzen ziren.

Txistularien goiz-eresi bidez ekingo zioten Astelen-lote jaialdiari. Amarretan, *antzara jokua*k, emparantza zun bere antzez-leku. Zaldiak kuxkuldun lepokoak zeuzkaten zinta koloretako z apainduak, eta berdin isatsak ere.

Zaldunak, txapel zuriz edo gorriz, zinta koloreetako z apaindurik, atorra ta galtzak zuriak, sedazko pañolua lepotik, eta kolorezko zinta dun abarketa txuriak oñetan. Ba zeramakiten eskupelaiua ere, ezbearretatik beren buruak gorde asmoz. Taldeko buruzagia edo *kapitana*, ta *azkendaria*, buruko beltzez ta bere jaitako jazkeraz, iñolako dotorezirik gabe.





Azkarateko *antzarre jokuaren* leen gertakizunak. 1934

Jolasean sartzen ziran denak, Lagun Arteko bezela artuak zeuzkaten, naiz amalau, amasei edo emezortzi izan, oien kopurua ez bai zen urtero berdiña izaten, gutxi-goraberakoa baizik.

«Lagun Artea» Bazkuna, Erregenetako gabaz bildu oi zan, da bi *mayor-domo* aukeratuko zituzten, ta oien gain utziko jai-antolaketa ta gero aurrera eramatea ere.

Antzara-joku bakoitzean egazti oetako iru zintzilikatzen zituzten. Ikuski-zuna geiegi luza etzedin, Betelun, galerazia zegon antzar lepoa olio igurtzitzea.

Antzara-jokue bukatzean, zurezko uztai, urkabea zeritzanetik beretik, iru piperopil aundi berrogeibat zentimetrokoak ixikitzen zituzten, da piperopil bakoitzetik berriz, metal uztaitxoak dilindan. Zaldizkoak, andik igarotzean, eskuan zeraman kakoa utzi bear zuen uztaitxoan katiaturik. Eta guzietan kakoa ezarririk uztean, jokoa amaitzen zan. Antzara-joku naiz urkabeko piperopilletako ba zuten txistu soñu berezirik.

Erroskillak, Aurrendari edo Kapitanak, Azkendariak, eta Kontseju-etxeko trabenariak ordaindu bear zituzten. Piperopil puxkak, Lagun Artekoen aide ta adizkideen artean banatzen zituzten. Arratsaldean, ñañarroek aterako ziran da erromeria illun ezkillekin batera ixilduko zan.

Astearteiotez, oso goiz, txistu-soñua entzuten zan Beteluko kaleetan. Amarretan gaztedia plazaratuko zan. Lagun Artekoek, antzarajokurako moduz jantzirik, puska-biltzea zegiten, eguerdirako bukatu zedin. Ondoren, mutiko bakoitza plazara zihoan bere arreba edo auzokide batekin *ñañarro* itxurik gabe, ta karrika-dantzari ekingo zioten erri zear.

Aurrendari edo Kapitanak eta Azkendariak zortzikoa dantzatuko zuten. Dantzari atzetik ñañarroak zetozen. Karrika-dantzari azken emanda, Lagunartekoek, Kontsejuetxeko ardangelan elkaturik, bilduakin bazkaria egingo zuten.

Ezkonduak Asteartiotz ateratzen zuten ingurutxoak, ta Erriak jarriko zuen ardoa erromeri-zale guzientzat.

Austerre atsalde ere jai oso egiten zuten. Geienetan aizkora-jokoa izan oi zan. Azkenik, askok betetzen zuen lengo oitura zaarra, Elizara joan da autsa artzekoa.



## Uri ñauteria. Tolosa

---

Esanak esan, erri txikietako ñauteriei utzi ta urietakoei so dagiogun. Erri aundi, baserri girorik gabekotan, Karnabalak, argi ugariz, gurdi apaiñez ta mozorro-taldez ongi orniak izaten dira noski; baña, agian, itxura aundipean, kaletar ñauteri oek ez dute menditarrak aiñako jatortasunik. Uri ñauteriak, burruka bizian irauñ bear izan dute urteak zear, baña ez dituzte galduerazi oraindaño ez sarritan geuk ezagutu izan ditugun elizatiko erasoak, ezta Agintariak legunxeago-zorrotzxeago emandako debekapenak ere<sup>78</sup>. Uritar Karnabalak ezkutarazi ditu, lengo bizikera gaurko bizimoldeari egokitzen ez jakiteak. Berez galdu dira bada. Euskalerrian ordea, ba dugu bat oraindik ere, gerta alak gerta, bizirik dirauna: Tolosakoa, alegia, Kinkuagesima Igandez *-Zaldunitaz-* ta *Astelenita, Asteartitaz* andikiro ospatzen dena.

Bere zarrean jator irauñik, tolosar ñauteak, urteak zear berezkotasun zerbait galdu ba du ere, gero ta gazteago ta kementsuago ageri zaigula esan bear. Iraupen gogo indartsu batek bultzata, maiz gertakizuntxo xume dirudienetan tinkaturik, gaurko bizikerari itsatsia geldi zaigula derizkiogu Tolosako ñautea. Beragatik, ongi merezia duela uste dugu bere zer-nolako guziak emen zeazkiro ta arretaz jasotzea.

### ASIERAK

Tolosako Karnabalak basoerritakoeekin ba du iñondik ere zerikusirik. Antxiñaldian gaur baño askoz basetxe geiago izanik, beti ta nonai gerta oi denez,

---

78. Gai oni buruz, Aita Jose Franzisko de Islak (1703-1781), Donostiko Karnabalaz zion au aukera dugu: «Aratozte janedankerizko jai oek dira bada kristau errian berritzen direnak, esatebaterako, Donostian, uririk sinismengabeko ta oitura txarrenekoen izenik eztuelarik ere, alderantziz baizik, gizarterik fedetsuen, burutsuen da apalenetakoen izango dena, ta alaz gutiz, Donosti ortan bertan berritzen dituzte iru egunez Orritskeri jai oiek Jentillak berak lotsagarri, ausart, zatar, erligioaustalle ta eraman eziñak bezela jotzen zituztenak». *Sermones, V-garren alea*, 266-267 orr. (*El P. Isla vascófilo, Miscelanea de Comillas-en argitaratua*).

Eta Tolosakoaz ere, asteasuar Juan Bautista Agirrek (1742-1823), Lezoko ta Arantzazuko erromeriak Tolosakoekin bataratzen ditu, oitura onen kaltegarritzat joaz. (Juan San Martin-dik artua, *BSVAP*, XXVII alean, 3 ta 4 kuadernotan, 409 orr.).

garaiari zor zaizkion aldaketa batzuk gora-bera, gañerakoan, urteko jaikizunak berdintsu samar ospatuak izango ziran alde guzitan ziur asko. Badakigu Euskalerrian eskebatzea zenbait unetan oituraz egin oi zela, Karnabalez ezik, baita Gabon-egun da Santagedatan ere antxiña-antxiñatik. Lekuonak dasaigunez *legearekin kunpli dezagun* orrek adierazten digu garbi asko erri-oikun onen lengotasuna.

Orrela bada, baseritar Iñaute arekin uztartzen ditugu tolosar aundiki-etxe zenbait, gaurkoakin zerikusi dutenak batzuk, eta Isasti kondairalariak bere amazapigarren gizaldiko *Compendio historial*-en dakarrenez: Assurcia –Azurzi–, Bereterbide, Urquizu garaicoa –Urquizu gaikoa–, Urquizu azpicoa –Urquizu azpi–, Muñita –Munita–, Iparaguirre, Olarrain garaikoa –Olarrain gaikoa–, Olarrain azpikoa, Esolaga –Esola–, Hernandosoro –Errondosoro–, Isastegui, Mititegui –Mutitegui–, Picoaga, Torre de Lasarain –Torrea–, Elivia –Illibi–, Alliri –Allegui–, Erreca, Gorridi –Gorregui–, Anduain –Andoain–, Irizar, Berrano, Montescue, Iturrioz, Ezama, Echaboleta –Chaboleta–, Arraiechea –Arreche–, Illarramendi garaicoa, Illarramendi erdicoa, Illarramendi azpicoa, Ferrarategui –Perrategui–, Arrillaga, Amaro –Amaroz Aundi–, Eguzkiza –Eguskiza–, Ailaflor –Aillaflor–, Usalcain –Usaltzain–, Muxica, Zumagaray –Zumarain–, Sasoeta, guziak beste batzuekin batera Tolosako kondaira osatzen dutenak<sup>79</sup>.

Geroago, erria azitzen zijoan bezela, orduarteko baserri-kutsua galtzen joango zen noski baño noskiago. Ala adierazten digu 1788-an Tolosaz irakurtzen dugunak. alegia, ingurutako auzoek osatu zutela pixkabanaka erri-kaxkoa. Auzotxikia, Montezkue, san Blas, san Esteban, santa Luzia, Urkizu, ta Usabalko Iñauteriak, geldiro-geldiro kaleratuaz joango ziren. Ta emengo bizikera berriak, oitura berriak sortuko zituen. Gure egunotan ere begien aurrean gertatzen den gauza dugu orixe saill askotan gañera; aldakuntza aundiak eta azkarregiak nunai.

## **ALDABA TA BEDAIO AUZOETAKO IÑAUTERIAK**

Bi auzotegi oek ez ditugu len aitatu, beren tokigune bereziagatik; urrutia ta bakarria alegia, Tolosako kaletik, eta ori dela bide eutsi al izan diote ia gaurdaño, beren izaera apartekoari. Beraz, Tolosako uribarruan sartu aurretik, oietako Karnabalaz zertxobait ariko gera.

Aldaba etzan Tolosakin elkartu 1290 arte, IV Santxo erregeari erriak erosi zionean.

1936 urteraño ospatu zitun bere Karnabalak, Kin kuagesima igande ta urrango Asteartez. Mutillak arpegikorik gabe, emakume arropaz itxuraldatzen ziren, pañolua lepoan da lastatxapela buruan. Asteartez maizenik eskea egi-

---

79. Arrasto artean azaltzen zaizkigun izenak gaur erabiltzen diranak dira. Pedro Elosegui Irastzak, *Libro homenaje a Tolosa. VII centenario 1256-1956*. egindako zerrendatik artu ditugu.

ten zuten, txistu ta eskusoiñuaren aidera, otordu naiz meriendaz bukatzen zutelarik.

Bedaiok ba du zerbait berezirik, eta bi aldetara gaiñera: Tolosatik urrun bate-tik, eta naparroakin mugakide izatea bestetik, 1.256 metro-dun Artubi Aralarko gaillurrean<sup>80</sup>.

Santa Ageda bezperako eskebatzea sustrai andikoa zan. Illunabarrez, gazte talde bat txistulari ta koplaria berekin auzoko baserri-etxeak zear or ibi-lliko zan. 1931 arte irau zuen Santageda eskeak, ta Juan Antonio Sarasola erriko semea izan zuten azken txistulari, Migel Amondarain, beste bertako musikariaren ondorengo, «Arrupe» baserrikoa. Egun ontako eske oitura gal-tzeak, luzarorako ez baña Karnabaletako Igande, Astelen da astearteei ondo etorri zitzaion. 1934-garrenean Bedaioko Iñauteriak amaitu ziran.

Aurrerago, 1950 aldean izan zuen piztualdi, laburra ordea bera, bada andik lau urtera zearo itzali zen.

Bedaioko txantxo jantziak arpegi gorritan ibilli oi ziran. Abarka edo abar-ketak zituzten oñetan koloretako zintadunak. Soñean alkandora ta praka zuriak, iru puntako pañolo gorria lepoan, da gerrikoa ere gorria. Txapela bere-bat gorria, borla ta zinta koloretakoz. Igande goizeko eskebatze ondoren baz-karia erriko ostatuan da dantzaldia enparantzan. Astelen-Asteartetako dantza-jardunetan inguruxoa ta makil dantza etziran faltako.

Askotan aitatu dugun Juan Antonio Sarasola izan zen beste ainbat erri-tako bezela, emengo txistulari Iñau te alaitzalle. Tolosar jatorra, Bedaion jaioa dugu 1887 urtean. Garai aietako ttuntuneroak diotenez, auek ziran: errotako mutille, abelzaia, ikaskiñe, artzaia, ta abar; guziak bata besteai zaletasunak eragiñik eta erakustallerik gabe ikasiak<sup>81</sup>. Gure Sarasolak gogo-razitzen dizkigu oiek denak.

Bedaion, edozein egunetako illunabar ixiltsuan, baserri baten orma zarren artetik, txistu soñu menditarrak gure Erriaren antxiñaldia garamazki. «Zumitzketa» basetxea dugu bera, Sarasola txistulariaren sorlekua.

Euskaldun gizon au, gorputz bikañeko, arpegi zabal, sudur ez oso luzea, amaika ordu eder lagun urkoen bizi une garratzak poz-alaitzen emandakoa. Sarasolaren biribilketak eman zien tolosar auzo urruti ontako Iñauteri apal aiei azken agurra.

Itzul gaitezen baña Tolosako kalera, kaxko erdira. Emen, beste onen antzeko erritan bezela, Iñauteak, baserri kutsua galtzen zijoan neurrian, itxura berria artzen zuen, pixkana-pixkana uri azien kera berezia beregana-

---

80. *Monografía histórica de la villa de Tolosa*. Federico Zabala ta Juan Garmendia Larrañagak.

81. Aita José Antonio Donostia: *Historia de las danzas de Guipúzcoa con sus melodías anti-guas y sus versos*, 2 orr.

tzen, era askotara aberasten. Onela beraz, utsegite aundirik gabe ezagutu ditzakegu aspaldiko gure asaben Iñaute-jai aiek.

Egun oiek urreratzean, beti beti oietantxe izan ez badira ere, biltokitan baturik, sagardotegitan bereziki, batetako Iñaute-jolasak asmako zituzten noski jendearen alaigarri; ta andik aterako ziran bearbada kale zar estuetara, illartargiz gañera bestelako ere alkate-aginduz argitueta.

«Zazpi musikero gera  
jai arratsetan biltzen,  
eta denak kalei-kale  
kontentu gera ibiltzen;  
Joxe Lulu tronboi jotzen  
Tomax Mikak klarinetia,  
Pello Manu atzetikan,  
dantzan sagardoaz betia»<sup>82</sup>.

Ez dira iñolaz-ere onako bertso auek Tolosako sagardoa oso gora jasoko dutenak izango:

«Campotar Jaunac jaquin dezaten  
Esan nahi det nic, eguia  
Gurdi bat sagarri bota diote  
Illabeteko Euria».

«India mendi gogorretatic  
Ateratzen da urrea  
Eura Tolosan ibayetatic  
Indian baño obea».

«Donosti aldean eguin dituzte  
Sagardo guztia puruac  
Tolos onetan bildur dirade  
Galduditezten buruac».

«Sagardo onac eguitecotzat  
Guizonak ditu epelac  
Ur arreaquin betetecistec  
Tolosan diraden cupelac»<sup>83</sup>.

Erri-dei bat ba dugu ta ez aiñ añtxiñako, ta bearbada ezta guztiz Iñaute-kutsuzko ere, sagardotegiei buruz diarduena. Orra bera:

On Felipe Irazuzta, Tolosa Erriko Alkate Jaunak.

Auxe aditzera ematen du: Oartuaz nolabaiteko ibilkizun batzuk gizarte buruz-jantzitakoei ez dagozkienak direla, ta ortik etor ditezen ixkamill kaltegarriak, eta

---

<sup>82</sup> *La revista tolosana-tik* jasoa, 1927.

<sup>83</sup> José Garmendia Arruabarrena: *Obras inéditas de Iztueta: coplas a la sagardoa*, 78-80 orr.



Bedaioko txantxoak eta dantzariak





XIX gn. gizaldi azken-urtetako Iñauterietan, bi tolosar

edaritegiak berantordutan zabalik egotetik letorzken zalaparta ta ixtillubideak eragotzi nairik, erabaki oek artzen ditut:

1.- Iñaute iru egunez, ez da edaritegirik idekiko eguna argitu bano len, eta kafetegiak itxiko dira gabeko amabietan, ardandegiak amaiketn, da sagardotegiak amarretan.

2.- Edaritegi jabeek ezin dezaiokete ihori utzi ordu oietatik kanpo inolako moduz bertan egon ditezten.

3.- Edaritegi oietan zearo galeraziak daude nolabaiteko jokaerak, begirunelotsarik gabeak, gizartean itxura txarreko direnak eta oitura onen kaltezkoak.

4.- Toki Gietakoren baten, errietak, burrukak edo nolanaiko eragabekeriak gertatzean, jabeak, errizaitzalleei dei egin bear die, orrela, pakea biur dedin, da eziña balitz, zalapartariek baiturik ekar ditzatela.

5.- Norbait kale erdian mozkorturik arki ba ledi, iñorentzat edo norberetzat arrixkuan edo zaratatsu ta era txarrean ibilki, bereala errizaiek polizi-gelara derriorean ekar bezate.

6.- Gaizpidezko erronda zaratatsuen zuzendari, edo ihoren kaltetan, oituren aurka desegoki kalean dabiltzanak, diru-kentzez zigortuak izango dira, edo ta Juzkadura egotziak, gaiztakeriak merezi baldin ba du.

7.- Debekaturik dago eztandagarririk lerraraztea, itxaferuak botatzea ta edololako su-jolaskiñak aideratzea Agintari baimenik gabe.

Guzien onerako emanak diran agindu oek austen dituztenak zigortuak izango dira barrutiko gobernarien aldetik, edo ala badagokio, epai-maiekoben aldetik. Biztanle oroen zentzutasuna ezaguturik, benetan uste dugu ez nautela ortara beartuko

*Tolosan 1902-ko otsaillak 8.*

## **IÑAUTERI AGERLEKU NAGUSIENAK: Plaza Zarra–Plaza Berria<sup>84</sup>**

Luzaroan, Tolosako Iñauteri agertokirik nagusia Plaza Zarra izan da. Emen, 1672-an Udaletxea jaso zenetik, azokaz gañera, zezenak eta beste jaiak egiten ziran.

Eta bertan zuten baitere leku Karnabaletako dantzak, Gorosabelek digunez, 1764-eko agorrean udalaren aginduz kenduak. Gaur erri osoaren dantza deitua izango litzakena noski. Bertan eskuartzen zuten Alkate ta Pielaz gañera errietxeko denak. Esandako debekuaren agiria bere idazkera zaarra errespetatuz itzez-itx emana olaxe da:

---

84. 1893-an, Udaltzarrak artu zuen erabakia Plaza Zarrari Idiakez Enparantza deitzeko, ta Plaza Berriari berriz, Lege Zar edo Fueros Enparantza.

«Udaletxeko biltzarrean elkarturik gai au aztertu gendun astiro, alegia, Alkate ta Pielak libre geldi bear zutela Iñaute Igande ta Asteartean beste udalkideekin urteoro dantzan egin bear ortatik, festa ortan atsalde guzia emanaz, gero ur preskagarri, ardo gozo, bixkotxo ta txokolatea artu bearretik, oitura orren asiera nondiknorakoa den ere ez dakigularik, eta ainbeste lagunentzat oztopo ta alperrikako diru botatze izanik, geiegiikeri ori erauzi naiaz ta jendeak jolasaldi egokia izan dezan, erabaki dugu, datorren 1765-garren urtetik aurrera, ez dedilla izan Iñaute Igande ta Asteartez, Alkate ta Pielaren dantzarik ez errefreskorik bere etxeetan oraindano bezela, ta beroiek artara jarriko balira, berrogeitamar dukaten diru-zigorra ezartzea, ta orrela bildutakoa Agintedunei kastu ordainketarako banatzea, ta erabaki onek hear duen indarra izan dezan, Probintziko Corregidoreari bialtzea. Erri ontako... (*irakurgaitza*)...-ri, Migel Antonio Sasiain Epaimaieko Prokuradore, zeni damaiogun legezko eskubide egun oietan biltzen diranei urteoroko auteskundeetan gure agindu au jakinaraz dezaten».

1703-an Plaza Berria, Iribaratzeta zeritzan lurretan jasotzean, emen asiko ziren zezanak ematen, baña ez Karnabal festak; auek, Idiakez Enparantzan, lengo zarrean jarraituko bai zuten joan dan gizaldi erdirarte.

Gorosabelek dionez, gure arteko prantzitar-taldeak ere Iñautetan eskuarzen zuen. 1765-eko uztailez, ogeitalau marabedi diru eman zitzaizkion Juan Bautista Armendariz tabernariari, «prantzitarrek Iñauteetan, aspaldiko oitura danez, jaialdi ta dantzetan egindako kastuengatik». Eraberean, 1773-ko loreil-laren amalaeuan, amabi erreal da ogeitamabi marabedi Bizente Barelari, Astearte Iñautez prantzitar dantzarietara emandako arropa bat ardorengatik.

Errietxeko kontu-liburuetan, 1789-an, beste batzuen artean au ageri da: «onenbeste, Iñaute dantzetan eralkia»<sup>85</sup>.

1802-ko Iñaute Asteartez, Plaza Zarrean jasotako bi oltzagaiñetan, Amezketako Zabala ta Pernando Amezketarra, Ernaniko Txabalategi ta Tolosako Altamira aritu ziran bertsoetan. Lau bertsolari eskolagabeon saioak oso atsegiñ izan zitzaizkien entzuleei<sup>86</sup>.

Iztuetak ederki asko ezagutuko zitun jaialdi ontako xeetasun guziak, lekuko gertatu bai zan alabearrez Plaza Zarrean Errietxepeko presondegian, dana entzuteko aukerarik onenean<sup>87</sup>.

1703-ko argibide onek ba du Tolosako Iñauteekin zerikusirik aski. Garrantzizko baita geroko festaren azikerari buruz. Eta beste orrenbeste diokegu

---

85. *Udaletxeko Agiritegia*. Ar-emanen liburuan. C saillean. 2 Negoziaduan, I errenkadan. 4 Liburuan.

86. Juan Inazio Iztueta: aip. lib., 347 orr. Bertsolari oetzaz diarduela, On Manuel Lekuonak *Guipúzcoa* liburuan, *El bersolarismo* izenburudun idazlanean, Txabalategi aitutzen du. Ez ordea Gorosabelek. Onek, jai onetzaz ari dela bere *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*, 1899-an argit. I alea, 440 orrialdean, Txabalategi ez baño Erroicena dakar. Susmoa dugu, bi izen oien pean bertsolari bat eta bera izan ditekela. Ala dirudi beintzat.

87. Jesus Elosegi: Iztueta preso en Guipúzcoa-Logroño, *BSVAP*, XXVII urtea. 1-go. ta 2-go. kuadernotan. 1971, 23-24 orr.



Fueroen Eparantzian Inauteriak. Aurrez-aurre Udaletxea (1907)

XIX-garren gizaldi-erdiko egunetzaz, da baita gaurko Zezen Plaza pentsatu ta egin zuteneko urte aietzaz ere. Jaialdi aiek zerbait azter ditzagun.

Erri-agintaritzak, 1703-ko abenduaren 9-an erabakitzen du Erregearen urteak dirala ta jolasaldi batzuk eratzea. Abenduaren 16-an, Fernando Atodo Alkateak, agindu zuen urte ta il bereko 19-an, zezenak, «Plaza Zarrean ez baña Plaza Berrian izan zitezela, ta gertuketa lanetarako Erriak izendatuak, balia zitezkeala erri-basoetako egurraz»<sup>88</sup>.

Liburuak dakarrenez, elizbirakoan agintariek eraman zituzten berrogei errealeko kandela kastuagatik jakin al izan dugu elizkizun ori izan zela. Ba dakar beste diru emate bat ere Juan Ariznabarreta danbolinteruari, ta Juan Urrutia danborreruari, dolbeko erdi bana bakoitzari Erregeren urte egunetan ospatutako jaiari soñujotzen aritzeagatik.

Plaza Berrirako sarrera-txartelak zenbatean izango ziran, errotetarako burni ta iltzeekin batera naasian agertzen zaigu. Plaza Berriko lenengo zezenketaren diru-kastua berreun da larogei ta amalau erreal izan zan, da beste eun erreal egur-esiak ipiñi ta kentzea<sup>89</sup>.

## **TOLOSA GIPUZKOAKO URIBURU**

1844-ean da amar urtetarako, Tolosa Gipuzkoako Uriburu billakatuko zen, da ospakizun ori zela bide, Iñauteak sarrera aipagarria izango zun.

Ilbeltzaren 23-an tolosar musikarien jarduna etengabea izan zen. Soka-idiak erabili zituzten kaleetan da estropuak erre ziran gau-suetan. Udaletxeak etzuen aaztuta utziko parroko sakristaua, kanpai errepikatzeagatik sarituaz.

1844-ko Karnabalez bi dantzaketa eratu ziran Errukietxearen alde. Plaza Zarreko dantzalekua argitzen larogeamairu bujia-argi erreko ziran. Soñujoleen zuzendari Martin Lakarra ageri zan. Bi jaialdi oetan berreun da ogei-tabi sarrera txartel saldu ziran, berreun da larogei sei errealeko irabaziakin.

Iru egunetan ibilli zituzten soka-idiak kaleetan. Bedaioko idi bat eta idixkoa, Ordiziko bi idi, Garingoa bestea ta Alegriko beia.

Juan Ignazio Iztueta 1845-ean il zan; alaz guztiz izan zuen egokiera urte ortako Tolosako Iñauteriak gogoratzeko geroxeago dakuskegunez. Gai orri buruzko bertsoak ez dira oso ezagunak, baña beroiei esker dakigu festa aietan parte artu zuten batzuk zein da nolako ziran.

---

88. Erribarrutiko batzar-agirietan, 1703-garren abenduko 9 ta 16-an.

89. Erribarrutiko batzar-agirietan, 1704-garren jorraitaren amaseiean, abuztuaren emertzian eta agorren amazapian.

«Tolosako gazteria prestu leialak 1845-garren urteko zaldun-iñute egunean beren erriko langin maisuak irudikatuaz plazan eguitera dijoazen jostallu atseguingarria.»

#### MARCHA

«Zaldun-iñote egun gozo au  
dutelako guztiz pozgarria,  
jostaldiatu nai genduke guk  
maite degun jaiotz-erria  
izanik bada Iñoteria  
apropos artako jarria  
kantuz plazara gatoz dantzari  
gaur Tolosa-ko gazteria».

«Guidari artu degu Gonzalez  
Zanpanzar-tar ongui eguiña,  
izatez txalkorra bada ere,  
jakinduriaz txit abilla  
erritik errira ba lebilke  
au bezelako baten billa,  
plazan jendeari emateko  
pozkida eta atsegiña».

#### LANGUIÑEN ITZ-NEURTUAK

##### I

Guraiza txorrotxalle  
eta tonelguiña,  
erakustera datoz  
beren lan eguiña  
izan ezkeroztanik  
merkea ta piña,  
salduko da Tolosan  
nai duten adiña.

##### II

Dendari abilla ta  
arotz jakintsuna,  
ba dakigu Errira  
etorri zaizkuna  
modara apaintzeko  
auxen da fortuna  
bientzako Tolosa  
txit da leku ona.

##### III

Txapelaguiñarekin pelukaguillea,  
ba daki kizkururik  
edertzen illea  
laster aberasteko  
nolako idea?  
baldin ba lute beti  
irabazbidea.

IV

Ermentaria eta  
perra ifinlea  
bata gain-gañekoa  
bestea ohea  
ezagutuko dute,  
agudo ordea,  
burni ta mandorean  
matxura gordea.

V

Zapataguiñarekin  
eun-kolaria,  
gau ta egun oi dago  
neker jarria  
langintza mea dute  
bañan txit garbia,  
ustelak ezpadira  
larru ta arria.

VI

Pertz-arabatzalle ta  
txokolateguiña,  
gueienez ba dute  
oek zer eguiña  
bata nekatu arren  
bestea adiña,  
irabazia dute  
gutziz desberdiña<sup>90</sup>.

1845-eko Karnabaletan, xexenaz gañera, gela itxiko iru dantzaldi ta argi-suak. Mozorrotaldea ere azaldu zan neska-mutillez ta aur kantariz osatua. Sei ume ziran da arpegikodunak berak ere. Ogeitamairu musikari gazteen soñura dantzatu ziran, oien artean Joxe ttuntunerua ta Martin pregoilaria, Plaza Berriko oltza gaiñean. Emen kanta batzuk abestu zituzten, beroien itzak bertso-paperetan inguratuei zabalduaz.

1846-an jaitako bi lagun-talde agertu ziran, aurreko urtean Isabel II-garrena Erregiña erriratu zanean estrañengoz etorriak. Praintziko Erregegaien aurrean ere aritu ziren, da oek, eskersuki, tolosar mutillei bi orratz dotore, ta neskei bi besoko pitxi eman zieten, auek bereala zozketa bidez bereartean banatuaz. Festalari oen berri, zenbat lagunez osatzen ziren, da zernolako jazkeraz eta abar, berri batzuek emango ditugu. Jazkerak Udaletxearen mendean gelditu ziran.

---

90. José Garmendia Arruabarrenak argitara emanik *El Diario Vasco* egunkarian, 6-2-70-ekoan ezagutu giñuzen bertsoak.



1936 garrengo Inauterietan, soka-muturra



### ZUZENDARIENAK

Galtzak, bi pare  
Lebitak, bi  
Krespoizko gerrikoak, bi  
Perkalezko faja, bat  
Botak, bi pare  
Burrako kaxkoak, bi  
Makillak ojalatazko muturdunak, bi

### GERRALARIENAK

Puntozko prakak, zortzi pare  
Bruxak, zortzi  
Galtzerdi urdiñak, zortzi pare  
Kartoizko zinturoiak be.ren ezpatokerraz, zortzi  
Ojalatazko kateak, zortzi  
Buru-gordairuak, zortzi

### MUSIKARIENTZAT

Perkalezko lebita gorriak, ogeitamalau  
Faja urdiñak, ogeitamairu  
Krespoi illaunezko lepoko edo bufanda urdiñak, ogeitabi  
Polkazko txapel zuriak, ogeitamairu  
Algodoizko guante edo eskularru zuriak, emeretz pare  
Galtzetako perkalezko zerrenda gorriak, zortzi pare  
Perkalezko jake urdinak, ogeitamairu  
Perkalezko txapel urdirak, ogeitazortzi  
Prakatarako perkalezko zerrenda urdiñak, ogeitazortzi

### KANTARIENTZAT

Galtzak, ogei pare  
Perkal zurizko brusak, ogei  
Arrosa-kolorezko besotakoak, emezortzi pare  
Kartoizko lirak, ogei  
Arrosa kolore perkalezko fajak, ogei  
Zapatak, ogeitabat pare

### MUTIL-DANTZARIENTZAT

Lebitak, amabi  
Prakak, amabi  
Gomaioialezko lepoko oriak, amabi  
Gomaioialezko faja oriak, amabi  
Algodoizko esku-guante zuriak, amaika pare  
Onetakoak, amabi pare  
Txapel gorriak, amabi

### ANDEREÑOENTZAT

Galtzak, amabi pare  
Tafetanezko gerrontze urdiñak, amabi  
Gonabarrenetarako tafetan  
zerrendak, ogeitalau  
Galtzetarako-zerrendak, ogeitalau  
Buruko apaingarriak, amabi  
Arrosa-kolorezko tafetan mantalak, amabi  
Sedazko esku-guanteak, amaika pare  
Zapatak, amabi pare.

### ATERPEAREN PUXKAK

Bola bat, ojalatazko buruztaiarekin  
Burnigorrizko egal bat  
Gotikutar arkuak, amabi  
Zorrodun burniak, amabi  
Loresortak, amabi  
Lilisorta txikiak, dozena bat  
Gomaoialezko etxolak beren  
ezkurrekin, amabi  
Uztai zorrogabeak, ogeitalau  
Oltzagaiñ albotarako oiala  
Perkalezko ozkak, bederatzi.

1846-garren urte ortan, Martin Arrillaga arotzak, Iñautez egindako lanen ordaiñ-agiria luzatzen dio Udaletxeari. Onela ta onela:

«Plaza Zarreko sarbideak itxitzeagatik...». «Plazan ipintzeko egur da ol galdutakoengatik, eta 66 entenga ta 500 iltzeengatik...».

Ikaztegietaiko Franzisko Vitoriaren zekorrakin urte ontako Iñauteetan Plaza Zarrean azkenaldiz zezenketak egin zituzten, bada, urrengo urtetik, gero dakuskegunez, bi Plazatan izango ziran, da ez Zaarrean bakarrik. Arrillaga len aitatuagandik dakigu «...Plaza Zarra lau atekin itxitzeagatik... da Plaza Berria berdiñ, zezendegiko zurgai zarrez zerbait baliatuz, onenbeste lan-sari...».

1847-an eta urrengoan, festetarako baimen lortzeari dagozkien agiriak dijoaz emen.

«Gipuzkoako Goi Gobernu Politikua-Gobernaritza sailla.

Zuk, laun orrek, aurtengo ill onen bederatzian idazki bidez dagiguzun eskabideari erantzuki, alegia, iru mozorro-dantza egiñ al izateko ta uriburu ortakoek kaleetan txantxo-jantziz ihili ditezen oiturazko egun oietan; iñolako zalapartarik izango ez dela ustetan zure ardurapean zintzo jolasten diralarik ematen dizuegu gure baimena.

Jainkoak urte askotarako gorde zaitzala. Tolosan 1847-ko otsaillak 10. Juan Lopez de Otxoak izenpetua. Oiñean Udaletxe Jaun... (sic)».

Dantzak, Ostegun Gizenez, Kinkuagesima Igandez da urrengo Asteartez ospatu ziran. Oietako bat, Plaza Zarreko Errietxe Aretoan egin zan, da beste biak Plaza Berriko Batzar-gelan.

«Egun ortako paper-agirian agertzen didazunez jabeturik, nere baimena damaizut uriburu ortan mozorro-dantzak, xexenak eta sugarrak zuk bertan diozun arabera ospa al izan ditezen. Tolosan 1848-ko otsailak 28. Antonio Vicente de Parga. Uriburuko Alkate Jauna»<sup>91</sup>.

Legezko baimen emate oetan, festalari talderik aitatzen ez dan arren, ba dakigu 1848-ko Iñauterietan jai-talde bat beñepein izan zela, ta oltza gaiñean aritu zela Joxe Makario Irureta danbolinteroa zuzendari zutela, ta onek ogei erreal jaso zitula Errikoetxetik bere lanen truke. Oltza bustia zegon noski, bada bi anega terdi zaia ta laurdena area zabaldu bear izan zituzten legorke-tarako.

Festalari-taldea terliz txalekoz da beste paperezko jazkiz jantzia zegon. Geienek abarketak zeramazkiten oñetan. Amabi-bat mutill zijoazen emakumez jantzirik, eta denak, txistua lagun zutela kanta-saio batzuk egiñ ondoren, jendartean paperak zabaldu zituzten kantu-itzekin, Andres Gorosabelenean argitaratuak.

Bi dantzaldi izan ziran, da argiarena, garbitasunarena, alkiena, txartelak eta abarren gastua lareun da irurogeitabat erreal kostat zan. Orkestalarien aurre-kontua berriz, bosteun errealetaraño igo zen.

Iñaute ontako xexenak Lasturkoak izan ziran. Ostegun Gizenez iru ertelaldi egin zituzten; bat Igande goizez<sup>92</sup>; sei Astelenez –oietatik bat xexenzale talde batek iltzekoa– eta zortzi Asteartez.

Ganadu billa ibillitako arakin Inazio Nazabal'i, irurogei erreal. Beste erriko arakiñei berrogei erreak, «xexen zaitzen da korritzen parte arteagatik».

Iru gabaz sutzarretan erretako estropuen ordain-agiria, ta baita erabili ziran iru dozena banderillena ere, Antonio Gorostidi, Errukietxeko Mayordomoak izenpeturik agiri dira.

1848-ko Karnabalak Plaza Berria izan zuten bere gertaleku bakar, 1849-an zezen-jaitako egin ziran diru-kastuen agirian, bertako sarlekuak ixteagatik eman ziran jornalak azaltzen dira.

1847-tik gure gizaldi onen asialdiraño, Fueros deritzan Plaza Berria izango zen Tolosako jolastokirik bikaiñena.

---

91. *Udaletxeko Agirigordetegia*. B, Sailla. 6 Banakola. I Errenkada. 2 Liburua.

92. Arritzeko gauza izanik ere, Errietxeko agirigordetegian ez da Igande atsaldez izandako xexenketarik azaltzen.

1853-ko Iñautez, gau-dantzaldia eratu zan Igandean, da berrogeitamaika sarrera saldu ziran, da beste bat ere bai jende ugariagokin; Astearte gabaz eun da ogeitamabost txartel banatu bai-ziren.

1853-ko festa-kastuetan onako auek sartzen dira: orkesta, «apaintoki-zaia», «apaingelarako lurringaiak» eta berrogeitazazpi estropu gau-sutarako plaza argitzeko erreak. Karnabal egun oietako xexenetan da Plaza sarrerak itxitzen zenbat diru eralki zen gero esango degu.

## BESTE IÑAUTEAK

Tolosak uriburutza euki zueneko urteak alde batera utzirik, 1856-ko Karnabal jaitan izandako artu-emanen ondoren, beste urtetakoen antzekoak noski, oar bat agiri da onela diona:

«Plaza argitzea joandako urteetan larogeibat estropuekiñ egiña, biña errealean, eun da irurogei erreal guzira. Aurten, aizezko amasei atxakin egin da, ta iru erreal terdina, berrogeitamasei dira».

1861-ean Donostian, alako eguneko agiri-bidez Probintziko Gobernuak Tolosako alkateari eskubide damaio Astearte Iñautez maskara-dantza egiñ al dezan, oi dan bezela, ta xexen sokak iru egunez, da «mozorro-dantzak kaleetan txantxo jantziz izan ditezken».

1863-an, Ostegun Gizenari, Lardero izenez ere deitu zaio. Iñoiz, ta geroago ere, adibidez 1907-ko agirietan orrela ikusten dugu; baiña ortik aurrera, itxuraz, ez du arrera aundirik izan Lardero itz onek. 1863-ko Karnabal kostuen zerrendan azaltzen da soñujoleentzat enparantzan oltzagaña ipintzeagatik dagokiona.

1884-ko Karnabalak ikusgarriak, oi ezbezelakoak, marka-urratzalleak izan zirela esan da. Beraz, tolosarren oroitzan gogoangarri ta aipu andiko gertatu dira geroko ere. Urte ortan Tolosako kaleak igaro zituen «Zoro-taldeak», eta jai aietako baimen-agiriak berori aitatzen

«Ill onen 13-ko zure eskakizuna ikusiz, iru egunez xexen enbolatuekin, da dantzari-taldeekin, Plaza Berrian, nere baimena ematea erabaki dut, bertan jarriko diran egur-esi ta ol-mallak bear dan sendotasunez da segurantziz ipintzekotan. 1884-ko otsaillak 15».

*Zorotalde* onen kastuetarako –Inazio Mokoroari zor diogu une artako doñueri dagokion guzia– dirubilketa egin zen, da, zeñek eta garai artako arri-garri dena, erriko Erretore On Patrizio Okaitzegik zemakion asiera.

Udalak, urte artan, milla berreun da ogeitamasei pezeta ta berrogeitamairu xentimo eman zitun Iñautejaitako<sup>93</sup>. Eta jolaskizun eratzalleak eskerrak

---

93. 1884-ko Iñauteetan Udaletxeari Batzorde jaiertzalleek aurkeztu zioten ordain-agiria:

...



Plaza Berriko Inauteriaik, garai bateko Torik ekxearekin

emanaz zuzendu zieten izkribu batetik dakigu, Errikoetxeak asko lagundu zuela festalari-taldearen ondoren onerako.

1892-garrenean ordea, Udalak lareun pezeta jotzen du festetan eraiki bearra. Eta dirutza ori jai-eratzalle batzordeari eman ondoren, beronen gain uzten du festa antolaketa osoa.

## ENPARANTZA BERRIKO ZEZEN PLAZA

Plaza Berria zezenketatoki biurtzeak, bere garaian ardura ta begirapena bear zituen. Eta teknikuaren aztermiaketa ere bai, ondoren dakuskegunez.

On Bizente Unanue. San Fernando Erregetiar Akademiko etxe-eraikilleak, ikusmiatu ditut Plaza-Berrian jasotako ageri-esertokiak, kale-sarbideak eta beste Iñautaldi zezenketarako, ta oraingoz sendo daudela derizkiot; alabana, egun bate-tik bestera ustegabe mugidaren bat egin dezaketen ezkeru, aztertuko ditut berriru erriaren da agintarien segurantzirako. Orixen nuen esan bearreko nere eginkizuna bete dezadan, da ala izenpetzen dut Tolosan 1867-ko epaillak 3. Erriko etxegin-maixu izenpekodun:

Bizente Unanue

-----  
...

Pantaleon Alberdi, maixu arotzari, plaza itxi ta zezenetako ola-mallak jarri ta kentzeagatik.....	184,03	ptz.
Karnabalez ateratako zezen da larrabeingatik	552,50	"
Zezenketa bitartean atezai egon ziren serenoei, ta gau-argikuntza bereziagatik	15,00	"
Iñautez ogei dozena sutegalari erretzearena	60,00	"
Berdin, xexenentzat sei buru-lokarriengatik	30,00	"
Lasturko zezen da beien kontratatzaileari	45,00	"
Erriko Musika-taldeari, Iñaute jaitako jardunaldien eskusariz	150,00	"
Azkenik, festa eratzalle Bazkunari, jai-alaigarri batzuen aldera ordaindua	200,00	"
Guztira	1.236,53	"

Tolosan, 1884-ko epaillak 9


Arotz-lanak eta zezenketaren ordainkizuna xeekei ernana, onela duzu:

Amaika zezen plazaratzea, bakoitza 130 errealean, balioa.....	1.430	erreal
Lau zezen ateratze, 90 errealean, balioa.....	360	erreal
Bi bei plazaratzea, 90 errealean.....	180	erreal
Arazo oietan ibilli direnena.....	200	erreal
Ximon Makazagari ordezkotzagatik.....	40	erreal
Guztira.....	2.210	erreal

Pantaleon Alberdiren Arotztegia-Tolosa Tolosako Udaletxeari

Plazan egur-esi ta ol-mallak ipini ta kentzearena.....	426,50	erreal
Zuretan izandako kalte-koxkorrak.....	56,60	erreal
Berrogeitamar zur-abeak.....	100,25	erreal
Bumi birariaren konponketa, bixagrak, litzebiurrak eta untzaitzeak.....	75,75	erreal
Iltzeak.....	77,00	erreal
Guztira.....	736,10	erreal

CARTEL. 1884



### ZOROTALDEAREN MUSIKA. 1884 URTEA

1

Handwritten musical score for 'Zorotaldearen Musika' (1884), page 1. The score is in G major and 2/4 time. It features five parts: 'Raikus' (flute), 'Re' (voice), 'Orlaquinero' (piano), 'Ramos y arces' (bass), and a vocal line. The music is written in a traditional style with many slurs and ornaments.

2

Handwritten musical score for 'Zorotaldearen Musika' (1884), page 2. The score continues from page 1. It features five parts: 'Raikus' (flute), 'Re' (voice), 'Orlaquinero' (piano), 'Ramos y arces' (bass), and a vocal line. The music is written in a traditional style with many slurs and ornaments. A section is marked 'D.C. Lavatunero y mediano'.



3

Handwritten musical score for 'Iñauteria' (3). The score is written on ten staves. The first three staves are for a piano accompaniment, featuring a complex rhythmic pattern with many sixteenth and thirty-second notes. The fourth staff is the vocal line, starting with the word 'Balaitza' written above it. The score includes various musical notations such as clefs, time signatures, and dynamic markings like 'Fin' and 'a. l. h. h. h. Fin'.

4

Handwritten musical score for 'Iñauteria' (4). The score is written on ten staves. The first three staves are for a piano accompaniment, featuring a complex rhythmic pattern with many sixteenth and thirty-second notes. The fourth staff is the vocal line, starting with the word 'Balaitza' written above it. The score includes various musical notations such as clefs, time signatures, and dynamic markings like 'Fin' and 'a. l. h. h. h. Fin'.

1880-koa da Udalbatzak Plaza Berriko bizilagun batzuei bidali agiria:

«Plaza Berriko amalaugarren etxeko bi bizilekuak, eta 17, 19 ta 20-garren zenbakia duten balkoiek bear litzaken ainbat segurtasunik ez duten ezkerro, erabaki dut, jolaskizunak ari diranean, ez ditezela amar lagun baño geiago bertan kokatu, jakiñaraziaz, baldin ortik gora azalduko ba lira, ikuskizun bitartean itxiaraziak izango direla, adirazpen agiri au izenpetzen dudalarik, Tolosan 1880-ko otsaillak 6.

Jose Aranzabe. Izenpedun»<sup>94</sup>.

Alejandro Mugika etxegillearen izen-deiturez indarturik eta ainbat zertzelada dakarzkina ezkerro, jakingarri direla uste dugu Fueros Plazan 1898-go Iñautez egur-esiak jartzeko subasta baldintzak edo kondizioak. Agiri-papera urte bereko ilbeltzean noizkotua dago.

«Ipiñi bear diran olesiak, Udal aurrekaldeko ta Toilette aurretik zearrekoak dira; ta beste bi aldetako olesiak ere bai, bata-bestearekin ertzetan tratatuaz, zezenketatokia libre geldi dediñ, da kalealdeko sarbideak itxita.

Eser-malladi ta olesi auk bere lekuan jartzeko, erri almagenetako materiala bakarrik erabili bear da ta ez besterik.

Itxiturak osatzeko, lendik dauzkagun esiak luzetaka jarri bear dira, ta gañera-koa zutikako ta zear-egurrekin oinak ziri lodiz sendoturik.

Zear-zuntoiak zutikako enborrekin uztaitxo-bidez loturik.

Subastan lan ori artzen duenak zuraje guzia tresnatu ta gero berriz ataldu ta erriko gordetegian metatu bear ko du.

Lana beregaiñ artzen duenak, Udaletxeko arkitektuaren esanera jarri bearean arkitzen da, gauza osoari erabat begiraturik, naiz zeazkiro zati bakoitzari.

Udalak lanartzalleari irureun pezeta ordainduko dizkio.

Baldin alkiren batzuk berritu bearean gertako balitz, ortarako ipar piñuzko 23 x 10 zentimetroko agagatik Udalak ordaindu bekiro larogeitamar pezeta metro kubikoko ta bedi Ayuntamentua gelditzen denaren jabe.

Langintza ortan erabilitako iltzeteria subasta artzallearen kontura.

Festa ari den bitartean, bi langille gertu eukiko ditu beren lan-tresnekin, okereen-bat gerta baledi ere bereala zuzentzeko.

Esandako subastak irureun pezeta izango ditu oiñarri-lege...».

1902-ko Iñauterietako etzan jarri eserlekurik Plaza Berrian; esi-itxiturak bakarrik baizik, eta musikarien aterpea.

---

94. *Udal Idazgordetegia*. B sailla. 6 Banakuntza. I Errenkada. 2 lib.



Enparantza Berriko balkoi-palkoak (1903)

1908-an Erribatzarrak Plaza Berriko olesitarako zuraje guzia geien-emalle-ari saltzea erabaki zuen. 382,50-ean jo zuten egurtza osoaren balioa.

Gertakizuntxo bitxi bezela damaizutegu orain, Plaza Berritik kanpora zezenak egindako ertenaldiak.

1894-ko Astearte Iñautez, azken zezena plazako etxe baten bizikide nabaitu zen. Bebarrutik barrena, bigarren bizitzako atetik barrura sartu zan, zeuden guziak izuak arturik. Geienak umeak ziran, festa-ikusle etorrita zeudenak, eta balkoi batetik beste etxekora besotan pasa bear izan zituzten, aguro baña, zezen adarretatik libratuko ba ziran. Ordu erdia bear izan zuten zezena etxebarrutik atera ta torillera eramaten. Argibide oek, *El cantabrotik* jaso ditugu, 56 zenbakia, 1894 urtea, 8-2. Guk gere aldetik eta oso sinisgarri zaizkigunengandik entzunda dakigu<sup>95</sup>, etxe ori nuntsu kokatua zegon. Errondilla edo Pablo Gorosabel kaleko gaur 29-garren etxea dagon tokian, len bi ziran, sarrera Plaza-Berritik zutelarik. Txikiak ziran, da orain ere ikus deza-kegu errenkada ortan olakorik; aietako baten gertatu zan bada arestian konta dugun pasaizoa.

1896-an, Pedro Gorrotxategi Otegi, Fueros Plazako Kafetegijabeak:

«Udalari azaltzen dio, atzo atsaldean, laugarren zezena toriatzean, norbaitek kapa batekin begialdea estali ziola, ta abereak ikaturik, izugarrizko abiadan, nere kafetegiko kristaldun atea jo ta zearo txikitu zuela, bertaratuz ikus diteke-nez, piztiak erasota utzi zuen bezelaxe bai dago oraindik, Udalbatz orri eskatzen dio mesedez, izkribu onen egilleari, izandako kalteak ordaintzeko...»

Kafetegijabe onek toriatzalle traketsarengatik pentsatu ta esango zitue-nak ez dago azaldu bearrik.

Udalak, urte bereko otsaillaren 20-an egiñiko billeran artu zuen asmoa, Pedro Gorrotxategiri, zezenak Iñaute-Asteartez egindako okerrak, aurrez kal-tea zenbat zen arkitektoak neurtu ta ordaintzeko.

1904-ko Iñautetan ere ba, xexen bat biurri samarra gertatu zen. Esi gañetik jauzi egin da an ziak Errementari kalean zear, irixtatu ta erori zan arte; ordun, eldu ta torillera eraman al izan zuten.

## **ZEZEN PLAZA JASOTZEA**

1900-garren urteko uztailaren bian, zezen-plaza egiteko izendaturik zegoen Batzordeak ara zer jakiñerazi zion Udalari:

«Zezenketa eratzalleak beti gaizki ibilli dira Fuero Plazan naiz Justizikoan antola dituzten jolaskizunetan; orrek garbi adierazten digu beraz, Tolosan, edo

---

95. Andre Seberiana Orbegozo Vitoria, Plaza Berrian jaioak, gogoan dauka bere gurasoei entzunda, xexenarekiko gertalditxo xeblebre au.



Tolosako ikuspegi zati bat, gaurko Zezen-Tokia altxatzen ari ziranean. 1907

orrelako jairik emateari erabat utzi egin bear zaiola, edo ta bestela, berria jaso, zezenketarako bereziki, baña edonolako ikuskizunetarako, noraezeko gauza dela.

Bean izenpetzen duten lagunak, Zuk Jaun Orrek, Zezen Plaza Berria egiteko planoa gertu zezan izendaturiko Batzorde berezikoek, aditzera damaizute, naitaezko derizkiogula berori jasotzeari ekitea...».

Onekin, Erretengibel zeritzana itxi ta Errondilla Kalea 1815-an markatu zenean, Tolosako Iñauteak bere lengo esiak urratu zitun, da 1903-an Zezen Plaza eraikitzearekin, Iñaute jaien egikera berezia zearo aldaturik arkitu zen.

Alabaña, etzan 1903-ko urte ori izan enbolatuak Zezen Plaza Berrira eram zirenekoa. 1905-ean asmoa agertu zuten Astelen-Iñauteko ospakizuna zezen plaza berrira aldatzeko; baiñan jai-eratzalle Batzordeak nai izanarren, Ayuntamentuak erabakitzen du jaialdiak lengo plazan Jarraitzea.

Urte berean orobat, «Lagun Artea» Bazkunak, Karnabaletako gau-festa batzuk Justizi Plazara eramatea pentsatu zun, baña Udalaren aginduz, enparantza ortan euri egunetan bakarrik egingo ziran da ez bestetan.

«Lagun Arte» Bazkunak, azken bolaraz ain langille pizkor agertu zenak, 1895-eko Karnabalez, Udalbatza irriantzekotuz jaizale-talde bat kaleratu zuen. Iñote-kutsuzko agerkizun artan, ba ziran errizaiak, txuntxunero, turutalari, agaburudun edo makilkari eta abar; gerora, bere bildoki, Justizi Plazako, seigarren zenbakiko etxean bigarren bizitzan euki zuen<sup>96</sup>.

Justizi Plazan naiz beste lekutan Iñaute-jaiak egiteko baimena edo ukapena ematean, etzuten beti jokabide berdiña erabilli oi, aldakorra baizik urte batetik bestera edo beintzat Ayuntamentu bat edo beste izan.

Orrela bada, 1894-ean Tolosar Kasino-etxeko Zuzendari Batza «La Unión Republicana» zeritzanak Uribiltzarrari eskabide dagio, Justizi Plazan Iñaute-Igandez gabeko bederatzitan, su-ikusgarriak aideratze saioa egin, erriko Musika Bandak alaiturik, ta bidebatez zezen-suzkoa ateratzeko<sup>97</sup>. Ortarako, Eresbatzaren saioaldi ondotik, bestetako oiturari jarraiki, musikari-talde bera, Soziedadeak ordaindutako bengala-argiz argiturik, Justizi Plazara aldatuko litzake, ta bertan soñua jo amaikak arte, au da, «dena buka bear duen ordu mugaraño».

Udalbatzak, ilbeltzaren 26-ko billeran erabaki zuen, Musika-Bandak jo zezala Igande illuntzeko bederatziti terdiak arte Plaza Berrian, da berdin Asteartez, da bereala Justizi Plazara joan zitezkeela.

Esan dugunez, Udalak 1905-ean Lagun Arteari ukatu egin zion Iñaute-jolasik Justizi Plazan egitea. Baña urrengo urtean, Uribiltzarrak baimendu zuen Bazkun bera, len debekatu tokian soñua jotzeko.

---

96. Eraberean, «Denok-bat» 1900-ean sortutako Jolas-Bazkuna tarteko izan zen gizaldi asierako Iñauterietan.

97. Gogoan dugu «Txinparta» Bazkuntetik atera zan zezen-suzkoa, orain urte batzutako Iñautez.

Eta 1905 urtea aitatu dugun ezker, esan dezagun, Ostegun-Gizenez, Tolosako Orfeoia, Eduardo Mokoroaren zuzendaritzapean, entzunaldi bat ematea egokitu zela Plaza Berriko Musika-Biltoki aretoan. Au etzan izan Iñaute zelako noski, baña bai beste eres-jai batzuk Karnabal egitaraua aberasteko asmoz ekarriak. Ala aipa dezakegu Gazteizko Banda militarrek 1921-an, eman saioa, ta Tolosako Bandak adiarazia 1923 ta 1928-an.

1908-an Iñautetako zezen-agertokia aldatzen da. Ordundik pasa zan Fueros Plazatik Zezen-Plaza Berrira. Beraz, Tolosa zaarreko kale estuetatik, Iñauteak, arresiz aruntz bere burua azaltzen du, Laskuraingo landa zabale ra agertzen da. Federiko Zabalak eta nik idatzitako *Monografía histórica de la villa de Tolosa* liburuxkan diogunez, gertakizun ori dela bide, Iñaute-jaiak beste noruntzakoak artzen dute. Alaz guziz ere, Tolosa zarreko kaleak, Korreo edo Antonio Elosegirenak ta Fueros Plazak lenean jarraituko zuten; alegia, jendearen festa-lekurik artuenak izaten. Azkenengo au, dantzatokirik maiztuena, ta bestea berriz, zerialdea paper-zerrendaz ta zorualdea konfetiz jantzirik, kalerik alaitsuena<sup>98</sup>.

### **KONFETI PAPER APURRAK**

Konfeti paper-kondartxoak erabiltzeari buruz zegon araudia jendeari gogoraziz ba ditugu erri-dei batzuk. Bata 1901-eko Iñauteei dagokiona da.

Erri ontako Agintaritzak guziaz jakiñarazten dio Atzoko billeran erabaki zela, Iñaute-Igandez aurretik, «konfeti» botatzea batzuk egiten duten erara, galeraztea, ta Iñaute egunetan ere kolore batekoak bear duela izan, eta ganera, berriz botatzeko lurretik jaso gabea.

Agindu-ausleek multaz zigortuak izango dira, ta errizaiak, erabaki oek zintzo betearaziko dituzte.

Iñautez at, konfeti erabiltzearen geiegikeriaz, Errietxeko biltzarkide batek zionari gagozkio. Berak zesaigunez, 1902-an «konfeti pillotuengatik Elosegikaleetik igarotzea eziña zen, da ori erremediatzeko, zerbait egin bearra zegon».

Paper-kondartxo oek kolore bakarreko izan bear dutelakoa zergatik dan garbi dagola derizkiogu, bada orrela errezago ezagutzen baitira zikin da erabiliak diran ala ez.

Donostiko aldizkari *La perla euskara*-k otsaillaren 22-ko 1903-garren urtean atera zen aletik dakigu Konfeti delakoaren asera nondikakoa den. Parisko Irar-lantegi aundi, egutegiak zegizkiten baten, beroiek ixiki al izateko txulatu bearrean arkitzen ziran, da gero, ondakiñ karrokadak botatzen zituzten. Beiñola, esandako aldizkari ortan dagerkigunez, bi langille, jolaspidez, paper-apur oiek alkarri botaka asi ziren. Nagusiar oso gogozko izan omen zitzaion jolas ua ta agindu zuen apurtxoak zorroetan sartu ta Parisko Opera Antzokira eramateko. Ala, berak eta aurretik zabaldu zizkien adiskideek, mozorrotuei eskubeteka botatzen asi ziren, jendetzaren txalo andiak jasoaz.

---

98. 1908-ko jaietan zezenetarako saldu ziran sarrera-txarteletan 356 pezeta atera ziran.



Zezen-Tokian, 1913 gko. Inauteria



## KALE JAIK ETA BESTERIK EZ?

Tolosako Iñauteriei buruz, sarri entzun oi da kale-jaiak direla. Guk, ori ola denik iñolako moduz ukatzeke, uste dugu egitik urbillago gaudela esatean ez dela kaleko gauza soilki izan, beroien berri zeatzak dauzkagun garaitik ona beintzat. Eta emen ez gera ari areto-dantzei buruz, ori aspaldiko bezela naiko egiztaturik bai dugu, beste jolaskizun mota batzuezaz baizik. Diogunaren sendogarri, agerpide asko ekarri genitzake; baña uste dugu bat naikoa dela ta bera ez gaur-gaurkoa.

«Tolosako Uribatzar Txit Argia.

Juan de Mata, «Sociedad Dramática»-ko ordezkariak, Uri ontan lanean aritzea ohorezko duenak, Zuri Jaun Argitsu orri, zor zaizun begirunez, au dagerkizu Gure Lagundiari bere ekitaldi apalengatik egin zaion arrera ona ikusirik, Iñaute jaiak gerturatzean, Zuk Jaun orrek utzi zenigun agertokia, erabaki zanez, laga bealTeian arkitzen geranez, zugana jotziera erabaki dugu, lagun on batzuk bultzata, ta eskatzea, Iñaute iru egunez agerkizun batzuk emateko lekua utzi dezaiguzula ageriko gauza baida Plaza Zarreko areto ortan oiturazko dantzaldiak egin ditezkeela Iñaute-gunez; eta bidebatez beste ikuskizunetaz ere goza ditezke ala naiago dutenek, ez bai dira, dakizunez, guziak dantzazale, ta orrela bakoitza atsegiñen zaionera joan diteke naasketarik batere gabe. Ala bada, Zuri Jaun orri arren dagizu... Tolosan 1852-garrengo otsaillak 3<sup>99</sup>.

Otsaillaren 3-ko biltzar-agiritik dakigu Udalak onartu zuela antzerkitalde buruaren eskabidea.

## OSTEGUN GIZENETIK AUSTERREGUN ARTEKOA

Ditekena da azaldu degun Tolosako Iñautea, agian, beste egun batzuetan da ez beti egun jakifetan ospatu izana, baña garai batetik ona beintzat, Ostegun Gizen egun pozgarri ta zaratatsu ori du atariko, ta azken-muga berriz, Austerregun goibeltsua.

Jai-aurreko egunetan ordea, aurrak izaten dira beren kalez-kale alaitsuekin Iñauteri festen pregoilari. *Ostegun Gizen, Ostiral Melar, Larunbat Erdipurdi, Ilgande Iñauteri, Astelen Iñauteri, Astearte Iñauteri, Asteazken Austerre, ta Ostegunez, eskolara berriz ere*, erdal kanta-marmari ori, tolosar, da jatorriz ala ez diran bertakotuentzat ongi ezaguna da. «Piñata» Ilgandea, noizbeinka ospatu izana, 1893-tik aipatzen da.

Iñauteriak zear, jan-edan billerak erruz ugaltzen dira. Ostegun-Gizenez, Tolosan, sukalde gutxi izango dira txistor gabekorik, ta orobat ogitxigortua azken-jakitatzat artuko ez duenik<sup>100</sup>.

---

99. *Tolosa Errietxeko Agiri-gordetegia*. B sailla. 6 banategia. 2 errenkada. I lib.

100. Iñautaldiko maiazkeneko, ogi-txigor edo *torradak* dira, Pazko-jaiko *mokotsa* den bezela, ta Erramu Ilgandeko, ezti-apurkia, ta Eguberritakoa, intxaur-saltsa. M. Lekuona: *Euskalerrriaren alde* XVII alea, 1997 urtea, 50-56 orr.

## DANBORRADA

Ostegun-Gizen jaia goza ondoren, or dator Ostiral-Argal atseduneara. Danborradak erantsi dio berebiziko jaigiroa larunbat Erdipurdikoari. Agerkizun au, berez, etorkiña da izan, baña gauregun Iñaute festak zearo bereganatua du, naiz ta oraintsuarte urteorokoa gerta ez. Aipa ditzagun orain emen Bazkun batzuk eratutako danborradak.

1896-ean topatzen dugu lendabiziko danborrada Tolosan. Gure festetan gauza berria. «Lagun Artea» Biltokitik atera zen, Iñaute-Igandez goizeko zazpiretan. Oso egoki, lerro-lerroka igaro ziran, petrolio-latak astinduz Karnabal diana joaz edo<sup>101</sup>.

1904-koa berebat, «Lagun Artea» Bazkunak beregam artu zuen. Urte artako Larunbat-Erdipurdikoz, Sarriegiren doñura goratuko zuten ikurriña Biltokiko balkoian. Amabi barrilerok osatzen zuten taldea, ta bidegille gudari-sailak eta Erriko Musika Bandak, Zaldunita-Igande goizeko seiretan egin zuen ibillaldia.

1917-koa Tolosako Kasinoetxeak moldatua izan zen, «Diapasón» Musika Bandarekin. Danborrada ontan, Kasinotik aterako ziranetatik, ez lenengoa ta ez azkenengoa, ba zijoazen bi zaldun, jai-otsegille Maskaradun jende pilloaren aurretik an joango zen Lertxundi ezaguna, zaldunkiro, bere astame xelebrearen gaiñean.

1920-ko Ostegun Gizona jai egin zan, edo erdi-opor beintzat zenbait lantokitan ere. Zezenketa ondoren, Igarondo Bazkuneko Tamborrada saillean-saillean igaro zan, da gero, Larunbat Erdipurdikoz arratsaldeko seiterdietan berriro.

Tamborrada onen arteera orduaz ta Karnabaletako musika bukatze orduaz –gaueko amarretan, alegia,– oso eztabaida gogorra izan zen, erri-geienaren da Agintaritzaren artean. Itzezko burruka onek ekarri zuen azkenik bere ondorena, Ildiakez Plazan, ertzaiñ armatuekin gertatu indarketan.

1923-koak, «Diapasón» Musika-Bandarekin eratuak, arteera, Santa Klara kaleko dantzategi batetik egin zuen.

«Umore Ona» zeritzan Lagun-sailak, Inazio Mokoroak 1928-an kalez-kalea eskeñi zionak, beregain artuko zituen 1931, 32 ta 33-ean ateratako danborradak. Iñaute oietan, «Gure Txokoa» Musika-Bandak parte artu zun, da «Fortuna» ta «Iruña», lagun-sailletako gurdiapañak atera ziran<sup>102</sup>. Eta 1935-ean «Euskalduna» Bazkunak moldatu zuen, Joxe Ugarte, ezizenez «Urdiña» Danborrero-Nausi zelarik.

---

101. *El Cántabro*, IV urtea. 288 zenbakia, 1896-ko otsailak 19.

102. Karnabaletako entzukizun ezoitua gerta zen 1933-ko triki-tixa soiñua, Asteartez Zezen-plaza inguruan aritu zena.

1936 geroztik, «Kabila» Bazkuneko Tamborrada ezagutu gendun urte batzutan. Eta 1955-ezkerotik etengabe, «Arco Iris», «Veleta» ta «Kabila» Soziedadeak eraturik, «Tolosako Tanborrada Andia» deitua atera da<sup>103</sup>.

## ZEZENAK

Zezenketa ikuskizunak edo xexen enbolatuak, tolosarrontzat ganaderi sonatu den Lasturrera garamazki, «Xaka»deituraz ain ezaguna degun Antonio Artetxeren abelaztegiara.

Eta Lastur ori non den? Ba, Itziarrekin Debako bigarren auzotegia duzu berori<sup>104</sup>. Aspalditxotik, ogeitamar urte bai, menaarte artan abel-belardirik ez dagoela, baña alaz guztiz, izen orrekin ezagutzen dira gaur ere erri-jaitan erabiltzen direnak, lenbizikoak angoxeak zirelako, naiz ta guk Tolosara, Jaizkibel-dik eta Elduaiendik ere ekarriak izan.

Guda-aurretik –1936-39– zezenak sakabanaturik arkitzen ziran itxasaldeko ainbat basetxetan, da oso nekez bil zitezken Tolosan iru egunetarako bear ziran sei edo zazpi.

Jai jatorren auek galdu etzitezen, Lastur, Arriola ta Sasiola Deba-inguruko mendietan baserriz-baserrri lau zezen-koxkor bildu al izateko, zenbat neke eraman bear den, artan ibilli dabillenenak bakarrik daki<sup>105</sup>.

Zezenketak Tolosako Iñauteekin bat egñik ditugu, noski. Sarritan, Uribatzarrakin alkar arturik, jai-erakundea San Juanetan da Iñauteetan ere erriko norbaiten gain izaten zen. Ala dakuskegu 1886-ko otsaillez Azkoaga Prudentziori eskubide ematen zaiola bi xexenketaldi emateko, Iñaute lenen da bigarrenez, bi xexen enbolatu ibiltzekotan, da sarbidea erreal bian da balkoia pezetan, da beste bi korrida xexenzaleentzat, sarrera librean<sup>106</sup>.

Ez degu orratik aaztu bear ain ikuskizun bizi ta nabarmena den soka-muturra. Erriak oso berea izan du noski gure kaleetako soka-muturra, ta ez Tolosak bakarrik, aintziñatik gaurdaño, naiz ta gure egunetan aaztuxea euki. Diogunaren euskarri, orra lengo Donostian ain gogotsu egñiak, 1814-ko Iñauteetan ederki asko erakutsi zutenez, eta orain ia galduak. Garai artako Donostian gaiñera, suketa bildurgarriak ia erri osoa kixkalia zegoelarik, Iñaute irugarrenez, danboliñ soñura, «Idiyarena» joaz, atera egin zan kalera soka-muturra<sup>107</sup>.

---

103. 1960-an, Tamborrada onek estrañatuko zuan bere «Martxa, tolosar Juan Colmenerok moldatua. Azken urte auetan, Astelenitaz ateratzen da «Umeen Danborrada».

104. Eliz-mallan, Itziarrek ba du bere Santutegi-parrokia.

105. Arriz, Isaac Amonarriz. *Tolosa en fiestas* aldizkarian, 1967.

106. *Tolosako agirigordetegia*: batzar-agiri liburua.

107. Serapio Mugika: *Curiosidades históricas de San Sebastian*, 204-205 orr. Euskal kutsuzko donostiar Iñauteriei buruz, jakingarri da *Euskalerría* bilduma aztertzea ta *Auspoa* argitaldarioko Joxe Bizente Etxegarairen *Festara* alea, 35 ta 36 zenbakia. Iñaute onen musikari gagozkiola, on da ezagutzea Arozamena ta Garbizuren *Viejas canciones donostiarras-Donostiko kantu zarrak*. Uriburuko Aurrezki Kutxak argitaratua.

XIX-garren gizaldiko ogeigarren urte aldera, Tolosa, beste erri asko bezela guda-giroan sarturik zegonez, eta festa-gogorik gabe, etzuen alere bertanbera utzi soka-muturra. 1812-an, Udalak sarituko zun Fernando Fernandez, «Iñautez sokatzarrari jauzi egin da xexenaurrean lasterkatu zelako».

Erriko Udalak, iritzi ortako izanik, 1878 urtean, –biltzarkide batzuk erri-goerari so, aurkako zirala– geienen aburuz onartu zun, «Iñautez, oiturari jarraiki, bei-lasterkak eta danboliña kaleratzea»<sup>108</sup>. Eta 1937ko ilbeltzaren 8-an erabaki zuen Batzorde bat izendatzea Iñaute-jaiak antola zitzan, beroiek ain bakanak eta berarizkoak izanik gure Probintzian. Etzan ordea, gero dakus-gunez, ala gertatzera iritxi, ta asmo utsetan gelditu zen guzia alabearrez.

Baña, agian, bestela ezingo zanez, jolaskizun oek ba zuten etsairik aski, maxialari ugari. Oien artean aitatu bear dugu Aita Sebastián Mendiburu. Oyartzuar jesulagun zorrotz onek –Aita Villasantek, *Historia de la literatura vasca*-n digunez, bana-banako maixu ta gorengo izlari izatera eldu zenak–, maiz eraso oi zion errien jolas oiturai.

1748-an Asteasuko Udalari, arren eskatu zion, zezenketak erabat galezteko. Eta Udalak bera baño urrunago joanaz, berenez, oiturazko zan txun-txuna ere era gotzi egingo zun Ostegun-Gizen egunez. Beterriko erri au aipatu degun ezkerro, gañera zagun, Kontseju-etxea 1760-an idekiberri jaitako, Juan Batista Iraola tolosar toriatzallea eraman zutela. Jardunaldi orregatik, Iraolak eta bere taldeak, eun da berrogeitamar erreal jasoko zitun<sup>109</sup>.

Tolosan, beste erri batzutan bezela, ostiral arratsaldero, Garizuma garai-koak izan ezik, arakiñak il bear zuen idia kalez-kale soka-muturrean ateratzeko oitura zen. Oikun au XVIII-garren gizaldi-ondarrean galdu zan, opor egitera beartzen bai-zuen da orrela kaltegarri etsi ta ken<sup>110</sup>. Soka-muturra jai atsaldera alda zuten, baña etzuen luzaroko iraupenik izan. «Tolosako kalea pasara aundikoa izanik ortik zetozkion kalteengatik».

Ba dakigu baña, ba zala beste zergatirik ere ortarako. Goi-agintaritzaren agindua, alegia, zezenak kaleetan korritzea «egunez naiz gabaz» galerazten zuena. Ona emen Madriden, 1790-ko abuztuaren 30-ean emandako agiri jakingarriaren zati bat:

«Nik, On Karlos, Jainko graziz, Gaztelako, Leongo, Siziliatako, Naparroako Erregeak... aditzera damaizuet Kaleetan barrena zezenak soka-muturretik korrika ibiltzean egunez naiz gabez zenbat ondoren txar berekin dakarren ikusirik... ainbat eriotz, miñartze ta bestelako kalte, gure mendekoen arrixkuaz oarturik, nere kontseillariei eska nien bear ziren erabakiak ar zitzatela orrenbeste ezbear atzeratzeko.

---

108. U. A. 1878-ko otsaillaren 20-ko jaso-agiria.

109. Serapio Mugika: *Monografía de Asteasu*, 43-44 orr.

110. Arrazoi beragatik ezkutatu zen festa au Durangon. F. A. Veitia ta R. Echezarreta: aipatu lib., 161-162 orr.



Lege Zarreko Enparantzan, zezena

Orregatik beraz, debekatzen dugu sokaz kaleetan zezenak korrikatzea gabaz naiz egunez».

Eta 1805-ean, zezen- plazatan zezenak naiz zekorrak iltzea ere eragotzi egin zuten<sup>111</sup>.

Aurretik, 1774 urtean, Korregidoreak Kontseilluko Gobernariaren Ordena jakiñearazi zion Tolosako erriari:

«Nereganaño eldu dira Tolosako urian jolaspede aitzakiz gertatzen diren geiegi-keri ta neurritz-gorakoen berri, zezen enbolatu, dantzaldi ta beste jolasak direla ta.

Zu Jaun ori, oarrarazten zaitut, iñola ere ez dezazula utzi, gerta ala gerta, argikunderik, ez zezen enbolaturik eta ez dantzaketarik ere, bein illunduz gero<sup>112</sup>.

Ikus ditekenez, debekua gau-ikuskezunez bakarrik zegokion, da ala, 1776-an, Tolosako Udalak San Juan egunez xexenak izatea erabaki zuen. Baña, urrango urtean, Korregidoreak gogoraziko zien, Kontseilluaren ordena zutik zegoela: «Gipuzko errietan zezenketarik ez zekorketarik egitekoa, alegia». Orrela beraz, Tolosako Uribatzak agindu zuen, kaleburutatik esi-babesak kentzeko ta «San Juanetako idiak soka-muturretik kaleetan korrika ibiltzeari uzteko». 1779-an ordea, tolosar Agintariek lortu zuten San Juanez zezenketak egiteko baimena, «ixkamillak eta zorakeriak baztertzen saia zitezela gomendatuaz».

Erriko jaiei buruz dakizkigun berriei esker kontura gindezke nolakoak ziran urte aietako Iñauteriak zezenarekikotan. XVIII-garren gizaldi ondarrean, 1797-ko otsaillean, Joxe Elizaran arotzak, bere izenean da bere lagun langilleenean, zortzireun da berrogeitamabi erreale eskatzen zituen Plaza Berriko erri-espexean jasotako esibabesengatik.

Ondoren dijoa igaro-gizaldiko Iñaute-zezenketetan eralki dirutza. 1853-an zeatzki. Manuel Urangak izenpetua da.

Lasturko idi bat korritzea, Etxezarretaren beia ta Ibarrako Muñagorrirena, Ostegun Gizen arratsaldez .....	130 erreal
Iñaute igandez, amaiketan Altzoko Legarraren idiak eta Zizurkilko Odolkierrenak .....	60 erreal
Eta arratsaldean, bi Odolkierrenak, Legarrarena bat eta Amezketako beia .....	135 erreal
Astelen amaiketan, Bedaioko idia, auzo bereko beia ta Etxezarretakoa bestea .....	90 erreal
Eta arratsaldean, Altzoko Arizpe ta Jauregiaren idiak eta beste bat Bedaiokoa .....	120 erreal

111. *Euskalerrriaren alde* 4 urte, 76 ta 77 zenbakiak, 144 ta 148 orr.

112. Errietxeko agiria, 1774-28-6.

Asteartez, goizeko zazpiretan, Legarraren idia .....	15 erreal
Amaiketan, Arizpe ta Jauregiren idiak .....	60 erreal
Arratsaldean, Odolkiereren biak, Arizpe ta Jauregi ta Ibarako Muña- gorrirena .....	90 erreal
Ebakilleei eskupekoa .....	40 erreal
Lau egunez baratza-zaitzaleei .....	64 erreal
Guzira .....	804 erreal

*Tolosan, 1853-ko otsaillak 19*

1853-an Iñaute jaitako Plaza Berria itxitzea eun erreal kosta zan, da lanak Martin Felix Albizu arutzak egin zitun

Ogeitamabost urtez geroztik, 1888-an, Iñaute kastuen ordainkizuna onela zen:

Lasturera joan-etorria xexen aukeratzera .....	44,50 pta.
Sei Lastur zezenen bi ertentaldi, otsaillaren 12, 13 ta 14-ean, Simon Makazagari .....	430,- pta.
Andoaingo Matias Jauregiri bei baten bi ateraldigatik, otsaillaren 13 ta 14-ean .....	40,- pta.
Estanis Baztarrikari, zazpi bei ateraldi ta torillen konponketagatik .	155,- pta.
Ibarako Pedro Mari Agirreri idiaren arteera batengatik, Iñaute asteartez, goizeko zazpiretan .....	20,- pta.
Antonio Mokoroari iru dozena itxaferogatik .....	9,- pta.
Joxe Mari Irazuri, olesiak ipiñi ta ken .....	144,- pta.
Gauzaiak plaza-sarrerak gorde ta argi-paolak zaitu .....	21,- pta.
Oituraz gaiñetikoa .....	7,- pta.
.....	870,50 pta.
Musikariei eskusariz .....	50,- pta.
<sup>113</sup> Guzira .....	920,50 pta.

113. Agiri oek egiztatzean jabetu gera musikarien eskuerakutsia, Rufo Montilla Erriko Banda Zuzendar,arena dela. Joxe Mari Irazuri arutzaren ordain-agiria, bere lantokia Kuartel kalean euki zuena, errealetan jarria dago:

Zezendegi edo torilletan da kontsejuan olesiak jartzeagatik, Laborde etxe-aurrekoak barruan direla, jor-naletan eman bearra .....	526 erreal
Egur-josten erabili diran bost iltze-zorroen balioa .....	50 erreal
Guzira.....	576 erreal

1896-garrenean, Iñauteritako aurrekontua bederatzireun da irurogeitameretzi pezetaraño iritxi zan. Eta abel gorrien erterak, zeazkiro emanak, oek dituzu: Ostegun-Gizen egunean arratsaldez, bat; Igandez, goizetik bi ta atsaldez lau; astelenez, berdiñ; asteartez bi ateraldi goizetik eta bost atsaldez.

Urrengo urteko Iñauteaz zezenketa jai oiek bsrritu ziran; baña ez 1904ean. Urte ortan 1247 pezeta izan zen diru botakizuna, ta Batzorde jai-eratzalleak Udalari gaztiatu zion oiturazko xexenak aterako zirala, astelen goizekoa izan ezik<sup>114</sup>.

Tolosan, berrogeitairu urtek o geldialdi ondoren, agertu zan berriro kalean ia aazturik zegon soka-muturra. «Txinparta» bazkunaren egiñalei esker berragertu zen Errementari kalean 1934ko Iñautetan. Gauregun, Astelenita goizean, Santa María kalea du bere korrika-leku jakiña sokadun zezenak. Eta beste bazkun erriko bat degu orain, «Kabi Alai» deritzana, aspaldiko jolasklun onen iraunerazle.

Tolosan, Iñauterietako zezenketak beti ordainketarik gabe, utsaren truk izan direla entzun izan dugu; baña ori arin xamar esana dalakoan gaude. Eta zalantzarik batere izan ez dedin, emen dakargu erritar batek eta Udalak beren artean izandako artu-emana gai ortaz.

#### «Tolosako Udalbatzar Guztiz Argia

José Ramón Arrese. erri ontako bizilagunak. Zuri Jaun orri begiramen osoz agertzen dizu datozen Iñautetan bere gain artuko lukela, ongi ba derizkiozu, onako jaikizun au egitea Igande atsaldez, Lasturko lau xexen aterako dira, edota Goizuetakoak; oietatik lenengo biak banderillaz zulatuak eta beste bi erritar zezenzale-taldeak banderillatuak, zaktakaituak eta illak izango dira.

Astelenez bi xexen edo larrabei plazaratuko dira; ta astearte atsaldez lenengo biak banderillatu ta beste bi zaktakaituak eta illak; xexenak adar-babestuak edo enbolatuak izan bear dute ezbearrik gerta ez dedin. Jaialdi au egiñ al izateko, eskabide-egilleari, Zuk Jaun orrek, milla ta eun erreal eman bear dizkiozu, ta sarrera-txartel bakoitzagatik, igandean erreal bat kentzeko baimena, ta asteartean erreal bi, ta olesiak ipiñi ta ken, neronen gain, da.

Zuri Jaun orri, arren dagizu, gertu lanetarako ain denbora gutxi dagon ezkeru, lenbailen arazo onekikoa erabaki dezazula.

*Tolosan 1857-ko otsaillak 11*<sup>115</sup>.

Udalak, otsaillaren amairuan onartzen du Arrese jaunaren eskeintza,


«1856-garrengo ilbeltzeko billeran erabakiak kontuan izanik, eta Arrese plaza-artzalleak Ostegun-Gizenez ta Astelenita-goizez, oi denez, xexen edo idi ateratzea bere gain artzen duela adiraziz».

---

114. 1904-garrengo otsaillaren zortzi ta epaillaren zazpiko Biltzar-agiriak.

115. *Udal Agirigordetegia*. B saila. 6 banaketa. I errenkada. 2 lib.





«Txinparta» elkartetik soka-nuturra ateratzen da 1934 garrenean

## ESKEBATZEA

Orri oek zear, erri txikitako Karnabalei gagozkiola, eskabide legea maiz aitatu izan degu. Tolosako Iñaute gaurkoagoan ere ba ez da falta.

Batzenbatzuek Udalari gogor erantzun zioten, alegia, eske baimenaz baliaturik apari-meriendatan da parrandan botatzen zela gero jai-antolaketa-rako bildua. Alaz guziz, 1887-ko Igande Iñautez, «Laurak bat» txarangak, kalez-kalçkoa egin zuen idazkun au aurrekaldean zeramala: «On-egin: ez dugu ezer eskatzen, baña bai emana artzen».

Iñaute goiz artan bertan, Udalak, erritarren umoreaz kutsuturik, eta jai-giroari amor emanaz, Bandua joarazi zuen, egoki-asko, lengo erara. Jolas-talde batek, kitarra, bandurria ta txirula joaz, Asteartita-jaija alaitu zuen. Jolastaldeak gurdiaña zeraman ereño-abarrez orniturik.

1896-ko otsaillaren 10-ean, tolosar gazte batzuk, geientsuenak langi-lleak, Euskal Jolas taldea eratu nairik zebiltzan, beste zenbait ikuskizun artean, makil-dantza agertzeko asmoz, errian aspaldi ikusi gabea, ta aurrekua, Iñaute-Igande arratsaldez. Alabaiña, gurari eder oiek aurrera eramateko eskuarterik etzuten ezker, jantziak eta gañontzeko ainbat gauza jolasak prestatzeko bearrezko direnak, Udalari baimen billa joan zitzaizkion, jolas-taldeak kaleetan eskea egin al zezan Igande-Iñautez, eta baita soñujole bat ere utzi zezaiola kalean zear dantzariet alaitzeko.

Udalbatzarrak, otsaillaren amairuan artu-erabakiz. baimen eman zun jolastaldea kaleratu ta eskea egin zezan, errietzeko soñujole bat berekin zutela, baña «bere gogoz zijoakena» ta bere lan ordutatik kanpora.

1919-an, Musika Banda Munizipalak Eskolako Kantinarentzat eskea egin du, ta 1925-ko Igande-Iñautez, «Gure Txokoa» bazkuneko «Pertzalariek», Errukietxe Santuaren alde. Oietako irurogeirenbatek jardun zuten bere lanean urte bereko Igande-Iñautez<sup>116</sup>. Eta eskebatzetik at, diogun, Iñaute oietan Astelenitaz, «Gure Kayola» jolastaldea atera zela, beren izenari gogoz erantzuki. «Gure Kayola» bazkun onek 1932-ko Karnabalak gogoratzan dizkigu. Urte ontan jai-agerkizunik nabarienetako bezela, «Gure Txokoako» Artzai-Iñudeak aterako ziren<sup>117</sup>, da «Gran Coliseo Gure Kayola» zirkoa, Tolosako kaleetan ikusi den Iñaute-talderik ornituena, noski<sup>118</sup>. Urte ortako Iñautea, musika aldetik, txistulariz gaiñera, Erriko Bandaz, «Gure Txokoako» Bandaz, ta «Umore Ona» ta «Polvo y Paja»ko txarangaz, eta Asteartez baita Billabonako Bandaz ere osaturik agertu zen.

---

116. Tolosako Iñauteetan «pertzalariena» bein da berriz ikusi izandu da. Guk dakigunez, 1931-ean, da 1949-an «Gure Txokoa»-tik atera ziran, da 1965-ean «Peña Parrita»-tik.

117. 1929-an Bazkun ortatik irten ziran, «Los Arrantzales» taldea, bost gurdiaña, orkesta ta eundarnar kantaridun abestaldea.

118. «Gure Kayolakoe» erakutsia dute ongi asko beren zirkorako zaletasuna, bada, 1932-az gaiñera, 1929-an ta 1962-an agerraldia egin zuten.

## MOZORROTUEN AZKEN IÑAUTEA

1936-an, Donostiko Karnabalei buruz, iruzkin au egin

«Ia ez degu mozorroturik ikusi kaleetan, aurrak ere ezdira noski mozorrotu aurtan; alderdi zaarrean bakarrik ikusi al izan ditugu iru edo jau giza-zarpail eta beste bi-iru mari-bargasta mutil itxurazko. Alabaña, urte osoan arpegiestalidunak izanik, ta beraz, urte guzia Karnabal, askorentzat, Iñaute jaiak ospatzeak ez du zentzurik izan ere...».

Baña jai ua, gaurtik begiratuta, oargarri zaigu benetan. 1936-ko Karnabala, mozorrodun aizkenengoa izan zenez, ba dugu gerta zenetik onera naiko ikuspegi zabala xeekei azter dezagun Tolosan azaldu zuen jai-egikera.

Ostegun Gizenez, arratsaldeko ordubitan, Txistulari Taldeak bere jakiñeko ibillunea egin zuen Iñauteri zor tzikoa joaz.

Ibillune onek Idiakez Enparantzatik egin oi zun erteera, Solana Kale, Korreo, Gorriti Plaza ta Kale Nagusi zear, berriro lengo tokira biurtzeko.

Igandez, zortziretan, goiz-eresia Erriko Musika Bandak, eta bederatzitan Txistulariak. Goizetik, nor obeago leiaketara agertu ziran gurdiapainduak, jolastaldeak eta mozorrotuak, Udaletxe aurretik igaro bear zuten.

Arratsaldeko ordubiterditan, «La Musical Donostiarra» taldea zetorren. Iruterditan, Erriko Txistulari ta Banda ta «La Musical Donostiarra», Plaza Zaretik ate rako ziran da Zezen Plazara joan<sup>119</sup>.

Urte artan, Astelen-Iñauteaz, Tolosako «Fomento Comercial e Industrial»-en laguntzarekin, Umeentzat txantxo-jantzi leiaketa egin zan, da bertan «1936-ko Iñaute-nexka» ta «Iñaute-mutikoa» aukeratu ziran. Goizean, Zezen-plazan errikoi kirolak, eta arratsaldez, xexenak.

Asteartean, Alborada ondoren, «Gure Txokoa» Banda «euskal jazkera bereziz jantzia», «Pattar-zezenarengana» jo zuen. Goizaldetik, gurdiapaiñ, jolastalde ta mozorro sari-leiaketara agertuak, Idiakez Plazatik, saillean igaro ziran.

Ordubiterditan, Billabonako Musika Banda iristean, Txistularienakin da Tolosako Musika Bandarekin batera Zezen-plazara kalejira egingo zuten<sup>120</sup>.

---

119. Urte batzutatik ona, kalejira au geron zabarkeriz oso utzia daukagu, doñu-sorta aldetik eta nundik-norako ibilbide aldetik ere bai. Eta ori tamalgarri da, batez ere, zeaztasun batzuk besterik ez direla jakiñik, eta errex iraunazi leizkenak gañera. Ibilunerik aspaldikoena Idiakez-Plazatik atera oi da, Kale Nagusitik barrena, Gorriti Enparantzara eldu ta Korreo edo Elosegirenetik gora Kalez-kaleko jatorrenak bi dira: *Praiskuarena* ta *Irueta*, Iñaute-doñu-sortako zazpigarrena ta ama-laugarrena.

120. Karnabal ontan jardun ziran baitere «Piña Iruña» ta «Polvo y Paja» txaranga.

Or dijoakizu leiaketari Epaimaiak eman erabakia.

«Tolosako Udalak 1936-ko Iñautez antolatutako leiaketan Festa Batzordeko Jura-  
duak batzarturik, aobatez erabaki zuen:

Lenengo jolastaldeentzat lendabiziko sari eun pezetakoa, «Los afiladores»  
deituari.

Bigarren Lenengo saria berrogeitamar pezetakoa, oiñezko naiz zaldizkoentzat,  
«Laurel y Hardy y cameraman» zine-artistei, ta bigarrena ogeitabost pezetakoa, «Qué  
perras coges» maskarari<sup>121</sup>.

Irugarren gurdiapaiñekikoa sarigabe uztea etsi dute, iñor azaldu etzelarik .

### 1937-1943

1936-ko Iñauteriak gogoangarri ba zaizkigu, beroiek Iñaute-kondairan  
muga bat gerta direlako da noski. Iñaute-jai askorentzat, leendik galzori zebil-  
tzenak, badaezpadako giro kaxkarrean, urte au, ill-edo-biziko izango zen.  
1936 ondorengo urteetan larri ibilli ziran Tolosako Iñaute jaiok. Eta or ikusiko  
zen beroiek biziartzeko egijñalak zenbat balio izan zuen, bearbada, maiz  
gerta oi denez, beste ustekabeko gertariei zor zaielarik ere, or ikusiko zen  
Iñaute-jaiak erri gogoan zenbateraño erro sakonak boteak zituen.

Aipa dugu 1937-ko ilbeltzaren zortzian Udalbatzak artu zuen erabakia  
batzordea eratu zediñ urte artako Iñaute-jaiak gertutzeko. Andik egun gutxira  
ordea, illaren ogeian, gobernariak jai oek debeka baño len, Errietxeko batek,  
milla lagun da geigoko eliztar bazkun baten izenean eskatzen zion Udalbatzari,  
egun jakin aietan etzela egoki, ingurugauzei begiratuz, Iñaute-jairik egitea.

Alkateak, bere buruz arazoa azterturik, esan zuen:

«batzuen da besteen arrazoiak kontuan izanik, berari cterizkiola ortaraño erro  
zoi aztunik zegoenik, aurtengoz, oiturazko ziran jai ospatzeari uzteko, egun oie-  
tako xexenak, denetan jatorrenak eta aspaldikoenak zirelarik. ...azken biltzarrean  
erabaki zenez, jai-antolaketarako batzordea izendatzea, berak emango zituen  
berrien zai zegola, ia ze egitarau aurkezten zuen... da, bere iritzia zala, astele-  
neko xexenketa kentzea, ta berebat, musika-joaldiak laburtzea, lenetako pro-  
grama, oituraz beste, urrituaz. Jaiak kendu gabe; batezere xexenak, iñolare ez...»

Ondoren, zozketa bidez erabakitzera jo zuten, urte artan Iñauteri jaiak  
esan bezela ospatuko ziran, bai ala ez. Zozketaren emankizuna, zazpi  
baiezko ta zazpi ezetzko izan zen, Udalburuarenak gauza erabakiaz. «Jai  
egingo zan, beraz, baña jolaskizunak zerbait murriztuaz».

---

121. 1950-eko Astelen Iñautez atera ziran «Peña Parrita»-tik «Artistas de Hollywood» dei-  
tuak. Irurogeitamarbat bazkidedun jolastalde ugaria.



1943 gn. urteko Inauterietan, Zezen Tokiari bira

Udalbatzaren asmo au ordea bertanbera utzi bear izan zuten, urrengo ilbeltzaren 23-an egiñiko biltzar berezian. Bertan, Alkateak aditzera eman zuen, Gipuzko-Bizkaiko Gobernariak, Udal-idazkariari gaztiatua, alegia, ta onela ziona:

«jakiñik Tolosako Udalak Iñaute jaiak ospatzea erabaki duela, agintzen diela, berriro atsalde artan bertan bildu ta erabaki ori ezetzatu zezatela, ta on-egintzarako egin oi ziren jaiak bakarrik zutela bere baimena, ta ori, beste Igende batera aldatzekotan, baña Iñaute egunetan iñola ere ez. Geituaz gañera, artara jartzen ez baziran, Udalbatzetik botiak izango zirala».

Bereala bete-bearreko agiri ori dela bide, Udalbatzak artutako erabakia erabat baztertu zuen. Jai gorabera oek zirela ta, egunkari bateko berriemleak onela zion:

«Badakizute Iñauteriei buruz Udalak zituen asmoak, baña len artutakoei ukapena eman bearrean arkitu da alabearrez. Ez da bada esandako xexenketarik izango aurten Iñaute-igandez».

Andik gutxira, Udalak, Erretore Jaunaren deia jasoko zuen otsaillaren 7-an «arratsaldeko lauretan kaleetan barna egingo zan Gurutzbidera». Eta illaren lenengo egunakin batera, Gobernariak telegrama bat igorriko zien esanaz:

«Direla zenbait egun, Karnabalak ospatzeko gogoa agertu zenutenei nere ezetzko biribilla bota ba nizuen ere, gaur berriro jakiñarazten dizuet, olako festarik egiteko asmoari nere erabateko ukapena, aberriarekiko ditugun betebearrak une ontan eragozten duelako».

Onelako jai ospakizun gora-berei iges egin dion erririk ez da munduan, da gañera, zalantzaldi au igaroz gero, garrantzi gabeko gauzak dirala oartzen baigera.

Tolosan jai-lege ezberdiña erabiltze ori, Iñauteriz at, San Juan jaitara ere iritxi izan oi da.

Luzaro gabe, 1937-ko Astelenitaz, gudak eman zuen egokieraz ongi baliatuz, Tolosako iñauteak bere lenengo urrats berriak ematen ditu. Jaien kinka larrian, betiko etsaien erasoek, moralista arrote batzuekin alkaturik, jasan bearrean arkitzen da, ta orregatik, bizi-zantzu aundirik ezin ba eman. Baña, erdibildurrez, ta ofizialki ez bada ere, nola-ala, beti jaitu izan da. Erri-arnasak beroturik eta Agintarien sorgortasunari esker –noizbaitutan, ixilikako laguntza ere bai noski–, laister ikus dezakegunez, pixkanaka ta urtez-urte, iritxiko zen berriro lengo bere izaera jatorrera.

1940 urte-asieran, Iñaute aurretik, Musika Banda, Udalarena izatea lortu nai litzake, galdua baizuen udaltartasuna gerra zela bide. Binbitartean, Erribatza, Iñauteriak nola moldatu asmatzen ari zen.

Andik egun gutxitara, ilbeltzaren 31-ko billeran, Udalkide batek, «tolosar gaztedi-giroaz jabeturik», Iñaute-jaitako zezenak eskatu zituen ausarki, «debe-



Zaarrak eta gazteak Inauterietan saltoka

## AVISO AL PUBLICO.

**H**abiendo desaparecido por los esfuerzos combinados del valeroso Ejército y de la lealtad de los vasco-Navarros las facciones reunidas de los cabecillas Balmaseda y Palacios, ha cesado felizmente la causa desagradable que motivó la suspensión de las funciones con que la villa de Tolosa se proponia celebrar la festividad de su patrono S. Juan Bautista en los dias 24, 25 y 26 de Junio último.

En consecuencia tendran lugar en iguales dias del corriente Julio y el prospecto anteriormente publicado recibirá ejecución en todas sus partes sin ninguna omision.

Tolosa 8 de Julio de 1840.



katuak zeudela jakiñaren gañean». Eskabide oni, Udal-buruak erantzun zion, «ortarako buruzpideak aginte-bidez kanpotik, edo bestela, erriko jolas-bazkunez baliaturik egin zitezkeela». Esan zagun baitere, Udalbatz guzia bere buru zanarekin irizkide agertu zela. Urte ortan, 1940-an, zazpi enbolatu edo adar gordeak korrikatu ziran, alajaña.

1942-ko Iñautez, amabost xexen-ateraldi egin ziran: amar Igandez da bost Astelenez, aien kostua 5.182,05 pezeta izan zen.

1943 urtean Iñauteak iritxi zun bere elduaroa<sup>122</sup>. Iñaute orixe da ain zuzen, Astelen-Iñauteko zezenketa ezik, gaureguneraño eldu dena. Berori litzake beraz, urrenez-urren, gure idazlan onen jomuga.

Jai-jolasen Batzorde Buruak izenpetutako izkribuan, Txistu Bandako zuzendariari bidalian, gero agertuko dugunez, an dakuskegu, 1943 urte ortan, Astearte-Iñaute bere lengo goimaillara iritxi zela. Orduan atera zan berriro goiz-eresi edo Alborada. Iñaute azken-egun alaitsu onekin jaiak zearo borobilduko ziren. Baiñan idazki orren aurretik bijoakizue emen urte ortan egiñ zan Egitarauaren itzulpena.

1943

EPAILLA

#### JAI BATZORDEAK

Udaletxe agurgarriarekin batera, oitura zaar bati jarraiki,

«Udaberri Jaiak» dirala-ta, onela eratu du bere

#### JAI EGITARAUA

*Illak 6. -Larunbata.*

«Kabila» Lagunarte Jolasgilleak eraturik, gabeko zortziretan aterako da bere biltokitik

#### DANBORRADA

Udaletxeko Eresi-Bandarekin batera, erriko kaleetatik zear ibillaldi au egitera Agintari Kalea, Idiakex Enparantza (geldiunea), Kale Nagusia, Gorriti, Elozegi («Gure Txokoan» geldiunea), Errementeri Kalea («Txinparta»-n geldiunea), Furoen Enparantza (Geldiunea), Gorriti, Gorosabel, lustizi Enparantza (geldiunea), Beotibar, Kuartel, Eskolapio Enparantza, Portal, Konde Ibar, Santa Maria («Veleta», «Gure Kayola» eta «Kabi Alai» biltokien aurrean gelditurik) eta Agintari Kalea,

10-etatik 12-tara, -Furoen Enparantzaz Udaletxeko Eres-Bandak dantza saioak joko ditu.

*Illak 7. -Igandea.*

Goizeko seiretan. -Txistularien goiz-eresia,

Zazpiretan. -Udaletxeko Eres-Bandaren goiz-eresia.

Zortziterdian. -«Txinparta» Jolasgille Elkartearen bazkideak eratuta, oiturazko den

---

122. Festa oen kastua 7.060,75 pezetara iritxi zan, oietatik 1.950, lau Jolas Bazkunei dagozkienak dira.



Tolosa Inaute egunsentian

  
**LEIZORAK**      **1943**

**LA COMISION DE FESTEJOS**

De acuerdo con el Excmo. Ayuntamiento, el  
 querido colectivo invitado, lo organizamos  
 los señores de los Ayntos de Pasaia el  
 siguiente programa de

**FESTEJOS**

-----

**DIA 6. VIERNES.** A las 8 de la noche Organiza-  
 ción por el pueblo de San Sebastián. CAE de San Sebastián y  
 de Pasaia, en el teatro de Pasaia.

**TAMBORRADA**

que será a las 10 de la noche, en el teatro de la ca-  
 liza de Pasaia, con el siguiente programa: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia. A las 11 de la  
 noche, en el teatro de San Sebastián, Pasaia de la noche  
 de la noche, con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia. A las 11 de la  
 noche, en el teatro de San Sebastián, Pasaia de la noche  
 de la noche, con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

A las 11 de la noche, en el teatro de Pasaia, en el  
 teatro de Pasaia, con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

**DIA 9. LUNES**

Por la mañana a las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia,  
 el querido colectivo invitado, lo organizamos el siguiente  
 programa de

**PRUEBAS DE BUEYES**

-----

De 10 a 12 de la mañana, en el teatro de Pasaia, en el  
 teatro de Pasaia, con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

**DIA 10, MARTES**

Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia, en el teatro de Pasaia,  
 el querido colectivo invitado, lo organizamos el siguiente  
 programa de

**Toro del aguardiente**

que será a las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

**"SOKA-MUTURRA"**

A las 11 de la noche, en el teatro de Pasaia, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

**DIA 7, DOMINGO**

A las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

**"SOKA-MUTURRA"**

que será a las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

**Cuatro novillos embolados**

que será a las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.


que será a las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

A las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

**Cuatro novillos embolados**

que será a las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

que será a las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.



que será a las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

que será a las 10 de la mañana, en el teatro de Pasaia,  
 con el programa siguiente: Canto, Baile y Mu-  
 sic. Organizado por el Ayuntamiento de Pasaia.

### SOKA-MUTURRA

eta, onen ondoren, Furoen Enparantzan, zezen enbolatu bat,

Lauak laurdenak gutxietan, –Idiakez Enparantzatik irtenik, oitura dan erriko kaleetatik barrena, Udaletxeko Eres-Banda zezentokirai joango da betiko kalejira alaia joaz,

Lauterdietan, - Zezenketa tokian

### LAU ZEZEN ENBOLATU

eta ikuskizuna alaitzen Udaletxeko Eres-Banda eta Txistulariak.

Zezenketaren ondorioz, eta kale-jira bizi-bizian, Udaletxeko Eres-Banda, Furoen Enparantzara joango da, dantza saio bat jotzeko gabeko zortziterdiak arte.

10-etatik 12-terdientara. –Udaletxeko Eres-Banda eta Txistulariak, txandaka, dantza soiñuak joko dituzte.

*Illak 8. –Astelena.*

Goizeko amaikaterdientan eta atsaldeko iruterdientan, zezentokian berebiziko

### IDI DEMAK

Gabeko 10-etatik 12-etara. –Furoen Enparantzan dantzaldi bizi-bizia izango da, ontarako txandatzen diralarik Udaletxeko Eres-Banda eta Txistulariak.

*Illak 9 –Asteartea.*

Erriko Elkarre Jolasgilleen txarangak emanak, goiz-eresiak Goizeko zortziretan.  
–Zezentokian

### PATTAR ZEZENA

jolaskizun au, leen aitatutako txarangak alaitzen dutelarik.

Amarterdientan.–«Arco Iris» (Ortz Adar) Elkarreak eratzen dualarik, Santa Maria kalea eta inguruetan, oiturazko

### SOKA-MUTURRA

Lauak laurdena gutxitan. –Udaletxeko Eres-Banda, antziñako kale-jira joaz, izendatutako bidetik barrena. Zezen Plazara joango da.

Lauterdietan. –Zezentokian

### LAU ZEZEN ENBOLATU

Udaletxeko Eres-Bandak eta txistulariak alaitzen dutelarik.

Onen ondorioz, eta gabeko zortziterdiak arte, Furoen Enparantzan, dantza soiñu joaldia.

Amarretatik amabiterdientara. –Furoen Enparantzan, beste saio bat Udaletxeko Eres-Bandak eta Txistulariak.

Tolosa'n 1943'gko. Epailaren 2'gnean

### JAI BATZORDEAK



Tolosan, 1899 gn. urteko Inaute irudia



«Urdiña Txiki» elkartekoen «Itxas lapurren ontzia» 1968 gko. Iñauterietan



*Txantxoak.* 1970

Jai-jolasen Batzorde Buruak, Txistulari Bandako zuzendariari bidali zion izkribuan ala dio:

«Iñaute jaien egitarauak bialtzen dizkitzut, bertan Txistulariei dagokizuen lana jakinarazi asmoz.

Astearte-Iñautez erriak jai egingo duela konturatuaz, eta askoren eskabidea ontzat emanik, Batzorde onek erabaki du egun ortan betidanik entzun izan oi dan goiz-diana, egitaraua zuzenduaz, igandean ez baña asteartez egitea.

*Tolosa 1943-ko epaillak 6  
Festa Batzorde Buruak»*

Gaur, Tolosako Iñauteak ba du bere nortasun berezi ta apartekorik Onen kidekorik beste bat sumatzea oso zaila derizkiogu Eta ori batikbat, tolosarrok gure-gurea egin dugulako jai ospakizun au beste iñork ez bezela. Bere egitarau-mugetatik aruntz, jai-giro bereziari erantzuki, Tolosako Iñauteak berekin baidu, beste zenbait ezkutu-gauz: batetako ekiñ-aldi, jokabide, asmakizun da burutapenik zoroenen eremu zabal da sortarazre berdin-gabeko izatea. Gaur, arpegi-mozorroturik ez da kusgun arren, antxiñatik berari dagokionez, ta oitura zar batzuk galdu diralarik ere, ez bai-dira bear-bearrez ko Iñauteriak bere egitura ta kera berezia nabarmenarazteko, alazgutziz, or dager Iñauteria txantxo-jantzi arrigarritz, gurdi-apainduz ta jolaslagun-taldez aruntz-onuntz kalez-kale etengabeen bere buru-erakusmiñetan<sup>123</sup>.

## RAMOS AZKARATE

Musika saillera pasa aurretik, aipamen bat zor diogu Ramos Azkarate bertsolari-poetari, «Galtzaundi» ezagunaren<sup>124</sup> itz-asmatzallea, berori bai-dugu Iñaute-kutsuzko doñurik jatorrena<sup>125</sup>.

### BERTSO BERRIAK TOLOSA-KO GALTZAUNDI-K BERE BURUARI JARRIAK

#### 1

Neri deritzat Galtzaundi,  
apellidua det Goñi,  
Aldasoro izen goitiya  
deitzen dirate neroni:  
iltzerikan ez nuben

---

123. Erriko «Centro de Iniciativas y Turismo» delakoaren gogoz. «Iñauteri Ezaugarritz» omi-tuak izan dira: Kandido Irastorza, Juan Lope, Juan Mokoroa, Pedro de Pedro, Miguel Martinez Lezea, Fernando Olazabal eta Santos Mokoroa; denak, jatorritz ez bada ere, tolosar bertakotuak. Liburu au idatzita gero, jartzen degu Luis Kollado, aurtengo «Iñauteri Ezaugarri».

124. «Galtzaundi» zeritzaion «Gure Txokoa»-ren aurreko bazkunari ta *Galtzaundi* izenburuz ezagun da Antonio María Labayen tolosar Euskaltzainaren antzerki bat.

125. Baitere ezagunak izan dira gure artean Sasiainen *Bertso-paperac-senar-emazte batzueri jarric*, eta Mariano Lantzeta Rekalderenak. 1917-gtik 1922 bitarteko Karnabalaletan, Lantzeta bere semeekin atera zan, da lenago berriz, lau urtean, Lertxundirekin bikotean.



lenago pensatzen,  
bañan oraingotikan  
ez naiz eskapatzen,  
testamentu egitera  
nua ni lenbailen,  
nere parientiak  
lasatu ditezen.

2

Aitaren Semiaren  
Espiritu Santuaren,  
Jaun zerukuak lagun zaidala  
lan onetan neri arren;  
sentimentu bakarra  
dadukat barrenen,  
alaba ipurtaundiya  
utzitzia emen,  
orra neregatikan  
oyek nola dauden,  
Jaunak eraman nazala  
zerura lenbailen.  
Ta Galtzaundi,  
ta Galtzaundi,  
apellidua det Goñi<sup>126</sup>.

3

Nere lengusu Pocofinori  
nai diozkat bada utzi  
nere eskatzeko estanteriya  
bere jenero ta guzi;  
bañan ango kristalik  
ez dezala ausi,  
bestela utziko dizkat  
guziak Ramos'i,  
egiten badiote  
jaun oni igesi,  
laister juango zaizka  
danak Rodriguez'i.

4

Ni il da gero nere emaztia  
penaz (pozaz) ilko balitzake  
nere onduan enterratzia  
iñola al balitz nai nuke;  
eta gañian jarri  
letra bat aundiya,  
emen dago Galtzaundi  
eta konpaniya,

---

126. Errepika au aapaldi bakoitzean berritzen da.

poz aundi bat artu zun  
Tolosako erriyak  
merkatu ziralako  
ordun erariyak.

5

Entierrua nai det egitia  
neri bigarren klasian,  
lau zapatarik eramatia  
gañera berriz aidian  
jota nabarra juaz  
Enpero kalian,  
sobrekamak balkoitan  
naramatenian,  
Arramele zubian  
aizken aizkenian,  
zagi bat ardo jarri  
kajaren gañian

6

Nik oraindaño egin izandu  
dituan testamentuak  
gaur bertatikan izango dira  
ayek danak borratuak;  
eta orain firmatu  
nere testitguak,  
aditu baituzute,  
gaur nere kontuak,  
ixilik idukiarren  
nere sekretuak,  
Dametako iturriyan  
eran kuartillu bat<sup>127</sup>.

Ramos Azkarate, ogibidez, zapataria izan zen. Bere lantokia, Karlos VII Enparantzako lenengo arkupean. Bertan ikusi dezakegu «Txinparta» Bazkuan 1965-ean aren omenez jarritako oroigarria.

Ramos Azkarateren lan-tokitik gertu xamarrean, 2-en zenbakia duan eskatzaren aurrez-aurre, Mikaela Imaz de Arbizak etxe jabea zalarik utzitako tokian, exeritzen zan baita ere, oñetako-konpontzaille bezela Santos Goñi, «Galtzaundi». «Galtzaundi» gixaxo bat zen, luzea ta medarra, beti-beti galtza oso motxaz ibiltzen zana.

Esku-langille auek arku barrura begira lan egin oi zuten, euri ta aize babesgarri egur da arpilleraz osatutako esi bat bizkarraldetik zutelarik. Iñaute Igandez, 1890-1891 inguru artan, Musika Bandak, Rufo Montilla zuzendari

---

127. Antonio Zabalak, *Auspoa* bildumako zazpigarren aiean, *Galtzaundi ta beste bertso asko*, deritzanean dionez, Itzneurtu oek 1880-1890 bitartean idatziak dira.



Ramos Azkarate, olerkari-bertsolaria.

zuela, atsaldeko ordubitan Idiakez Plazan, bi joaldi egin oi zitun. Gero bestea, Santa María Kaleko, gaur N.º1, ta len N.º2 zuen etxaurrean, lenengo bizitzan eskubira –1938-tik bizitza bakar biurtua–, «Galtzaundi» orduan beintzat bizi zan atarian. Ba-dakigu «Galtzaundik» bere bizitza ere izan zuala Berdura edo Karlos VII-garren Enparantzan, aitaturako bigarren zenbakian.

Antxe saio bat egin ondoren, Santos Goñik anixete kopatxo bat eskeintzen zien. Bereala, «Galtzaundi» doñua joko zuten, ta bitartean, musikarien erdian, Goñi senar-emazteak, dantza ziñuketa zegitelarik. Aurrez, lurtean ban-deja illun bat uzten zuten kopa ta edari-botillaz<sup>128</sup>.

Ramos, *El Cántabro* ta *El Correo de Guipúzcoa* periodikutako lankide zan, da *Beotibar-ko jazarra ta Ijituen kontratuba eta ezkontza* antzerkitxoak bereak dira. Azken obra onen izenburuak, gaur ia ikusten ez diran irudi-biziak dakarzkigu gogora.

Ramos Azkarateren urteetan, da ondotoz gero ere, gure errietan maiz azaldu oi ziran jende arrotzak, ijitoak esate-baterako, zumitz-saskiak saltzen, edo gaztain-zurezkoak xexto ederrak, andrea; xexto ederrak eta merke, etxekoandre, ta bidebatez, pertza ta euritako pedar edo txantxil naiz kaxola konpontzera eskeintzen zirenak –konponi-kaldera, estaña-txokolatera ta abar–<sup>129</sup>. Gorosabelek, pertzalari ta estañatzalle prantzesak euri-ekarle bezela aitutzen ditunarren, txorrokilliak aazturik –edo bear-bada bere denboran orrela ezezagutuak– uzten ditu, gaur bertan ere aalmen miragarritzko ori berekin dutela erriak uste izanagatik<sup>130</sup>.

Gizaki bitxi aien da bere mundu apartekoaren eragiña sumatu izan da zenbait jolas lagun taldeetan da baita beste jai ospakizunetan ere. Atzerritar giza-emakume oiek, berak uste gabe, gure errietako Karnabalak pranko aberastu dizkigute.

*Ijituen kontratuba eta ezkontza* Tolosan estrañatu zen 1885-eko Iñaute-tan, Plaza Zaarrean, aurrez jasotako oltzagain baten<sup>131</sup>. Antzerkizun au parro-kiko organu berriaren asikunde-jaiaz batera gertatu zen, Felipe Gorriti, Santa Mariko organista zela. Ofizialki ordea, Agintari-batza bertaratuaz, geroxeago ospatu zen, ots; urte bereko apirillaren amabian.

---

128. Zeaztasun oek, Pedro Elosegi Hildagok eskueran jarri dizkigu. Elosegi ta «Galtzaundi» auzokide ziran, aren len aurrena esan dugun alboko etxean bizi baizen, da Ramos Azkarate ere, zerbait errena, gogoan du, ta bere egoitza Kale Nagusiko 24-garrenean jartzen du.

129. Oñezko saltzalle oetzaz, *La revista tolosana* aldizkariak, 1927-an idazlan bat argitara zun aski polita.

130. Pablo Gorosabel: aip. lib., I alea, 363 orr.

131. Ramos Azkarateren antzerki au geiagotan ere emana izan da. Aipa ditzadan 1895 ta 1934koak, Karliten Bildokian. Antonio Zabalagandik dakigu, 1895-eko antzezariek nor izan ziren: Antonio Antia, Teodoro Amonarriz, Joakin Arrese-Igor, Pedro Elosegi, Bitorio Iribarren, Inazio San Sebastian, Lorenzo Pujana, Joakin Alargunsoro, Jose Muñoa, Baleriano Mokoroa, Jose Azurza, Santiago Caballero, ta Ramos Azkarate. 1936-ko jaikizun-xeetasunak jakiteko, ikusmiatu Donostiko egunkari *La constancia* 6-2-36.

Tolosar erri-olerkari onek bertan izan zuan zerikusia aundia izanik, 1886-ko Iñauteei buruz ariko gera. Urte artako Iñauteak alai ta diztiratsuak izan zirela zer esanik ez, Azkarateren eragiña nabari-nabari bai-zuten.

Igande ta Astelen goizez zortziterditan, Musika Banda ta Txistularien saio ondoren, arratsaldean toriatuko ziran xexen-taldearen sarrera egin zan. Astele-  
neko xexen-sarreran gertatu zen ordea zerbait. Ganaduak, Izaskundik bera Naparroako zubia baño len, gaur ezkutatua den Arrillaga baserriruntz jo zuten, da etziran kaleratu bederatziterdik arte. Paskual Donosti-Aldapetakua zuten aberezai. Ba zan besterik ere gertaturik, xexenak zirala ta, jai-oietan. Urte ortako Udaletxeko kontuetan ba da ordain-agiritxo bat, 1886-ko epaillaren bederatzikoa, onela diona:

«Erri ontako diruzaiak bi pezeta ordainduko dizkio Joxe Mari Tolosari, Lizartzara idazki azaldun bat eramateagatik, gaur, Iñautetako zezentaldetik, idi bat geldiarazi dutela erri ortatik artu bai-dugu izkribu bat».

Joxe Mari Tolosa, erri obretako kontramaixu zan.

Tolosar gazteak zezenak toriatu ta banderillatuko zituzten, da Igandez berriz, badakigu Peraltako zezen iltzalleak ezpataz erail zuela.

Asteartez, goizeko bosteterditan asiko zan festa, txistulari saioakin, gero, alboradaz itzegitean esango degun eres-sorta entzunaraziaz. Arratsaldean, Plaza Berrian, zezenak eta gurdi apainduen erakusketa. Festa-alaigarri, txistulariak, txaranga eta Musika Banda.

Goazen baña Zaldunita Igendera. Egun ontan, goizeko amaiketarik eguerdiondo arte, Plaza Zarra izan zen Beotibarko guda-burruka oroitarazten zuen ikuskizunaren agerleku.

«Iñaute-Udala», «Laurak-Bat» txarangarekin, Estanis Bereziartua zuzendari zuela ta bordodantzariak, atera zitzaizkien bidera Ramos Azkarate ta bere gudulariei, Igarondoko Zelai Txikira. Elkar jotzean sutunpak entzun ziran, jarraian, Plaza Zarrera gizataldea jetxi ta an Modesto Letamendia Mokoroaren Maixu izanaren Martxa kantatu Azkarateren itzekin.

Esan zagon baitere Musika Bandak jaialdi ontan erakutsi zuela bestetan ez bezelako eguzkialdeko jazkera ikusgarria soñean. 1894-ean berebat, Musikari oek Erdiaroko erara itxuraldaturik agertu ziran, beste lau inditar beren Jauntxo zaldunarekin jolastaldea lagun zutela.

Ramos Azkarate izan gendun gizon bat gure Euskalerrriaren da bere izkuntzaren maitale purrukatua. Ark esan oi zuen «Zeruan, jai aundiren bat danean, euskeraz itzegiten dute». Eta *Ijituen kontratuba eta ekontzako* azken-zortzikoan, ala dio:

Euskeraz jeiki eta  
Ala gosaltzera  
Euskerakin goaz  
Guero bazcaltzera,  
Euskeraz nola joaten  
Gueran apaltzera  
Euskeraz goazen! goazen!  
Guztiyoc oyera.  
Esanaz «Euskera da  
Aitor-en bandera  
Euskerarengatican  
Denoc ilco guera.

Azkarateren luma itzlauz naiz bertsoan, alaia zen, pozkariotsua ta ajolakabea. Baña, ala bear izan ezker, da maiz gerta zitzaion gauza orixe, ba zekien gogor erasotzen da baita miñ ematen ere. Ez degu aaztu bear Ramos Azkarate, fuerista edo erki-legezale sutsua gendula, ta aren bizi-garaia politika arazoak aski astindua izan zela. Politika saillean burrukalaria izatetik gerta zitzaion noski, bein baño geigotan, salatuen alkitxo naigabetsu ortan exeri bearra. Beiñola, politika-kutsuzko bertso mingarri batzuk zirela bide, lau apaizek auzitara deituko zioten; oietako bat ordungo Tolosako erretore On Patrizio Orkaiztegi zelarik<sup>132</sup>.

Alderakizunik egin gabe, eremu labaingarri ta arrunt ortan eror ez gaitetzen, Azkarateri buruz esan zangun erri-olerkaria izan zela bete-betean. Erriarentzat idatzi zuen, norbaitek liokenez, onentxoentzat. Azkaratetzaz diardugula, ezin ba alde batera utzi, gutxi ezaguna ba da ere, aren Indalezio Bizkarrondo «Bilintx»-enganako jaiera bizia, «berau dugun ezker, Luis Mitxelena digunez, euskal literatur sailleko erromantikurik jatorrena»<sup>133</sup>.

«Agur, agur Bizkarrondo!  
Zurekin lotan, zurekin esna,  
zurekin, zergatik nabill?  
Zekizulako itzak neurritzen  
zuzen, sendo ta biribil:  
zuregatican nere biotza  
zoratu nayeandabil,  
zurekin naidu aurrera bizi,  
zurekin nailuke ere ill».

Ramos Azkarate Otegi, Tolosan 1847-an jaio zena, bertan il zan, 1904-ko martxoaren 26-an. Aren eriotzaz etzen iñor-asko oartu. Baña ori ez da arritzeko. Erruki-etxean igaro zitun bere azken-egunak; zapatari xume bat zan, poeta...

---

132. Auzi-mauzi onen goraberaz, Sebastian Insaustik ba du lantxo argibidezko bat argitaratua *Tolosako diruetxe aldizkarian*, 1965garren urtean.

133. Mitxelena, Luis: *Historia de la literatura vasca*, 132 orr.

## MUSIKA

### Kanpotar erestaldeak. Erriko Musika Bandaren oporraldia

1936-ko jai-egitarauan ikus ditzakegu aitaturik «La Musical Donostiarra» ta Billabonako Musika Banda. Etzan oitura zarra Tolosako Iñautez erbestetik soñulariek ekartzea, laister dakuskegunez.

«Diapasón» izeneko erestaldeak, 1907-an, baldintza batzuk gordez, Iñautetako bere burua eskeintzen du. Orrela, berak zionez, auzotik ekartzen ibilli bearrik ez. Baña Udalak gogoratzen die, «San Juanez bakarrik ekarri oi dela erbestekorik errira», ta «Diapason»-darren eskeintza ez du onartzen, agertuaz gaiñera, Iñauteetan ez litzakela Erriko Banda beste talderik erabili bear.

1921-ean ordea, alabearrez, Udala ta Erriko Musika Banda auzitan zebiltzen, da onengatik Eres-batza desegin zan. Gertakizun ori kezkarri izan zen tolosarrentzat, orrela, urte artako jaiak arrixkuan baizekuskiten. Urte berean aurpegi estaltze edo mozorro ateratzea galerazia zegoan. Egoera kezkarri onek ekarri zuen ondorengo okerrik: ots, ixkamill da zalapartak, edo gaurko izkeraz diokegunez, gizarte-pakea austea.

Ordun, Alkateak, Udaletxeko balkoitik, aginduko zuen, etzuela utziko erria Iñautez musikariek gabe, ta asmo ori aurrera emateko, Udalak batzorde bat izendatuko zuela, ta musikariek izketatu ondoren, iritzi au eman zuen:

«Joan dan illaren 27-an izendatu Batzordeak, Erriko Musika Bandakoekin euki dituen ar-emanetan, Iñaute-jaiak alaitu asmoz, au dio Musikari izandako ordezkariekin izketaldiak izan ondoren da beroiei gure egitekoa azaldurik, kontura giñan oso zailla zela ezer irixtea gure zeregiñ mugatuaren barruan, au da, Karnabale-tako Musiko Banda lortzea; baña gerorako eginbidezko zerbait lortu zitekeala oartuz, arazoaren askapidea eskueran etzegoela etsirik, beste luzarorako ortan saia giñan...»<sup>134</sup>.

Orrela bada, Udalak Gazteizko Militar Bandarengana jo bear izan zun, da geltokian Udalbazkide batzuk eta tolosar mordo aundi batek arrera egin zien.

Lenengo jardunaldia Korreo Kalean egin zuten «Iriyarena» joaz, andik zuzenean Errikoetxera joanaz. Jaiak iraun zuten arte, arabar musikariek ongi baño obeki artuak izan ziran alde guztietan.

1921 urtetik alda gaitezen 1931-ra. Urte ortan Jai Batzordeak eskatu zion Udalari, eskubidetu zezala Musika Banda bat kanpotik ekartzeko, bertakoa ez bai-zen irixten Iñaute aldiko eginbear guzitara. Eskabide au onartua izanik, Billabonako Banda Tolosaratu zan, da iru edo lau urtetan emen iku-

---

134. Etzan ordea 1921 ortan dena oporketa musikarien artean. Udalak, Blas Alberdi txistularia saritu zuen, Iñautetan gaxorik arkitu zen lenen danbolintero Leandro Zabala ordezkotu zuelako.





siko genduen, gero, 1935-ean Donostiko «Union Bella Iru-Txulo»-koek ere bai<sup>135</sup>.

Erriko biltzar-agirietatik dakigu, 1931-eko festetan beste jaikizun bat egi-tea otu zitzaiera: «Pattar zezena». alegia, aspaldi ikusten etzena. Len aipatu erribiltzarrean eginbideratu zen, «Asteartez, oiturazko «Pattar-zezena» berriro ateratzea».

## Diana. Doiñu-sorta

Gaureguneko ikuspegitik begiraturaz, ezbairik gabe, Iñauteen bizi-iraupena, besteak-beste, onetxi zor zaio noski: musika doñu-sortari. Iñaute-jaitako soñuak ain dira izan ere alaiak, unkiagarri ta oroitarazle, tolosarron barne-muinaño sartzen zaizkigula aitortu bear. «Pello ziri-ziriren Habanera», «Baratzako pikua» eta «Pastelero», naiz ta txarangak beti ongi emanak izan ez, egun oietan, erritarroi, urte guzian lozorroturik genduzkan sentipenik ezkutue-nak bat-batetan esnarazten dizkigute<sup>136</sup>.

Igandeko goiz-diana Erriko Musika Bandak jo ta txantxoek ao batez kantatuz: *Jeiki jeiki oi ortatik gaur tolosarrak Iñauteriak, beti! alaitzen gaitu guztiz! Jeiki jeiki oi artatik gaur tolosarrak goazen festara danok goizetik*, ibillune au egiten du: Felipe Gorriti Enparantzatik atera ta Agintari Kaletik, Idiakez Plazara, Nagusi Kalea, Gorriti Plaza, Korreo edo Antonio Elosegia Kaletik, Berdura edo Karlos VII Plaza, Korreo, Eskolapio Arku edo Gaztela Portaletik, Portal Kale, Errementari, Leitza, Arostegieta, Portalekoa, Pablo Gorosabel edo Errondilla zearkatuz, Martiri ta Beotibartik, Justizi Plazara. Emendik, Errondilla Kale, Leitza ta Arotsegietatik, Fuegos Enparantzara, erronda «Jota» dantza-tuaz bukatzen delarik<sup>137</sup>.

Goiz-diana onek baditu bere jakiñeko geldiuneak, eta oietan Musika Bandak doñu bereziak jotzen ditu. Idiakez Plazan, «Iriyarena». Doiñu oni Serafin Barojak ipiñi zizkion itzak. Emen dijoakizun onen lenengo aa paldia berea da, ta beste biak, jabe ezagunik gabeak.

«Irtena da xexena arkupetik  
txingarra dariola atze aldetik  
danbadaka  
ta jiraka  
jendeen tartetik.  
Zalapart artan zenbat naspill,  
zenbat karraxi, zer iskanbill

135. 1935-ean gurdiaipaindu bat baño geiago atera ziran. Aitagarrienak oetxek: «El verdadero», «El tren misterioso», «Los astrónomos» eta «Los incansables». «Piña Iruña» txaranga ere tarteko izan zen.

136. 1972-ko Karnabaletan amaika eres-taldeak edo txarangak bildu ziran.

137. Orain ogeitabost urte arte, Diana, «Pastelero» delakoarekin bukatzen zuten.

itzumuka  
trunbulluka  
jende dena dabil».

«Xexenak dira, beltz beltzak dira  
arrapatzen ba zaitu (bis)  
bertan bertan ilko zaitu».

«Xexenak dira adar zorrotzak  
arrapatzen ba zaitu (bis)  
bertan bertan ilko zaitu».  
Felipe Gorriti Enparantzan, «Pello ziri-ziri» entzuten da.  
En la Plaza de Felipe Gorriti se interpreta «Pello ziri-ziri».  
«Ikusi nuenian,  
nik zure sudurra.  
Iruditu zitzaidan, moñoña,  
lukainka muturra».

«Ai! ai! Pello ziri-ziri,  
Izaskungo menditik moñoña  
zu ziñan erori».

«Ai! ai! ziri-ziri Pello,  
gizonak ez dik ongi ematen  
mozkortu ezker».

Orain urte gutxi arte, Berdura Plazan «Baratzako pikuak» eman oi zen;  
baña azkenaldi ontan «Pastelero» deritzana.

«Baratzako pikuak iru txurten ditu (bis)  
Neska mutil zaliak (bis)  
Ankak arin ditu  
Ankak arin ditu  
Ankak arin ditu».

«Ankak ariñak eta burua ariñago (bis)  
Dantzan obeto daki (bis)  
Artajorran baño  
Artajorran baño  
Artajorran baño».

Ai, ene!, nik ere nainuke  
Oi, ene!, zuk naibazenduke.

«Artillero dale fuego  
ezkontzen zaigula pastelero.  
Eta zeñekin? eta norekin?  
Orpo zikiñaren alabakin».

«Orpo zikin, gona luze  
atzeko-aldeko erregidore.  
Jotzen zioten tarrapatatan,  
zergatik nexkatxa zatarra zan».



Aro batzuetako Inauterietan ibili diran eres-taldeak (XIX gn. gizaldi azkenean)

«Orpo zikin, gona luze  
kaleko loiaren erregidore.  
Deitzen zioten zarran zan zan zan,  
zergatik neskatxa zatarra zan».

«Galtzaundi» «Habanera», Gaztela Portalerako, edo beste izenez, Eskolapio Arkurako uzten da, ta Justizi Plazan, len «Paquita la vergaresa» ematen zuten tokian, gaur «Isabelita» entzuten degu.

«Txin-txin atea iriki zazu  
txin-txin ezin det iriki  
txin-txin alkatea dator  
txin-txin alguazillakin».

«Ai! zu gau-txori  
ez ekarri kontutxo ori  
zoaz ta esan orixe  
parrandako laguneri».

I

Isabelita ponte a servir  
y lo que ganes dámelo a mi.  
Para tabaco, para papel,  
para cerillas para encender.

II

Ai! Tolosako neskatillak  
txit alai gaude gaur mutillak.  
Arpegiz eder, soiñez fiñak  
zeratelako atsegiñak.

III

Zurekin nai det gaur dantzatzia,  
zu maitetu ta ezkonduzia,  
gu biok beti Iñauteria,  
izaten bazera nere ematzia<sup>138</sup>.

Ezagun dugu Karnabaletako «particella» ogeitairu ereskiduna, ta oietan amaika garrena, Verdiren opera «El Trovador»-eko «Miserere». Oraingo jaitako eres-sorta, Astearte atsaldako irugarren zezen bitartean jotzen dan san Juan martxa barne, amazapi ereskidunek osatzen dute: bost «habanera», bi «faroldanza», bi fandango, bi kalez-kale, bi «vals», zortzikoa, «polka» aidea, ariñ-ariñ ta goizeresi edo «diana».

---

138. Estanislao Urruzola dugu Dianari euskal itzak jarria, ta «Paquita la vergaresa»-ren bigarren estrofari, ta «Isabelita»-ren lenengo ta bigarrenari ere bai.



«Poivo y Paja» txairanga 1959 green



Txistulariak alboradan



Txanboak alboradan

«Habanerak, kale-jirak, fandagoak (emezortzigarren gizaldiko kutsua dun «Iriyarena» izan ezik), Juan Strauss'en (semea) polka, «Danubio Azul»-en egileea berau, goiz-eresiak eta Ariñ-ariñak ez dute eun urtetik gora. Oso zaarra ez dan zerbaiten puzketak besterik ez dira farol-dantza biak. Antzeko zerbait gertatzen da 14 garren kale-jirarekin»<sup>139</sup>.

## Alborada

Alboradak, ordu ezgaraian delako edo, ba du berekin alako leen-kutsu berezia, sendi-giro barrukoia. Tolosarrok beintzat, barnekoi zerbait sumatzen diogu, ustekabez ere lengoratzen gaituena. Emeterio Arreseren aldi aietara garamazkiña, Kathalin Berrobikoaz dionean: «Goizero dator buruban aisha jasorik otar edo saskiia».

Astearte-Iñaute goizean, elizdorreko erlojuaren seigarren danbadakin batera asten dira txistulariak «Segurako Diana»ren leen otsak ateratzen Udaletxeko arkupetan, da aietxek dituzu ainbat gautxori naiz goiztarien jai-zalaparitari asiera damaiotenak beren jazkera zelebren ta bitxiekin, egunari bere itxura nabarmena ezarririk. Askok beartu gabe, Tolosako Alboradarengatik ba diokegu

Donostiko Karnabala ezagutzera etorri zen paristar arek ziona:

«Donostia, zoro erri bat da. Iru egun oietan pertsona bat bakarra ezagutu dut benetan formala, ainbateko eromenaren erdian geldi ta serio danbolinteroa».

Diana bukatuta, Idiakez Plazan, alborada eres-sorta osoa adi-arazten dute, ta auxe duzu: «Zaldibitarra», «Andre Madalen», «Lenengo Habanera», «Jota», «Bigarren Habanera», «Dama gazteak», «Txanton Piperrri», «Arin Ariñ», «Karnabal zortzikoa», «Pastelero», «Bigarren Idiyarena», «Ariñ-Ariñ», «Emezortzi neska-zar», «Paratzako Pikuak», «Irugarren Idiyarena», «Ez orain Alejandro», «Aldapeko Maria», «Al pasar el barco», «Jota popular Carnaval» eta «Iru Damatxo»<sup>140</sup>.

Ondoren, lenengo «Idiyarena»-ren aidera, Erriko Txistulariek joaten dira Carlos VII-garren da Felipe Gorritiren Enparantzeta alborada zati bat ematen dutelarik, gero, Antonio Elozege kaletik zear, Gaztela Portale edo Eskolapio Arkuan amaitzeko. Une ortantxe da ain zuzen «Pattar Zezenaren» ordua, ta zezenplazaruntz jotzen duten kaleak, jendez beterik ager dira. Askorentzat Asteartita asiera au da Tolosako Iñaute azken-eguna.

---

139. Javier Bello Portu: «La música en la calle», *Libro homenaje a Tolosa. VII centenario 1256-1956*, 186-190 orr.

140. Migel Martinez Lezea azken urteetako Alboradakin bateratua dakusgu. Txistularien buru izana zen 1925-garrendik, eta bertatik Tolosako Iñauteetan daga 1973 arte, 1949 izan ezik, eta orduan derrioz.



## IÑAUTEAREN ILLETAK

Oraiñ arte ixildu degunarren, ez du orrek esan nai Tolosan Iñaute-Illetak edo Austerregunez egiñ oi den «Sardiña eortzketa»rik emen ospatu ez dugunik.

1889-an, «Karnabala illobiratzea» Astearte gabaz burutu zen, da bertan esku-artu zuen erritar saill aundi batek. San Franzisko Kaletik egin zuen erte-  
era. Danborrero-banda ugaria zijoan aurretik, Bako jainko-aizunaren gurdia-  
paña kupel da botillaz ornia ondoren zuela, ta amabi zuzidunez inguratua.  
Guzira, sei gurdiapain ba ziran, da oietan illaztikerizkoa ageri zen guzien gai-  
llen, denen artean Eiffel-dorrearen itxura moldatzen zutelarik.

Deabru pillo jendea zebilkion nunaitik inguruka, ta zerraldoan zeramaten  
Iñaute-illotzari milla ziñu zegizkioten. Lagun-taldea, kale ezagunenak igaro  
ondoren, Plaza Berriruntz zijoan. Enparantzak, kolorezko paolez da bengala-  
argiz argiturik, benetako Iñaute itxura ikusgarria zagerren. Ikuskizuna amai-  
tzeko, iru Musika-Banda ari zirelarik aideratu zuten oiturazko borobil-puztua,  
euria zalako bereala plazako solairua jo zuena. Gabeko amaiketean, Karnaba-  
bala lurperatze ondoren mozorro-dantza<sup>141</sup>.

---

141. *La Voz de Guipúzcoa*, 1889-3-3.

## Azken itzak

---

*«Ba dira or zear diotenak, lñautea il-zori dagola.  
Ba, oraindik jaio-gabea balitz ere, sortu egin bearako genduke».*

Guk berriz, oso bestela uste dugu. Aitortzen degu bai, lñauteriak, gizarte bizitzan ain sakonki erroturik egon direnak, erri askotan galdu egin direla. Eta zalan-zik batere gabe diogu, etnografi azterjakintza aldetik, benetan tamalgarria dela.

Oien ezkutatzeakin joan zaizkigu betiko gure lengo erri-bizitzaren zati jakingarri ta irautea merezi zutenak.

Gure egunetaraño eldu zaigun lñauteria, naiz sarri zertxobait, edo agian, asko samar aldaturik eta jatorri-galdurik iritxi gugana, alaz guziz ere, bizi dedilla luzaro.

*1972 gko. abenduaren 28 gnean., Pio Baroja jaio zala eunurte betetzean.*

Emen dijoaz, ainbat errietako laguntzalleen izen-deiturak, gure azter-billa-ketetan makiñabat txokotan gizabidetsuki artu gaituztenak. Aipa bearrean gera orobat, On Jose Eugenio Arzelus, Tolosa Udaletzeko Idazkaria, bere abegi onari zor bai-diogu erribiltzarrekiko papermiaketara euki dudan sarrera zabala; ta Pedro Zubizarreta, gazte Lizenziadua, gaur Tolosa Erriko Agiritegi zuzenketa-ren arduraduna, beti arreta aundiz, gure jakinmiña asetzeko egokiera eskuza-balkiro eman diguna. Ar bitzate orok gure eskerronik ziñezkoenak.

Erderazko idazkeran dauden errien izenak liburuan agertzen den grafia bera gordetzen dute. Euskerazkoan, berriz, izenak gaurkotuta daude.

### **ABALTZISKETA**

Josefa Etxeberria Beldarrain, 58 urte. *Zelai-enea* baserria. 1971ko abenduak 5.

### **ABARTZUA**

Simon Otxoa Saralegui, 74 urte. 1972ko uztailak 20.

Garmendia Larrañaga, Juan: Iñauteria

### **ALDABA (Tolosako auzoa)**

Hipolito Emanalde Egaztegieta, 74 urte. *Elizondo* baserria. 1971ko otsailaren 27.

### **ANTZUOLA**

Simon Artolazabal Idiakez, 64 urte. *Artola* etxea. 1971ko maiatzaren 26.

### **ARBIZU**

Maria Josefa Olejua Irurzun, 51 urte, eta Soledad Olejua Irurzun, 61 urte. *Saastien* etxea. 1971ko azaroaren 14.

### **ARESO**

Bizente Barandarain Lazkano, 57 urte. *Garaikoetxea* etxea. 1971ko ekainaren 28.

### **ARTZENTALES**

Juan Luis Fernandez Zubiete, 24 urte. 1971ko uztailaren 24.

### **AZKARATE**

Ramon Otamendi Goikoetxea, 69 urte, eta Antonio Otamendi Goikoetxea, 55 urte, eta Pedro Migel Saralegi Irurzun, 69 urte. 1971ko otsailaren 7.

### **BEDAIO (Tolosako auzoa)**

Jose Antonio Sarasola, 79 urte. *Zumitzketa* baserria. 1966ko apirilaren 2.

### **BERASTEGI**

Amada Etxeberria Matxinea, 67 urte. *Borda Txuri* baserria 1970ko apirilaren 3.

### **BERGARA**

Nemesio Berroya Ayala, 80 urte, eta Bonifazio Laskurain Olano, 90 urte. 1972ko maiatzaren 29.

### **BERROBI**

Kaietano Garmendia Otaegi, 66 urte. *Antzi* baserria. 1970ko azaroaren 9.

### **BERUETE (Basaburua)**

Sabino Arangoa Irañeta, 58 urte. *Elizaldea* etxea. Ezekiel Arano Argaña, 73 urte. *Errekaldea* etxea. Jose Garro Gatro, 82 urte. *Idiaga* etxea. Roke Moreno Arrebillaga, 31 urte. *Etxeberria* etxea. 1971 ko uztailaren 2.

### **BETELU**

Andres Yeregi, 83 urte. *Etxetxo* etxea. 1967ko irailaren 25.

### **ELDUAYEN**

Maria Etxeberria Leitz (Estanko), 77 urte. Juana Frantziska Peñagaritano Altuna, 76 urte. *Martinsanzenea* baserria. 1970ko maiatzaren 21.

### **ELORRIO**

Jaime Kerexeta Gallastegi, 54 urte. 1972ko uztailaren 8.

### **ETXALEKU (Imotz)**

Juan Arrizurieta Arangoa, 59 urte. *Milenea* etxea. Agustin Beloki Gerendiain, 67 urte. *Iturrikoa* etxea. Ezekial Etxeberria Betelu, 32 urte. *Mokoroa* etxea. 1971ko martxoaren 5.

### **GERNIKA**

Pedro Kalzada Zalbidea, 75 urte. Fernando Egileor Sandagorta, 57 urte. 1972ko abuztuaren 28.

### **INTZA (Araitz)**

Kandido Goikoetxea Otermin, 65 urte. 1971ko azaroaren 9.

### **ITUREN eta ZUBIETA**

JoseTelletxea Jorajuria(81 urte. 1971ko azaroaren 11.

### **LATASA**

Manuel Galarza Iriarte, 56 urte. *Arotzanea* etxea. 1970ko ekainaren 30.

### **LEITZA**

Pedro Lasarte San Mattin (48 urte. 1971ko urriaren 30.

Garmendia Larrañaga, Juan: Iñauteria

### **LEKEITIO**

Rufo Atxurra Arrieta, 60 urte. Lazaro Alkorta Rementeria, 88 urte. 1972ko abuztuaren 19.

### **LIZARTZA**

Ladislao Zubillaga Mujika, 83 urte. 1971ko otsailaren 26 (Aipamen onek aurreko bi liburuetan agertzen direnak zuzentzen ditu).

### **MARKINA**

Anastasio Barrenetxea Artamendi, 81 urte. 1972ko abuztuaren 15.

### **OKARIZ**

Akilino Martinez de Maturana, 65 urte, eta Julian Perez de Arriluzea, 67 urte. 1970ko uztailaren 13.

### **ORONoz**

Antonio Etxandi.

### **SAN MILLAN**

Migel Murua Ruiz de Eginu eta Jesus Maria Gil de San Bizente Arzá. 1970ko uztailaren 10.

### **UITZI**

Karlos Olaetxea Iturbe, 45 urte, eta Jose Olaetxea Mikeo, 78 urte. Mainea etxea. 1971ko otsailaren 5.

### **ZALDUONDO**

Blas Arratibel Ruiz de Alegria, 64 urte, eta Mattiniano Martinez de Ordoñana Aseginolaza. 1970ko otsailaren 13.

### **ZIGA**

Leandro Lazkoz Biguria, 77 urte. 1971ko apirilaren 16.